8. **Lanbide: “Administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia izateko programa”** deitzea, EBk finantzatutako Nextgeneration EU PRTR delakoaren esparruan. 16 eta 30 urte bitarteko gazteei administrazio publikoetan eta sektore publikoko erakundeetan lehen esperientzia profesionala emateko programa.

- 2022ko deialdia (7.516.326 €)
- **2023ko deialdia (13.700.000 €) (2023/09/19)**

9. Legegintzaldian zehar, **Eusko Jaurlaritzak 2021, 2022 eta 2023 ekitaldietako ETE-ei laguntzeko planak onartu eta ezarri ditu.** Plan horien bidez, teknologiaren eta berrikuntzaren, eraldaketa digitalaren, ekintzaitzaren, garapen industrialaren eta inbertsioaren, nazioartekotzearen, deskarbonizazioaren, bioekonomiaren, energiaren, ekonomia zirkularren eta ingurumenarekin eta hondakinen kudeaketarekin lotutako enpresa-proiektuen aldeko apustua sustatu da.

- **Enpresa txiki eta ertainentzako 2021eko laguntza-planarekin,** Eusko Jaurlaritzak 8.096 proiektu sustatzea lortu du, eta, guztira, 2.059 milioi euroko inbertsioa egin du.
- **2022ko ETE-ei laguntzeko planaren bidez, 74 laguntza-programa** jarri dira abian honako arlo hauetan: berrikuntza, inbertsioa, nazioartekotzea eta lehen sektorearen garapena. Guztira, **590 milioi euroko** aurrekontua izan da.
- **Enpresa txiki eta ertainentzako 2023ko laguntza-planak** 83 laguntza-programa jasotzen ditu **600 milioi eurotik** gorako aurrekontuarekin. Enpresa-dinamismoari eusteko, eta, aldi berean, trantsizio digitalean, energetikoan eta ingurumenekoan aurrera egiteko, proiektu eraldatzaileen bidez (I+G+b, inbertsioaren % 70), arreta berezia jarritz deskarbonizazioan (2023/02/20).
- **321 ETEk** bat egin dute berrikuntzako euskal ekosistemarekin, **Hazinnova** programari esker. (2023/06/06)

Inplementatutako programen artean, honako hauek nabarmendu behar dira:

- **Indartu Programa,** Nerbioi itsasadarraren ezkerrekoa eta Oihartzualdea eta Euskal Autonomia Erkidegoko urteko batez bestekoaren % 20tik gorako langabezia-tasa duten beste udalerrri batzuk bultzatzeko inbertsio produktiboa egingo duten eta lehiakortasun-hobekuntza eta garapen ekonomikoa ekarriko duten enpresentzat.
  - 2021eko deialdia (22 milioi euro)
  - 2022ko deialdia (20 milioi euro)
  - **2023ko deialdia (17 milioi euro)**
- **Bilakatu COVID-19 programa,** COVID-19aren eraginpean dauden eta negozio-lerroetan, produktuetan, zerbitzuetan eta merkatuetan gaitasun berriak garatuz dibertsifikazio- eta/edo birlokalizazio-jarduerak egiten dituzten enpresei dirulaguntzak emateko.
  - 2021eko deialdia (44 milioi euro)
  - 2022ko deialdia (52 milioi euro)

- **Gauzatu Industria Programa**, oinarri teknologikoa duten edo berritzaileak diren ETE-en sorrera eta garapena bultzatzeko inbertsioari aurrerakin itzulgarriekin laguntzeko.
    - 2021eko deialdia (28 milioi euro)
    - 2022ko deialdia (28 milioi euro)
    - **2023ko deialdia (28 milioi euro)**
  - **Industria Digitala Programa**, zeinaren helburua Elektronikaren, Informazioaren eta Komunikazioen Teknologia (EIKT) industria-enpresetan eta industria-produktuarekin/-prozesuarekin lotutako zerbitzuetan sartzea baita, enpresaren lehiakortasuna hobetzeko.
    - 2021eko deialdia (6,10 M€)
    - 2022ko deialdia (6,10 M€)
    - **2023ko deialdia (6,10 M€)**
  - **Hazinnova programa**, EAeko enpresen berrikuntza ez-teknologikoa bultzatzera bideratutako gauzazko laguntzei buruzkoa. Horretarako, mikroproiektu batzuk egingo dira, produktuan eta negozio-prozesuetan berrikuntza txikiak sortzen dituztenak, inpaktu handikoak, eta konpainietan epe laburreko emaitzetan gauzatzen direnak.
    - 2021eko deialdia (2,30 M €)
    - 2022ko deialdia (2,76 M €)
    - **2023ko deialdia (2,70 M €)**
  - **Basque Industry 4.0**, Teknologia Transferentzia lantzen duten Ikerketa Industrialeko eta Garapen Esperimentaleko Proiektuak babestea helburu duena.
    - 2021eko deialdia (2,30 M€)
    - 2022ko deialdia (1,40 M€)
10. **BIND 4.0 programa ezarri da**. Programa horren helburua da hainbat arlotan ekintzailtza sustatzea: adimen artifiziala; Big Data; errealitate areagotua edo nanoteknologia. **2023ko ekitaldi honetan, zortzigarren deialdia egin da, eta mundu osoko 76 herrialdeko 777 startup-ek eman dute izena.** (2023/10/01)
  11. **2022an, Inbertsio Estrategikoetarako Erakunde arteko Plana onartu zen Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien artean, 530 milioi euroko zenbatekoarekin**, mugikortasunarekin, energiarekin, hidrogenoarekin, osasun eta zainketekin eta digitalizazioarekin lotutako proiektuak aurreratzeko. Jaurlaritzak eta foru-aldundiak 528 milioiko Inbertsio Estrategikoen Erakunde arteko Planaren jarraipena berritu dute, eta, horretarako, Next Generation EU Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren kofinantzaketa gehigarria aurreikusi da. (2023/07/13)
  12. 2022an **216 milioi euroko talka-plan bat onartu zen, Ukrainako gerrak enpresetan eta familietan izan zituen ondorioen aurka**. Planak gizarte-erreskaterako funts bat aurreikusten du, **“Isuri Funtsa”, 15 milioi eurokoa**. Erreskate ekonomikorako funts bat, 158 milioi euro gehigarrikoa, ekonomiarako. Eta likidezia-neurri osagarriak ETE-entzat, 43 milioi eurokoak.
  13. **2022ko apirilean 2024ko Enplegu Plan Estrategikoa onartu zen**, Berpiztu programarekin lerrokatuta eta 2030erako Enpleguaren Euskal Estrategian txertatuta. Plan horren helburu nagusia langabezia-tasa % 10etik behera mantentzea da; helburu hori ederki betetzen ari da (azken datua: % 7,0).
  14. **Enpleguaren Euskal Legea onartzea**. Euskadin lehen aldiz, lege batek autogobernua enplegu-politika aktiboetan garatzen du, eragile guztien jarduna antolatzen du, lan duina definitzen du eta diagnostikoa, orientazioa eta lan-prestakuntzarako sarbidea herritartasun-eskubide berri gisa aitortzen ditu. (2023/12/21)
  15. **Laneko ezbehar-tasak % 21 egin du behera Euskadin 2022an, eta % 20 in itinere istripuetan**. Lanaldiko intzidentzia 214 istripukoa da 100.000 biztanleko (estatuko hirugarren txikiena), % 21eko urte arteko murrizketarekin, eta 25 istripukoa. (Adecco txostena) (2023/01/19)

16. **Elkarrizketa Soziala bultzatzea. Elkarrizketa Sozialaren Mahaiaren 2023ko Lan Plana onartu da.** Dagoeneko martxan dauden lantaldeez gain – Lan Ikuskaritzako Planaren jarraipena; Osasuna eta Giza Baliabideen Kudeaketa; eta Erakundeen Partaidetzarako Lege Proiektuaren idazketa –, honako gai hauei heltzea erabaki da: erronka demografikoa enpleguaren eta lan-harremanen ikuspegitik, zainketen aldeko etorkizuneko herrialde-ituna eta gazteen enpleguaren kalitatearen aldeko behin-behineko ituna Emantzipazio Estrategiaren esparruan.
17. **69 M € 2024ko deialdian, enplegu-zentro berezietarako (64,2 M € 2023an) eta desgaitasuna eta laneratzeko zailtasun bereziak** dituzten pertsonak laneratzeko enpresetarako. Besteak beste, programa hauek ezarri dira:
- 45 urtetik gorako **langabeen artean laneratzeko** proiektuak garatzeko **laguntza-programa** (12 milioi euro)
  - **Lanbide-orientazioko zerbitzuak** garatzeko **laguntza-programa** (12 milioi euro).
  - **Enplegua sustatzeko** tokiko ekintzetarako **laguntza-programa** (19,5 milioi euro)
  - **Laneratzeko enpresak sortzeko eta mantentzeko laguntza-programa** (12,3 milioi €)
18. **2022an, 12 udali emango zaie dirulaguntza, 4,4 milioi euroko** zenbatekoan, gizarteratzeko eta laneratzeko prestakuntza-, enplegu-, orientazio- eta laguntza-proiektuak egiteko, hiriak osotasunean leheneratzeko proiektuei lotuta, **2022-2024 aldirako Inbertsio Estrategikoen Planaren barruan.**
19. **Enpleguaren kalitatearen esparruan, Lan Iruzurra Ikuskatzeko eta Borrokatzeko 2022ko Plan Berezia ezarri da. 2021eko ekitaldian, plan horri esker, aldi baterako 16.000 kontratu baino gehiago kontratu mugagabe bihurtzea lortu zen.** Lan Ikuskaritzak **8.760 kontratu mugagabe bihurtu zituen 2022an Euskadin.** 25.948 kontratu berrikusi zituen: 14.559, kontrataziotan iruzurraren aurka borrokatzeko ohiko jardunaren ondorioz; eta beste 11.389, kontratu talka-planaren esparruan. Horietatik 8.760 kontratu mugagabe eta lanaldi osoko kontratu bihurtu ziren; 3.027, ohiko jarduerakoak; eta 5.733, talka-planekoak. (2023/02/06)
- 2023an, kontratazio-iruzurraren aurkako talka-plana ezarri zen.** Urteko azken kanpainan, lan-ikuskaritzak 2.334 kontratu mugagabe bihurtzera behartzen du. Enpresei 6.000 kontratu baino gehiago berrikusteko eskatu zitzairen, eta 1.613 aldi baterako kontratu eta 721 aldizkako langile finko erregularizatu ziren.
20. Ekintzailatza sustatzea. **“2024ko Erakunde arteko Ekintzailatza Plana” gauzatzen** ari da. Plan hori leihatila bakarra da ekintzailleentzat, eta enpresak sortzeko erritmoari eusten laguntzen du, ziurgabetasun-egoera gorabehera. **2023an 902 enpresa berri eratu dira lehen hiruhilekoan, 806 bigarreanean eta 645 hirugarreanean;** guztira, 2022ko aldi berean baino 100 enpresa gehiago.
21. 2022ko ekainean, **Lanbideak 105 milioi euroko Mikroekintzailatza eta Autoenplegua Babesteko Plana jarri zuen abian.**
22. **Nazioartekotzea bultzatzea. Basque Trade and Investment** kanpoko sareak **21 bulego propio** ditu gaur egun, 2022ko apirilean Tokion bulegoa ireki ondoren, eta **70 herrialdetan baino gehiagotan du ordezkartza.**
23. Euskadiko esportazioek gora egin zuten 2022an, batez ere, produktu energetikoen esportazioek bilakaera ona izan zutelako. Hala ere, energiaren prezioen igoerak inportazioetan ere izan du eragina. Inportazioek neurri handiagoan egin dute gora, eta nazioarteko merkataritza-saldo positiboa murriztuz joan da. Euskal esportazioen bolumenaren etengabeko igoera moteldu egin da nazioarteko egoeraren ondorioz. Hala ere, **2023ko 1. seihilekoan % 3,39 igo dira aurreko urteko seihileko beraren aldean, eta 17.091 milioi eurora** iritsi dira. Eskura dauden azken datuen arabera (hirugarren hiruhilekoari dagozkionak), egoera aurreko ekitaldikoaren antzekoa da ia, **24.239 milioi €-ko** balioa zuten ondasunak eta zerbitzuak esportatu baitziren **2023ko hirugarren hiruhilekora arte** orain metatutako 24.299 milioi €-ko kopuruagatik. (Iturria: Eustat Kanpoko Merkataritzaren Estatistika-Ecomex)
24. Lehendakaria Japoniara joatea. Bidaia bat dator Tokioko Basque Week programazioarekin, eta **Euskadi Basque Country** Japoniako herrialdean **sustatzea izan zuen helburu.** Business Leader Summit-eko energia-misioko eta partaidetzako kide diren enpresekin bilerak egin ziren, horrela, energiaren, haizearen eta hidrogenoaren sektoreko euskal enpresen proiektu arrakastatsuek bertatik bertara ezagutzeko.

25. Ukrainako krisiak eragindako enpresei laguntzeko **Bultzatu programa ezartzea, 20 milioi euroko** zuzkidurarekin. 400.000 €-ra arte, likidezia bermatzeko, Errusiak Ukrainari egindako erasoaren eraginpeko enpresen bideragarritasuna eta jarraitutasuna bermatze aldera.
26. **Airbusekin 2022ko uztailaren 27an sinatutako Akordio Memoranduma.**
27. **Industria-lurzorua 2,3 milioi m<sup>2</sup> aktibatu dira EAeko 32 udalerritan, 255,7 milioi euroko zenbatekoarekin.** Ildo horretan, Sprilurrek 2023aren amaieran 54 milioi euroko 23 obra- eta proiektu-kontratazio izango ditu. 20 milioi euro baino gehiago bideratuko dira Enkarterriko, Ezkerraldeko eta Oarsoaldeko Eskualdeko Plan Estrategikoetan (EPE) txertatutako proiektuetarako, hau da, urtean aurreikusitako kontratazio guztien % 38.
28. **Euskadiko Teknologia Parkeen Sareak bost eraikin berri eraikitzea eta lehendik daudenetatik hiru handitzea aurreikusten du,** milioi bat m<sup>2</sup>-rekin, **2021-2024 Plan Estrategikoaren barruan.**
29. **Laguntza-programa,** Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, **enplegurako prestakuntzako erakundeentzako berrikuntzan egindako inbertsioa finantzatzeko.**
  - 2022ko deialdia (7 milioi euro)
  - **2023ko deialdia (5 milioi euro)**
30. Autonomia Erkidegoko toki-erakundeei zuzendutako **enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzen programa.** Bi ekintza-mota diruz laguntzea aurreikusten dute. Alde batetik, **enplegua sustatzekoak,** hau da, langabeen enplegarritasuna handitzea xede duten kontratazioak, haien kualifikazioa eta/edo gaitasun pertsonalak indartuko dituen aldi baterako lan-esperientzia baten bidez. Bestetik, **laguntzak emango dira tokiko enpresek Lanbiden lan-eskatzaile gisa** izena emanda dauden langabeak kontrata ditzaten.
  - 2021eko deialdia (32 milioi €)
  - 2022ko deialdia (19.5 milioi €)
  - **2023ko deialdia (19.5 milioi €)**
  - 2024ko deialdia (30 milioi €)
31. Laneratzeko enpresak sortzeko eta mantentzeko laguntzen programa. Enpresa horien helburua da kolektibo behartsuenei, bazterketa-egoeran daudenei edo **bazterketa-arriskuan daudenei lan-merkatu arruntera sartzeko aukera** ematea, gizarteratzeko eta laneratzeko prozesu lagunduaren bidez.
  - 2021eko deialdia (10.5 milioi €)
  - 2022ko deialdia (14.23 milioi €)
  - **2023ko deialdia (12.3 milioi €)**
32. Enplegu Zentro Bereziak Lanbide Jarduerari Laguntzeko Unitateak finantzatzeko laguntzen 2022ko deialdia. Desgaitasuna duten pertsonen lanpostuak mantentzeko eta lanbide-jarduerari laguntzeko unitateetarako laguntzak ematen dira.
  - 2022ko deialdia (59.5 milioi €)
  - **2023ko deialdia (64 milioi €)**
33. **Langabeen 2022tik 2024ra bitarteko prestakuntza-eskaintza finantzatzeko laguntzen deialdia.**
  - **2022-2024 deialdia (65.9 milioi €)**
34. **Euskadik indartu egin du Ekintzaitza Teknologikoko Hub gisa duen posizionamendua, 2022an 1.000 startup baino gehiago eta 100 milioi €-ko inbertsioa eginez.** (2023/06/07)
35. Lankidetzak publiko-pribatuko sistemaren barruan, **BAM Basque Automotive Manufacturing Center** (Automozio Fabrikazio Aurreratuko Zentroa) **sortzea onartu zen** Gasteizen. Mercedes Benz, Gestamp eta Mondragon Korporazioak parte hartzen dute. **(12,5 milioi €).** Zentroak produkzio-egitura eraldatzen lagundu nahi du, automobilgintza-sektorearen balio-katearen lehiakortasuna eta jasagarritasuna bultzatuz. (2023/12/14)

## MERKATARITZA, OSTALARITZA ETA TURISMOA

### **Merkataritza-sektorea, ostalaritza-jarduera eta turismoa laguntza-palanka dira mikro ETE-entzat eta autonomoentzat, eta familia-ekonomiari eta enpleguari eusten diete.**

1. Merkataritzaren esparruan, eskariaren dinamizazioa bultzatu da **Denda Bonuaren** bidez. Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-sektoreko establezimenduetan eta hiri-merkataritzako jarduerarekin lotutako zerbitzuetan tokiko merkataritza txikia suspertzeko eta kontsumorako pizgarriak emateko programa. «Euskadi Bono-Denda».
  - 2020ko deialdia (3,70 M €)
  - 2021eko deialdia (6,65 M €)
  - 2022ko deialdia (9 M €)
  - **2023ko deialdia (5 M €)**
2. **Lortutako emaitzei** dagokienez, Euskadi Bono Denda egon den lau edizioetan **28 milioi euro inbertitu** dira Eusko Jaurlaritzaren, udalen eta aldundien artean, eta **salmentak 84 milioi eurokoak** izan dira guztira.
3. **Hirigune programa**, COVID-19aren aurrean hiri-merkataritzaren dinamizazioa eta lehiakortasuna hobetzeko.
  - 2021eko deialdia (1.770.000 €)
  - 2022ko deialdia (1.850.000 €)
  - **2023ko deialdia (1.850.000 €)**
4. **Merkataritza-establezimenduak modernizatzeko laguntza-programa.**
  - 2021eko deialdia (3.350.000 €)
  - 2022ko deialdia (3.350.000 €)
  - **2023ko deialdia (4.050.000 €)**
5. **Merkataritzako Bulego Teknikoetarako laguntza-programa.**
  - 2021eko deialdia (1.920.000 €)
  - 2022ko deialdia (2.000.000 €)
  - **2023ko deialdia (2.000.000 €)**
6. **Turismo-jarduera bultzatzeko laguntza-programa (CTP).**
  - 2021eko deialdia (717.000 €)
  - 2022ko deialdia (717.000 €)
  - **2023ko deialdia (984.000 €)**
7. **Ekintzailetzarako eta turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzeko laguntza-programa (EMET).**
  - 2021eko deialdia (652.000 €)
  - 2022ko deialdia (652.000 €)
  - **2023ko deialdia (1.285.000 €)**
8. **Turismoko lurralde-proiektuetarako laguntza-programa.**
  - 2021eko deialdia (1.450.000 €)
  - 2022ko deialdia (1.450.000 €)
  - **2023ko deialdia (1.840.000 €)**

9. Turismoaren, ostalaritzaren eta merkataritzaren sektoreetan, **ezohiko laguntzen hainbat programa onartu dira COVID-19aren pandemiak** eragindako galerak eta **Ukrainako Gerraren ondorioz sortutako ondorioak** konpentsatzeko:

**Turismoaren eta ostalaritzaren** sektorean:

- **COVID-19 laguntzak EAEko turismo-sektorerako (15.000.000 €)**
- **Euskal ostalaritzaren sektorerako laguntzak (30.450.000 €)**
- **Euskal turismo-sektoreari eusteko laguntzak (17.700.000 €)**
- **Euskal Autonomia Erkidegoko gaueko aisialdiko establezimenduen titularrentzako laguntzak (12.600.000 €)**
- Euskal Autonomia Erkidegoko ostalaritzako eta gaueko aisialdiko establezimenduen titularrentzako laguntzak (22.266.000 €)

**Merkataritzaren** eremuan:

- **COVID-19 laguntzak EAEko merkataritza-sektorerako (9.900.000 €)**
- **Euskadiko txikizkako merkataritzako ekipamendu pertsonalaren azpisektoreari eusteko laguntzak (15.800.000 €)**
- **Ekipamendu pertsonalaren azpisektoreari eta EAEko txikizkako merkataritzaren etxeari eusteko laguntzak (15.000.000 €)**

10. Eusko Jaurlaritzak, **lehentasunezko jarduketa-eremuetako** funtsen bidez, 6,5 milioi euroko inbertsioa egin du turismoaren esparruan **Oarsoaldea, Meatzaldea eta Enkarterri eskualdeetan**; eta **1,5 milioi eurokoa, turismoaren eta merkataritzaren esparruan, Aiaraldean.** (2023/02/08)

11. **Next Generation funtsei dagokienez, turismoaren eremuan** honako **programa hauek** nabarmendu behar dira:

- **Helmugako Jasangarritasun Turistikoko Planak (2021-2023).** Euskadik turismo-jasangarritasuneko hiru plan onartu ditu helmugan, helmugen modernizazioan eragin eraldatzailea lortzeko, lurralde-kohesioa eta turismo-garapen orekatua indartuz. HJTPEk 80 M €-ko inbertsioa egin dute 33 proiektutarako.
- **3,9 milioi euroko balioa duten ostatu-enpresa turistikoek energia-eraginkortasuneko proiektuetarako laguntza-programa.** Horren helburua da ostatu-establezimenduetarako eraikinen berrikuntza bizkortzea eta Euskadiko turismo-enpresen lehiakortasuna handitzea.
- Azkenik, **Turismoaren Konferentzia Sektorialak, 2023-12-29an, turismo-sektorearen lehiakortasuna, energia-eraginkortasuna eta jasangarritasuna hobetzeko hiru plan** onartu zituen, **Next Generation funtsei** esker, honela banatuta:
  - Turismo-enpresen **energia-eraginkortasuneko eta ekonomia zirkularreko proiektuetarako** finantzaketa-lerroa: **2.773.400 €.**
  - **Turismoaren jasangarritasun sozialeko planak: 368.568,79 €.**
  - **Turismo-sektorerako gaitasun digitalen planak: 1.982.342,08 €.**

12. **Next Generation funtsei dagokienez, merkataritzaren eremuan:**

- **Merkatuak modernizatzea (2021-2023):** programa hau hiru ildotan banatzen da, saltoki txikiak eraldatzen eta modernizatzen laguntzeko:
  - **Hiri-merkatu jasangarrietarako laguntzak,** eduki teknologikoa, berritzailea eta jasangarria duten planak eta proiektuak finantzatzeko, bai eta ekipamenduak hobetzekoak ere, dagokion hiriaren barruan dagoen merkataritza-sektoreari zuzenduak.
  - **Joan-etorri turistikoko eremuetarako laguntzak,** eremu turistikotan kokatutako merkataritza-establezimenduei laguntzeko eta bisitarien erosketa-esperientzia hobetzeko.



- **Landa-merkatu jasangarrietarako laguntzak**, landa-eremuetan (5.000 biztanletik beherako herriak) merkataritza-jarduera ezartzen, modernizatzen eta sustatzen laguntzeko, landa-ekonomiaren lehiakortasuna, jasangarritasuna eta dibertsifikazioa hobetuz.

Deialdi horiei esker **19 proiektu finantzatu ahal izan dira, 20,4 milioi** euroko zenbatekoarekin.

- **Funts teknologikoa: 4,1 milioi euroko zuzkidura du 2 deialditan (2022-2023)**, eta haren helburua da lehiakortasuna eta modernizazioa bultzatzea, merkataritza-sektorearen eraldaketa digitalaren eta jasangarriaren bidez.

13. **Euskadiko merkataritzako hainbat hitzarmen sinatu eta luzatu dira (2022-2024)**, lehiakortasuna hobetzeko eta retail sektorea bultzatzeko, bai eta Euskadiko merkataritza-asoziazionismoa sendotzeko ere.

**Merkataritza-sektoreko elkarreentzako hitzarmenak:**

- **Hiri-merkataritzako plataformetarako:** hitzarmenak **Gasteiz On, Bilbao Dendak eta San Sebastian Shop-ekin**.
- **Euskaldendak:** hitzarmenak **Arabadendak, Bizkaidendak eta Dendardean** elkarrekin.
- **Euskomer-entzat:** hitzarmenak **CECOBI, AENKOMER eta Gipuzkoako Merkataritza Federazioarekin**.

**Merkataritza-ganberekiko programei dagokienez, honako hauek nabarmentzen dira: Berriz Enpresa, Eus-commerce, Retail Euskal Eskola, Enfokamer eta merkatarien elkarreentzako errolda.**

14. **Euskadiko Turismo Behatokiaren plataforma berri bat** garatu da, Adimen Turistikoaren Sistema barne hartzen duena eta **Euskadi iraunkortasun turistikoaren arloan erreferente bihurtzeko** apustuari erantzuten diona. Errealitate turistikoaren ezagutza eta errealitate hori **turismoaren arloko helburu estrategikoetara egokitzen lagunduko duen metodologiaren eta teknologiaren aplikazioa hobetuko duten sistemen ezarpena sustatzea du helburu.**

15. **Euskadiko Adimen Turistikoko Sistema (ATS Euskadi)** lurraldearen premien eta idiosinkrasiaren arabera hautatzen diren informazio-iturrien azterketa zehatzean oinarritutako tresna da. Sistema gai da informazio erabilgarria, garrantzitsua, sistematizatu eta ordenatu kargatzeko, prozesatzeko eta aztertzeko, helmugako kudeatzailearen eta eragile guztien zerbitzura jartzeko.

Beraz, **ATS Euskadiko Turismo Behatokiaren parte den aldetik, enpresa eta helmugako kudeatzaile publiko eta pribatuei zuzenduta dago, ekoizpen-ahalmena handitzea ahalbidetuko duten erabakiak har ditzaten, lehiakortasuna bultzatzea dezaten eta turismo-jarduera sustatzeko** ekintzen itzulera ebalua dezaten. Bisitarietzako prestazioak handitzen laguntzen du, eskaintza eskakizun eta behar berrietara egokituz.

16. **Helmuga Turistiko Adimenduna (HTA) Euskadiko hainbat hiri eta eskualdetan ezartzea bultzatu da.** Proiektu honek **5 ardatzetan (berrikuntza, teknologia, jasangarritasuna, irisgarritasuna eta gobernantza)** oinarritutako zeharkako turismo-kudeaketako eredu bat lantzen du. Gaur egun, Euskadin jardunean dauden HTAk Donostia eta Gasteiz hiriak dira, baita Uribe, Goierri eta Arabako Errioxa eskualdeak ere (Euskadi izanik HTAko eskualde-ereduaren sortzailea). Udalekin eta eskualdeekin lankidetzan ari gara HTAk lortzeko Bilbon, Getxon, Bidasoan, Arabako Ibarretan, Debagoienean eta Busturialdean.

17. **“Euskadiko Turismoaren Kode Etikoa” izeneko programa bultzatu eta ezarri da. Kode horren helburua da turismo-erakunde guztiek beren eguneroko jardunean gizarte-erantzukizunak eta iraunkortasuna eta ingurumena aintzat hartzea.** Euskadiko Turismoaren Kode Etikoan egokitu egiten dira Turismoaren Mundu Erakundeak garatu zuen Munduko Kode Etikoaren printzipioak, bai eta Nazio Batuen 2030 Agendaren Garapen Jasangarriko Helburuak ere; euskal berezitasunak eta gure kulturaren berezko elementuak ere eranstean dira. **Kode hau sinatzean, turismo-erakundeek tokiko kultura eta tradizioa eta kultura-ondareko elementuak errespetatzeko eta zaintzeko konpromiso garrantzitsua hartzen dute**, eta, horrekin batera, pizgarriak emango dituzte tokiko komunitateak turismo-jardurekin lotu daitezkeen eta jardura horien onura ekonomiko, sozial eta kulturalak jaso ditzaten, bereziki enpleguarekin lotutakoak.

18. **700 euskal turismo-erakundek, publiko zein pribatuk, amaitu dute Euskadiko Turismoaren Kode Etikoa ezartzeko prozesua.**
19. **Euskadiko Turismo eta Merkataritzako 2030 Plan Estrategikoa onartu da. (2023/09/05)**
20. Eskura dauden azken datuen arabera, 2023ko lehen 11 hilabeteetan **4,3 milioi bisita jaso ziren** Euskadin, 2022ko aldi berean baino % 8,6 gehiago. 2023ko ekitaldiko urteko proiektzioaren arabera, 4,5 milioi bisita izango dira. (2024-01-22)
21. Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren apirilaren 27ko **4/2023 Legea onartu da, kontsumitzaileen eskubideen babesa bermatzen duena.**

## MUGIKORTASUN-AZPIEGITURA BERRIAK

1. **2027an Galdakaori zerbitzua emango dion 5. linea** behin betiko bultzatzea. Linea hori Usansoloko ospitalera hedatuko da, Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak adostutako **360 milioi** euroko aurrekontuarekin. Ikuspuntu materialetik, 2022ko abenduan, honakoa onartu zen: «Bilboko Hiri Trenbidearen 5. linea eraikitzeke proiektua. Galdakao-Ospitalea tartea»
2. 2022ko otsailean, **protokoloa sinatu zen Espainiako Gobernuarekin, Euskal Y-a Bilbon eta Gasteizen sartzeko**. Protokoloa kudeaketa-gomendioetan gauzatu da, Eusko Jaurlaritzak sarbide-obrak egin ditzan. Bilboko trenbide-sarbide berria diseinatu eta gauzatzeko lanak Eusko Jaurlaritzaren esku utzi dira. Basauri lotuko duen "supertunel" horrek eta Abandoko etorkizuneko lurpeko geltokiak 6 kilometro pasatxo izango dituzte, eta 280 milioi euroko inbertsioa beharko dute. (2023/11/15)  
**Atotxako behin-behineko geltokia (Donostia) martxan jarriko da.** Horrela, geltoki nagusiaren eraikinean eta gaur egun AHTa hirira sartzeko prozesuaren barruan zerbitzuan dauden trenbide eta nasen eremuan egin beharreko eraikuntza-faseak aurrera atera ahalko dira.
3. **Donostiako topoaren obrek indarra hartzen dute nasak amaituta, Bentaberriko geltokia behin betiko estalita eta Mirakontxa-Easo tarteko aurrerapenak eginda.**
4. **2022ko maiatzean, metroaren 4. linearen informazio-azterlana argitaratu da;** Iralara eta Errekalderra iritsiko da, eta hegoaldeko irteeratik jarraituko du, Zorrotzaraino eta Alonsotegiraino.
5. **Europa hegoaldeko nodo logistikoa. Euskadi eta Araba Europako Ardatz Atlantikoko nodo logistiko garrantzitsuenak dira.** Horri dagokionez, honako mugarri garrantzitsu hauek nabarmendu behar dira: Arasur garatzea; Bilboko Portu Autonomoaren eta Arasurren arteko trenbide-konexioa; Forondako aireportua finkatzea, estatuko iparraldeko karga-aireportu garrantzitsuena den aldetik; ADIFek Jundizko plataforma intermodal eta logistikoaren proiektua esleitzea; eta banaketa logistikoko operadore handien instalazioa. Bilbo-Foronda-Jundiz-Arasur portuak osatzen duen ardatza lehen mailako elementu egituratzailea da Euskadi Europako erreferentzia logistikoko puntu izan dadin.
6. **2023ko irailean, hitzarmen bat sinatu zen Euskal Trenbide Sarearekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin, Bilboko metropoli-trenbidearen 5. linea eraiki eta finantzatzeko** (Etxebarri-Busturialdea eta Durangaldea trenbide-sarearen konexioa).
7. **Hendaiako Truke Multimodaleko Zentroa abian jartzea, Europar Batasuna zeharkatzen duen Atlantikoko korridorearen "kate-maila estrategikoa" sustatzeko.**
8. **Eusko Jaurlaritzaren, Euskal Trenbide Sarearen, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Trenbide Azpiegituren Administrazioa Enpresa Erakundearen (ADIF) arteko hitzarmena, Donostiako Loiolako Erriberako aldagunea finantzatu eta eraikitzeke.** (2023/06/12)

9. **Hitzarmena Pasaiaiko Udalarekin, Luzuriagako antzinako bulegoen eraikina birgaitzeko** hainbat jarduketa egitea aurreikusten duena, Altza-Galtzaraborda tartean topoa eraikitzeko proiektuaren obren eraginpean dagoen "Azoka" izeneko eraikina eraisteagatik (**3.400.000 €**). (2023/03/31)
10. **Vitoria-Gasteizko tranbia** Salburura hedatzen hasiko da. Guztira, **25 milioi euro inguruko inbertsioa** izan da, eta Eusko Jaurlaritzak % 65 finantzatu du; gainerako % 35a, berriz, Gasteizko Udalak eta Arabako Foru Aldundiak erdi bana eman dute. (2023/04/11)

## LEHEN SEKTOREAREN ETA ELIKADURAREN GARAPENA

1. **2024ko Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoa gauzatzen.**
2. Abian da Leader eremuko landa-inguruko udalerrien garapen eta dibertsifikazio ekonomikorako laguntzen programa. 2021eko deialdian 9,3 milioi eurokoa izan zen, eta 2022ko deialdian 15,7 milioi euro bideratu ziren. **2023ko deialdian 5,1 milioi €** baino gehiago bideratu dira Euskadiko landa-eremuen sustapen eta garapen ekonomikorako, bertako biztanleen bizi-kalitatea hobetzea bermatzeko asmoz. (2023/09/19)
3. **"Baserriaren 2022-2026 aldirako Ikerketa Plana"** gauzatzen ari da, ELIKA fundazioarekin batera.
4. **Euskadiko Landa Garapenerako programaren** barruan, apirilean onartu da nekazaritza-produkzio jasangarriko tekniken bidezko laborantza estentsiboen dibertsifikaziorako laguntzen programa.
  - 2021eko deialdia (1.250.000 €)
  - 2022ko deialdia (1.090.000 €)
5. **Nekazaritza Politika Erkidearen programaren deialdia onartu da. 44 milioi eurokoa da.** Ildo horretan, 2022an ELIKER kalitateko elikadura-zentroaren proiektu berria aurkeztu zen. Zenbateko horri aparteko beste **14 milioi euro gehitu behar zaizkio, nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatzei laguntzeko eta ekoizpen-kostuak handitzearen ondorioz izaten ari diren zailtasunak arintzeko.**
6. Nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko **Handitu 2022 programa** onartu da, **25 milioi** euroko aurrekontuarekin.
7. **2023an, arrantza-sektorerako ezohiko laguntzen programa** izapidetzen ari da, lehiakortasunari eusten laguntzeko eta Ukrainako gerraren ondorio ekonomikoak arintzeko (4.160.000 €). (2022/12/07)
8. **«Arabako Mahastiak/Viñedos de Álava» Jatorri Deitura Babestua onartu da,** eta babes nazional iragankorra ematen da. Era berean, kontseilu arautzailea abian jarri zen (2023ko urtarrila). Aurrera jarraitzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren ebazpenaren zain dago. Ebazpen horrek erabaki behar du ea onartzen duen Errioxa Jatorri Deitura Kalifikatuaren Kontseiluak Eusko Jaurlaritzaren aurka aurkeztutako demanda, uste baitu ez duela eskumenik Arabako Mahastiak sortzeko espedientea onartzeko. (2023/11/19)
9. **Lehiatu Berria programa, nekazaritzako produktuak, elikagaiak eta arrantzako eta akuikulturako produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko laguntzak ematekoa.**
  - 2021eko deialdia (17,5 milioi €)
  - 2022ko deialdia (21,6 milioi €)
  - **2023ko deialdia (15,3 milioi €)**
10. **Ardogintza-sektorerako ezohiko laguntzen programa, Errioxa jatorri-deituraren babespeko ardoak destiltatzeko.**
  - **2023ko deialdia (8 milioi €)** (2023-07-27)

11. **Hirugarren herrialdeetan ardogintzako produktuen sustapen- eta informazio-programak eta -ekintzak egiteko laguntzak.**
  - 2021eko deialdia (9 milioi euro)
  - **2024 deialdia (9 milioi euro) (2023/07/26)**
12. **Sektorearen lehiakortasunari eusteko eta Ukrainako gerraren ondorioz Arabako mahastizaintza-enpresen errentagarritasun-galera arintzen laguntzeko, Eusko Jaurlaritzak, Arabako Foru Aldundiarekin lankidetzan, aparteko laguntza batzuk ezarri ditu, aldi baterako, mahastizaintza-sektoreari laguntzeko (7.300.000 €).** (2023/04/21)
13. **Ardoaren, txakolinaren, sagardo naturalaren, artisau-garagardoaren eta ur ontziratuen sektoreetarako ezohiko laguntzen programa.**
  - 2021eko deialdia (10 milioi €)
14. **Euskadin 9.000 hektarea ekologiko baino gehiago.** (2023/06/29). Legegintzaldirako Gobernu Programan ezarritako helburua 7.500 hektareakoa zen.
15. **Sendotu laguntza-programa,** Euskadiko landa-inguruneko bizi-kalitatea hobetzea eta enplegua sortzea helburu duena.
  - **2023-2024 deialdia (17,5 milioi €)**

## BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA, ETORKIZUNEN ESTRATEGIA GISA

1. **Gobernuaren 2022rako I+G aurrekontua** 587,8 milioi eurokoa izan zen. 2020ko aurrekontuetan baino 100 milioi € gehiago, legegintzaldiko lehen urtean. Era berean, **2023an** aurrekontua berriz igo da eta **658,5 milioi** eurora iritsi da; horrela, **legegintzaldi honetarako Gobernu Programan jasotako konpromisoetako bat bete da.**
2. **Euskadik I+Gko inbertsio-errekorra gainditu du 2022an, % 9ko igoerarekin:** 2021eko 1.647 milioi eurotik **1.795 milioi** eurora igaro da. Horretan bakarrik aritzen diren langileen kopurua ere % 4,9 igo da. (Eustat)
3. **Europako Batzordeak Euskadi berrikuntzaren bikaintasun-polo gisa kalifikatu du.** Berrikuntzaren arloko Europako adierazleen panelak Regional Innovation Scoreboard 2023 (RIS 2023) delakoak, **“berrikuntza handiko” eskualdeen taldean kokatzen du Euskadi, 21 postu igo ondoren, 239 eskualdetatik 72. lekuan dago.** Ondoen kokatuta dagoen autonomia-erkidegoa da Estatu osoan, eta berrikuntzako errendimendua EB-27ko batez bestekoaren gainetik dago ( % 109,8).  
  
Beste behin ere, Europako Batzordeak “bikaintasun-polo” gisa aipatzen du Euskadi (pocket of excellence), berrikuntza handiko eskualdea delako berrikuntza ertaineko estatu batean. Haren indargune nagusiak honako hauek dira: gazteen kualifikazio handia, berrikuntzak produktu berrien salmentari dagokionez duen eragin handia eta bizi-aldia osoko ikaskuntza-prozesuetan dauden pertsonen ehuneko handia.
4. **Eustaten arabera, BPGren gaineko I+Gko inbertsioa % 2,08ra igo zen 2022an, Europako batez bestekoarekin dagoen gapa ( % 2,23) murriztuz eta legegintzaldi honetan konbergentzia lortzeko helburura hurbilduz.** INEren arabera (behin-behineko zenbatespena), Euskadi % 2,23an dago, EB-27ko batez bestekoa berdinduz ( % 2,23), eta Estatuak, berriz, % 1,44an geratzen da. **Euskadik** Ikerketa eta Garapenean inbertitzeko Europako batez bestekoa gainditzeko du eta **berrikuntza handiko Europako herrialdeen artean duen posizioa finkatzen du.** 2023an % 12 handitu dira I+G+b delakoei laguntzeko partidak, **686 milioira iritsi arte,** zifra errekorra. 2024an 700 milioi € baino gehiago eskaini nahi ditu. (2023/11/07)

5. **2022an, 2022ko EIS delakoan (European Innovation Scoreboard) goi-mailako berrikuntzako Europako herrialdeen artean egon zen Euskadi.** Euskadiren balioa 0,6 izan zen, EB-27ko batez bestekoa baino % 10 handiagoa, eta nabarmen gainditu zuen Estatuaren posizioa, berrikuntza ertaineko herrialdeen artean mantentzen baita. Joera hori mantendu ez ezik, indartu egiten ari da; hori diote Eustatek argitaratutako azken datuek; herrialdeak berrikuntza-jardunaren arabera sailkatzen dituen 2023ko EIS delakoaren arabera, **Alemania, Austria eta Frantziarekin batera, "berritzaile indartsuen" taldean finkatu da, Euskadi, Europako batez bestekoa gaindituz. "Giza baliabideak", "Enpresen inbertsioak", "Digitalizazioa" eta "Ingurumen-jasangarritasuna" dimentsioetan EB-27ko lehen postuetan kokatzen da Euskadi.** (2023/11/08)
6. **Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluak positiboki ebaluatu du ezagutzaren enplegu intentsiboari, Europako patenteen eskaerei eta nazioarteko argitalpen zientifikoei buruzko adierazle hobekuntza.** Lankidetzaren publiko-privatuen proiektu eta ekimen estrategiko handiak bultzatzen jarraitzearen garrantzia nabarmentzen da, trantsizio teknologiko-industrial, energetiko-ekologiko eta sanitario eta sozialari aurre egiten laguntzeko. Era berean, ZTBP 2030en hiru zutabeetan («Bikaintasun zientifikoa», «Lidergo teknologiko industrial» eta «Berrikuntza irekia») eta haren garapena bermatzeko behar den «Talentuan» jarduketak bultzatzea ahalbidetzen duten inbertsio-ahalegina eta hazkunde nabarmendu dira.
7. **"Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Plan Estrategikoa" eta "Euskadiren eraldaketa digitalerako estrategia" onartu dira.** Euskadik digitalizazioaren eta datuaren ekonomiaren aro berriaren aldeko apustua egin du. Lehendakariak, herrialde gisa, lehentasunezko hiru proiektu bidali zizkion Espainiako Gobernuak lehendakariordeari, Europako funtsen bultzada eskatzeko. Proiektu horietako bat da, hain zuzen ere, jarduera-ardatz handi hori. Bere baliabideekin digitalizazioaren eta datuaren ekonomiaren aro berriaren abangoardian bere burua kokatzeko lanean ari da Euskadi.
8. **15 milioi euroko ekarpena, euskal Data Center bultzatzeko.** Proiektu hori formalki 2022an eratu da, guztira, 117 milioi euroko inbertsioarekin, eta Arasur industrialdean eta Guardian (Arabak) beste bi Data Center sortzeari ekingo zaio. 2023ko azaroaren 6an, ADI Data Centerren lehen harria jarri da, eremu atlantikorako lehen mailako datu-zentro handia, Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkeko Ezkerraldea-Meatzaldea campusean izango du egoitza, Abanto-Zierbenan.  
  
Azpiegitura teknologiko berria Eusko Jaurlaritzaren, Dominion, Euskaltel eta Teknei Taldearen arteko lankidetzaren publiko-privatutik sortu da, eta aukera emango die enpresei eta erakundeei hodeian informazioa biltegitratzeko ahalmen handia izateko, segurtasun eta gertutasun handieneko irizpideen arabera, horrela, eraldaketa digitaleko prozesuak garatu ahalko dituzte.
9. **Adimen Artifizialeko Europako Zentroa, datuaren balio-katea garatzeko elementu nagusi eta erabakigarria.** Basque Artificial Intelligence Center-ek (BAIC) bultzatuta, lankidetzaren publiko-privatuko espazio bat sortu da, Euskadin adimen artifizialaren (AA) garapena gidatzea helburu duena, enpresen lehiakortasuna eta euskal gizartearen ongizatea hobetzeko.
10. **Miñaoko zibersegurtasun-zentroa.**
11. **Basque Quantum Ecosystem.** Konputazio kuantikoa garatzea DIPCen lankidetzarekin Donostian, **Euskadin digitalizazioaren eta datuaren inguruko ekosistema sustatzeko** lankidetzaren publiko-privatuko proiektu gisa. Basque Quantumeko Batzorde Estrategikoa. (2023/10/05)
12. **Bikaintek programari** esker, bultzada handia ematen ari zaio euskal enpresa eta zentro teknologikoetan profesional teknologoak sartzeari. Programa horrek **doktore-titulua duten ikertzaileak kontratatzea sustatzen du, doktoretza industrialak egiteko.**
  - 2021eko deialdia (5,67 M €)
  - 2022ko deialdia (5,67 M €)
  - **2023ko deialdia (5,67 M €)**

13. 2022tik 2023ra bitartean, **Ikerbasque** 336 ikertzailetik **345 ikertzailerera igaro da, 35 herrialdetan eta hiru kategoriatan banatuta: ikertzaile finkatuak, ikertzaile gazteak eta Research Associate**. Kategoria horrek aurreko biak osatzen ditu, eta ikerketa-karreraren etapak bete nahi ditu. Horrela, Jaurlaritzak legegintzaldi honetan 400 Ikerbasque ikertzaile izateko duen helburura hurbildu da. Urte hauetan zehar, Ikerbasqueko ikertzaileek, Euskadiko 24 unibertsitatetan eta ikerketa-zentrotan lan egin dutenek, jakintza-arlo guztietako proiektuetan parte hartu dute, eta, horien ondorioz, 10.000 argitalpen baino gehiago egin dira nazioartean prestigioa duten aldizkari zientifikoetan. Komunitate zientifiko horrek euskal sistema zientifikoa indartzen ere lagundu du, eta finantzaketa lehiakorretik datozen 330 milioi euro itzuli dira Euskadira. Era berean, 1.300 pertsonak baino gehiagok lan egiten dute kolektibo hori buru duten taldeetan.
14. **Zeharkako Ekimen Eragileak abiarazteko Batzordeak eratzea (2022/05/05) eta Ikerketa eta Garapenerako Lankidetzako Zeharkako Proiektu Eragileak diseinatzeko programa onartzea.** (118/2022 Dekretua, urriaren 11koa). Hasiera batean, **“Zahartze osasuntsua”, “Mugikortasun elektrikoa” eta “Ekonomia zirkularra” (2022/10/05) eremuetara zuzentzen da.**  
**Ikerketa eta garapenerako zeharkako proiektu traktoreak diseinatzeko laguntza-programa, ZTBP Euskadi 2030 planaren zeharkako ekimen eragileen esparruan.**
- **2023ko deialdia (1,3 milioi euro)**
15. **Euskadik eskualde-berrikuntzari buruzko Europako Batzordearen ekintza pilotu berri batean parte hartuko du.** Lankidetzaren esparru batean garatzen da, non Europar Batasuneko 4 herrialde kide, 7 hiri, 63 eskualde eta 74 lurraldek parte hartzen duten.
16. **Donostian bikaintasuneko oinarritzko ikerketarako 6.000 m-ko eraikin bat eraikitzea bultzatzea.** Eraikina 2024an amaituko da, eta **80 laborategi izango ditu. Guztira, 300 ikertzaile** izango ditu, besteak beste, konputazio kuantikoan, neutronikoan, superkonputazioan, kimika aurreratuan, material berrietan eta polimeroetan. Era berean, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako IKUR ikerketa estrategikoko eremuetan lan egiten duten Euskadiko talde zientifikoak kokatuko dira. (2022/05/19)
17. **Hazitek programa,** azken helburutzat euskal industria indartzea duena, enpresetako I+G jardueraren bidez, Euskal Autonomia Erkidegorako estrategikoak diren espezializazio-eremuetan eta merkatutik hurbilen dauden I+G faseetan ardatzuta.
- 2022ko deialdia (I. eta II. faseak). Esleitutako funtsak: 95 milioi euro.
    - Izaera lehiakorreko proiektuak 45 milioi euro
    - Proiektu estrategikoak: 40 milioi euro.
  - **2023ko deialdia (I. eta II. faseak) 93,4 M €**
18. **Onkomatriyx euskal enpresa biofarmazeutikoak,** Eusko Jaurlaritzaren partaidetza duenak, Estatu Batuetan eta Espainian **tumore metastasikoak dituzten gaixoengan antigorputz baten saiakuntza klinikoak hasteko baimena lortu du.** **Hazitek programaren bidez** finantzatu da proiektu hori. (2022/05/23)
19. **Emaitek Programa: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko Foku Anitzeko Teknologia Zentroen eta IKZen jarduera ez-ekonomikoari laguntzeko plusa.**
- 2021eko deialdia (71 M €)
  - 2022ko deialdia (70 M €)
  - **2023ko deialdia (71 M €)**
20. **Azpitek programa. Euskadin eragina duten 3 trantsizioei heltzeko** azpiegitura zientifiko-teknologiko bikainei laguntzeko programa: **trantsizio teknologiko-digitala, trantsizio energetiko-klimatikoa eta trantsizio sozial eta sanitarioa.**
- 2022ko deialdia (13.83 M €)
  - **2023ko deialdia (6,7 M €)**

21. **«Industria Digitala» laguntza-programa**, Elektronikaren, Informazioaren eta Komunikazioen Teknologia (EIKT) barne-prozesuetan eta bezeroekin, hornitzaileekin eta administrazioekin, industria-enpresekin eta industria-produktuarekin/prozesuarekin lotutako zerbitzuekin harremanetan jartzeko prozesuetan txertatzen laguntzeko, enpresaren lehiakortasuna hobetze aldera.
- 2022ko deialdia (6,1 M €)
  - **2023ko deialdia (6,1 M €)**
22. **Renove 4.0 Programa, makineria eta/edo ekipamendu aurreratua (hardwarea eta softwarea) erosten laguntzekoa**, 4.0 Industriako proiektuak inplementatzeko, Fabrikazio Aurreratuaren esparruan teknologia aplikatze aldera industria-enpresa txiki eta ertainetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko industria-produktuarekin/-prozesuarekin lotutako zerbitzuetan.
- 2021eko deialdia. (5 M €)
  - 2022ko deialdia (8 M €)
  - **2023ko deialdia (8 M €)**
23. **Elkartek programa, arlo estrategikoetan elkarlaneko ikerketa laguntzeko**. Laguntza-tresnetako bat da, eta, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskadi 2030 Planaren esparruan, eremu estrategikoetan elkarlaneko ikerketari laguntzea du helburu, dela funtsezko ikerketan, dela industria-ikerketan. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean (ZTBES) integratutako eragile zientifiko-teknologikoak dira laguntza hauen hartzaileak.
- 2021eko deialdia (40 M €)
  - 2022ko deialdia (44.41 M €)
  - **2023ko deialdia (39 M €)**
  - **2024ko deialdia (44 M €)**
24. **Ezkerraldea-Meatzaldean teknologia-parke berria garatzea**. Energy Intelligence Center (EIC) hartzen duen eraikinaren eta Euskadiko Parke Teknologikoetako Abantoko campus berriaren egoitzaren inaugurazioa. (2023/03/20)
25. **Cyberzaintza eratzea. Zibersegurtasunaren Euskal Agentzia berria** da, eta Euskadin Internet eta teknologia berriak erabiltzearen ondoriozko mehatxuei modu integralean eta zeharkakoan aurre egiteko sortu da. (2023/09/13)

## II. ARDATZA. PERTSONAK. OSASUNA, HEZKUNTZA, ZERBITZU PUBLIKOAK, BERDINTASUNA, GIZARTE- ETA KULTURA-POLITIKAK, BIZIKIDETZA ETA GIZA ESKUBIDEAK

### OSASUNA

1. Euskal osasuna hobetzeko konpromisoaren oinarriak lau ardatzetan egituratzen dira:
  - Lehen mailako arreta indartzea.
  - Osasun-instalazioak eta -ekipamenduak modernizatzea.
  - Ikerketa sanitarioa garatzea.
  - Plantillak berritzea eta finkatzea.
2. **150/2022 Dekretua, abenduaren 7koa, Euskadiko Gobernantza Soziosanitarioarena.** (2022/12/22). Ondoren, **Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluberrieratuzen.** Besteak beste, **Arreta Soziosanitarioko Estrategiaren garapenari buruzko 2022ko memoria** (erreferente soziosanitarioen mapa bat egitea eta baliabide soziosanitarioen mapa eguneratzea aurreikusten du) **eta Euskadiko Arreta Soziosanitariorako Finantza Lankidetzako Esparru Akordioa sinatzea landu dira.** (2023/02/06)
3. **Euskal osasuna lan-erritmo arrunta berreskuratzen ari da, bai lehen mailako arretan, bai sistemaren gainerakoan.** Hobetzen jarraitzeko oinarri sendoak ditugu. Osakidetzak estatuko sare mediko altuenetakoa du biztanleko: 2021ean, medikuntzan jarduteko lizentzia duten medikuak EAEko 100.000 biztanleko: 687. (Eustat. 2023/03/04).  
  
**Biztanleko osasun-aurrekontu publikoan ere buruan dago Euskadi.** Gainera, urte batean (2024an), 2.148 €-tik **2.229 €-ra igaro da biztanleko aurrekontua,** eta Osasun Publikoaren Defentsarako Elkartearen Federazioak Estatuko bigarren sistemarik onena dela aitortu du (Nafarroaren atzetik), beste datu batzuen artean, osasun-gastuari eta emandako zerbitzuen mailari eta kalitateari esker.
4. **Kirurgiako itxarote-zerrendei** dagokienez, 2023ko abenduaren 15ean **2.200 pertsona gutxiago zeuden kirurgiako itxarote-zerrendan, eta batez besteko itxarote-denbora 60 egunera murriztu da, duela 5 hilabete baino 8 egun gutxiago.** 2022ko abuztuan, pandemia amaitu berria zela, batez besteko itxaronaldia 85 egunekoa zen. **Pazienteen % 40ri 30 egun baino lehen egiten zaie ebakuntza, eta beste % 40ri 3 hilabete baino lehen.** Lehendakariak 2023ko iraileko politika orokorraren eztabaidan hartutako konpromisoa bete da (ebakuntza kirurgikoetan, batez beste, 65 egun atzeratzea 2024ko apirilaren 1a baino lehen). Era berean, **osasuna zaintzeko inbertsio errealak hazten ari dira urtez urte, eta 2024ko aurrekontuan 2.229 €-ra iritsi dira pertsonako.**
5. **Pazienteen arreta hobetzeko VOICE proiektua** European garatzen da, **Osakidetzaren koordinaziopean eta Biosistemak Institutuaren** (lehen Kronikgune) **gidaritzapean, eta VBHC Prize 2023ren eragina duten ekimenen zerrendan sartu da. Value Based Healthcare Center Europe nazioarteko erakunde ospetsuak emandako aitortpena.** (2023/04/22)



6. Eusko Legebiltzarrean **Iktusaren eta Gaixotasun Neurodegeneratibo eta Neuromuskularren Planak** aurkeztu dira.
7. **2023-2027ko Euskadiko Zainketa Aringarrien Plan Estrategikoa aurkeztu da. Berritasun** nagusien artean, **nabarmentzekoa da etorkizunean pediatriako zainketa aringarrien erakunde espezifiko bat sortuko dela, paziente helduen arretatik bereizia.** (2023/04/03)
8. **Osakidetzaren Plan Estrategikoa aurkeztu da Eusko Legebiltzarrean.** (2023/04/17)
9. **Pazientearen Segurtasun Estrategia egin da.** (2023/06/14)
10. **Euskadiko Osasun Publikoaren Lege-proiektua** 2022-07-26ko Gobernu Kontseiluan onartu zen. 2023ko azaroaren 30ean, **Euskadiko Osasunari buruzko azaroaren 30eko 13/2023 Legea onartu zen** Legebiltzarrean.
11. **2030erako Euskadiko Osasun Plana onartu da (2023-07-04). Plan horrek datozen urteetan garatuko dituen osasun-politikak zehazten ditu,** Euskadi osasuntsuago baten buru izateko eta herritarren osasuna bermatzeko, inor atzean utzi gabe.
12. **Euskadik eta Portugalak historia kliniko eta errezeta elektronikoa partekatzeko Europako proiektu batean parte hartzen dute. Europar Batasunak Euskadi eta Portugal hautatu zituen programaren erabateko hedapenean jarraitu beharreko erreferente gisa, osasun-langileek Europako pazienteen historia klinikoan sartu ahal izatea eta EBko herritarrek beren medikazioa beste edozein herrialdetako edozein farmazia-bulegotan eskuratu ahal izatea bermatzeko.** Helburua da esperientzia hori ebaluatzea eta Europar Batasuneko herrialde guztietan hedatzea 2025erako. EB osoan farmazia- eta osasun-sorospena hobetzeko proiektu hau gauzatzeko, **euskal errezeta elektronikoa martxan dago Portugalen, Kroazian, Polonian eta Finlandian, baita Estonian ere.** Horrela, **Euskadik erreferente izaten jarraitzen du errezeta elektronikoaren elkarreragingarritasuna Europar Batasunean** hedatzen, eta 2025ean 25 herrialdetara zabaltzea aurreikusi da. (2023/08/03)
13. **Abian jarri da OTI (Osasun Txartel Indibiduala) digitalaren** proiektua, programa pilotu gisa Araban. Osasun Sailak eta Osakidetzak sustatutako osasun-txartela, formatu digitalean, **Euskadiko farmazia guztietan erabilgarri.** (2023/06/16)
14. **Organoak eta ehunak emateari eta transplantatzeari buruzko datuak eman dira.** 2022an, Euskadik 56,1 emaile erregistratu zituen milioi biztanleko, organoak eta ehunak ematearen arloko nazioarteko abangoardian. Era berean, **EAEko 265 herritarrek organoen transplantea egin zuten.** (2023/01/19)
15. **Gobernu Kontseiluak 2023-2028 aldirako Euskadiko Osasun Mentaleko Estrategiaren berri izango du** (2023/11/21). **Helburua da tresna erabilgarri bat ematea herritarren osasun mentala hobetzeko, gaixotasun mentala duten pertsonen arreta integrala sustatzeko, haien familiei laguntzeko eta arreta komunitarioko eredu bat sustatzeko, batik bat, susperraldia eta gizarteratzea errazteari begira.** Lehentasunezko jarduera-eremuen artean, nabarmentzekoak dira elikadura-nahasmenduen arreta, haur eta gazteen osasun mentala eta patologia duala.
16. **Osakidetzaren nazioarteko aintzatespena, osasun mentala hobetzeko Europako ekimen baten buru izango dena. Biosistemak Osasun Sistemen Ikerketa Institutuak (Iehen, Kronikgune) Osasun Saila eta Osakidetza ordezkatzan ditu "Healthier together" (elkarrekin osasungarriagoak) izeneko nazioarteko proiektu honetan.** (2023/05/05)
17. **2023-2027ko Adikzioen VIII. Euskal Plana onartu eta abian jarri da.** (2023/09/05)

## LEHEN MAILAKO ARRETA INDARTZEA

**Herritarrak osasun-sisteman sartzeko atea den neurrian, lehen mailako arreta lehenetsuak bat da Jaurlaritzarako.** Hala dago jasota gaur egun indarrean dagoen Lehen Mailako Arretako Estrategian (Osakidetzako 40 adituk eta profesionalak parte hartuta eguneratuta, horiek baitira lehen mailako arretako sare osoaren erreferenteak).

1. Datozen hiru urteetarako egiturazko **358 plaza sortu dira lehen mailako arretan**. 2023ko aurrekontuan, **919 plaza gehiago sartu ziren Osakidetzaren egiturazko lanpostuetan**. (2023/04/17)
2. **Lehen mailako arretan garatzen ari diren inbertsioak** 21 milioi euro handitu ziren 2022an, ekipamenduak, osasun-zentroetarako irisgarritasuna, aparatu klinikoak eta maleta digital berriak hobetzeko, horrela, etxeko etxeko bisitak erabakigarriagoak izateko. **2023an, 28 M € bideratu dira**.
3. **Fisioterapia lehen mailako sare osora zabalduta da**, horrela, espezialista horiek osasun-zentroetan izan duten defizit historikoa atzean geratu delarik, bai eta lehen mailako arretako farmazialariaren figura ere, familia-medikuei eta aho-hortzetako medikuntzako profesionali lehen mailako arretan laguntzeko. **Halaber, aho-hortzetako arreta kolektibo gehiagotara hedatu da, hala nola, 0-6 urteko adingabeetara**.
4. **Euskal Osasun Sistemak COVID-19aren pandemiaren aurka emandako erantzunari buruz, Euskal Herriko Unibertsitateak** 2020ko urtarriletik 2021eko urtarrilera bitartean **egindako txostenaren arabera, euskal osasun-sistemak pandemiaren ondorioak pairatu zituen, baina inoiz ez zen kolapsatuta egon, eta pandemiaren aurrean erresilientzia handia erakutsi zuen**, presio eta asistentzia-eskari handieneko egoera batean.
5. **Euskadiko Gobernantza Soziosanitarioari buruzko** abenduaren 7ko **150/2022 Dekretua onartu da, arreta soziosanitarioan esku hartzen duten sistemen artean ezartzen den harreman funtzional eta operatiboaren esparru gisa**. Hura onartuta, erakundeen arteko kogobernantza-eredu hori ziurtatzen da, eta arreta koordinatuaren ereduak sendotzen laguntzen da, haren antolamendu-egituraren definizioa eta artikulazioa arautzean.

## INSTALAZIO ETA AZPIEGITURA SANITARIOAK MODERNIZATZEA

1. **Galdakao, Basurtu eta Donostiako ospitaleak handitzeko proiektuak (kanpo-kontsultak) eta protonterapia-erakin berria abian daude**. Erakin hori egiteko proiektua egin da, eta, beraz, obrak 2024ko martxoan has litezke, **40 milioi eurotik** gorako kostuarekin. (2023/08/16). **Tolosaldeko ospitale berria, Zumarraga handitzea eta Arrasateko erakin berria eraikitzea ere proiektu fasean daude**.
2. **Txagorritxuko ZIU eta neonatologia-unitatea eta Arabako ESiko bloke obstetrikoa zerbitzu orokorren erakin berrira lekualdatu dira; erakin berri hori 104 milioi euroko inbertsioarekin eraiki zen**.
3. **Erresonantzia magnetikoko bi ekipo berri instalatu dira Bilboko ESIan, 2,85 M € inguruko inbertsioarekin**.
4. **Ordiziako osasun-zentroa (1,7 milioi euroko inbertsioa) eta Zallako espezialitate-zentroa (13,8 milioi euroko inbertsioa) handitzeko obrak amaitzean daude**.
5. **Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean azken belaunaldiko bi ekipo berri ezarri ziren, irudi bidezko diagnostikoaren gaitasuna hobetzeko, 4,5 milioi eurotik** gorako inbertsioarekin.
6. **Osatekek erresonantzia magnetikoko bi makina berri instalatu ditu Arabako Unibertsitate Ospitalean, urtean 15.000 miaketa inguru egiteko**. Bi ekipo berri horiek **2,9 M €-ko inbertsioa** izan dute, eta zati batean INVEAT Planaren funtsen bidez finantzatu dira (Europar Batasuneko Goi Teknologiko Ekipoetan Inbertitzea).
7. **Azken fasean daude Aretxabaletako osasun-zentro berriaren** obrak, egoitza geriatriko zaharren eraikinean, herritarrei ematen zaien arreta hobetzeko. Lan horrek 3,5 milioi euroko inbertsioa izan du.
8. **2,3 milioi euro inbertitu dira Osakidetzako Santa Marina Ospitaleko 7 gune modernizatzeko**. 2021. eta

2022. urteetan egindako inbertsio horiek Santa Marina Humanizatzeko Planaren barruan sartzen dira. Plan horren helburua da pazienteen eta senideen zaintza eta arreta hobetzen jarraitzea.

9. **Debagoieneko Ospitaleko eraikin zaharra eraisteko lanak amaitu dira.** Martxan dago pabiloi berri bat, eguneko ospitale mediko-kirurgikoa handitzeko, endoskopia-zerbitzua izango duen digestio-unitate berri bat sortzeko, errehabilitazio-zerbitzu berri bat sortzeko eta ospitale barruan erresonantzia magnetikoko gela bat sartzeko. Obraren inbertsioa **25 milioi eurokoa** da.
10. **Basurtuko Unibertsitate Ospitaleak simulagailu espezifiko bat eta azeleragailu lineal berri bat ditu, ordenagailu bidezko tomografia axiala egiteko.** Bi talde horiek azken aurrerapenak dituzte, tratamendu zehatzagoak eta pertsonalizatuagoak egiteko. INVEAT Planak finantzatutako **4,5 milioi euroko inbertsioa** izan du. (2023/02/10)
11. **Osakidetzak azken belaunaldiko 8 OTAekin berritu ditu bere miaketa-ekipoak,** teknologia espektralarekin. Ekipo horiek irudia hobetzen dute detekziorako eta diagnostikorako, eta erradiazioa murrizten dute. Tresna berri horiek Goi Teknologiko Ekipoetan Inbertitzeko Planaren (INVEAT) esparruan instalatu dira, eta **Euskadiko unibertsitate-ospitale guztietan daude operatibo. Eskuratzeko-kostua 7,5 milioi eurokoa izan da.** (2023/02/23)
12. **Ezkerraldea Enkarterri Gurutzeta ESiko Erradiodiagnostiko Zerbitzuak bere ekipamendu teknologikoaren zati bat berritu du: 2 OTA berri, 3 mamografo, teleaginte 1 eta erradiologia digitaleko ekipo 1.** Ekipamendu berriek **4,25 milioi euroko inbertsioa izan dute.** (2023/03/17)
13. **EHUko Medikuntza eta Erizaintza Fakultatearen eraikin berria eraikitzen hasi da** (62,10 milioi euro). (2023/07/31)
14. **Osakidetzak anesthesiaren ondoren sendatzeko unitate berri bat (ABU) estreinatu du Txagorritxuko AUOn, box gehiagorekin eta pazienteen segurtasunean eta erosotasunean hobekuntzak eginez (6 milioi euro).** (2023/10/16)
15. **Donostiako Unibertsitate Ospitaleak hemodinamikako ekipo berriak** ditu jadanik, **1,7 milioi euro** inbertitu dira, eta **jauzi kualitatiboa izango da interbentzio kardiologikoetan.** (2023/04/19)
16. **Osakidetzak 4 milioi euro inguru inbertitu ditu Galdakao-Usansoloko Unibertsitate Ospitaleko esterilizazio-zentral berrian.** (2023/11/06)
17. **Osakidetzak 2 milioi euro inbertitu ditu Bilbo-Basurtu ESiko neonatologia-unitate berrian.** (2023/11/23)
18. **Osakidetzak, guztira, 53,6 milioi euro inbertitu ditu, INVEAT planaren barruan, goi-teknologiako 40 ekipotan.** (2023/12/30)

## IKERKETA SANITARIOA

1. **2022an onartu zen “2022-2025 aldirako Osasun arloko Ikerketa eta Berrikuntzarako Euskal Estrategia”.** Zazpi helburu estrategiko eta **13 jarduera-ildo** ditu, ikerketa hobetzeko eta pazienteekin emaitzetara eramateko egin beharreko bidea adierazten dutenak. **Bikaintasunaren eta berrikuntzaren aldeko apustu horri esker, Euskadik estatu osoko erreferentziatzeko zerbitzu- eta unitate-zentro (CSUR) gisa hautatua izatea du helburu, hamabi patologia konplexu tratatzeko.**
2. **“Farmabide” farmazia-prestaziorako zentro berria abian jarri da,** egoitzetan bizi diren 13.700 pertsona baino gehiagoren farmazia-arreta hobetzeko.

3. **Osakidetzako ikerketa-proiektuetan parte hartzen duten pertsonen % 66 emakumeak dira.** Horiek guztiek **bikintasuneko ikerketa sanitarioa** garatzen dute **Euskadin, Bioaraba, Biobizkaia, Biogipuzkoa eta Biosistemak ikerketa sanitarioko institutuetan.** Gainera, nabarmendu behar da gero eta emakume gehiagok hartzen dutela beren gain proiektu horien lidergoa. Zehazki, ikertzaile nagusien % 56 emakumeak dira, hau da, 453 ikertzailetatik 252 emakumeak dira. (2023/02/10)
4. **Osakidetzak sistema aitzindaria erabiltzen du osasun publikoan, lagundutako ugalketako prozesuetan segurtasuna bermatzeko.** (2023/05/25)
5. Osasun-arloko ikerketa- eta garapen-proiektuetarako laguntza-programa.
  - 2021eko deialdia (5.650.000 €)
  - 2022ko deialdia (6.192.000 €)
  - **2023ko deialdia (6.000.000 €)**

## GIZA BALIABIDEAK

Beste erreferentzia-ardatz bat osasun-langileen baldintzak berritzea eta hobetzea da.

1. **318 milioi euroko ezohiko zuzkidura onartu da, 27.567 osasun-langileren karrera profesionala finantzatzeko.**
2. **2022an, Osakidetzaren plantilla estrukturala handitzea onartu zen,** 2.467 plazarekin, eta Euskal Osasun Zerbitzuaren egitura 30.073 plazatan kokatu zen. Aldi baterako 2.109 plaza dira, egiturazkoak, eta 358 plaza gehiago Osakidetzako Lehen Mailako Arreta indartzen jarraitzeko. Horiei 2023an sortutako ia **1.000 plaza gehitu behar zaizkie.**
3. **2018-2019ko EPE: probak amaituta, plazak esleitzeko prozesua amaituta dago.**
4. Osakidetzaren 2020., 2021. eta 2022. urteetako birjarpeneko **EPEko azterketak amaitu dira.** 2023ko azaroaren 25ean egin ziren, deialdia egin zenean ezarritako aurreikuspena betez. **Guztira, 7.639 plaza dira.**
5. Euskal Osasun Zerbitzuaren **enplegu publikoa egonkortzeko egungo hautaketa-prozesuak egonkortasuna emango die 11.000 profesionali,** Osakidetzako plantillaren heren bati, eta, gainera, bitartekotasun-tasa % 8tik behera murriztu nahi da, Europako legerian jasotako estandarretara iristeko. (2023/11/10)
6. **EAEko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen eta EAEko Hezkuntza Administrazioaren 2023ko Enplegu Publikoaren Eskaintza onartu da.** Plaza guzti horietatik 1.434 plaza Osakidetzari dagozkie. (2023/12/13)

## HEZKUNTZA

Hezkuntzaren arloko jarduketak 7 ataletan bana daitezke:

- Hezkuntza Ituna. Etorkizuneko Hezkuntzaren Euskal Legea
- Curriculuma eta digitalizazioa
- Ekitatea eta inklusioa
- Ongizate emozionala eta hezkidetzak
- Plantillak egonkortzea
- Unibertsitatea + Enpresa
- Lanbide Heziketa

## HEZKUNTZA-ITUNA. EUSKADIKO HEZKUNTZA LEGEA

1. 2022ko apirilaren 7an, **EAJ-PNV, PSE, EH Bildu eta Elkarrekin-Podemos alderdiek etorkizuneko euskal hezkuntza-sistemari buruzko akordioaren oinarriak** ezartzen dituen dokumentua **onartu zuten**, Eusko Legebiltzarrerara bidalitako Lege Proiektuan gauzatu zena.

Itun honen gakoak euskal hezkuntza-sistemaren balioetan, printzipioetan eta helburuetan, hezkuntzarako eta bizikidetzara positiborako eskubidean, lidergo eta gobernantza-eredu berrietan eta ikasle eleaniztunen aldeko apustuan, ikaskuntzan, etengabeko hobekuntzan eta elkarlaneko prestakuntzan ezartzen dira.

Gainera, **hezkuntza-erreformak eskola publikoaren eginkizuna eta hezkuntza-kalitatea indartzen ditu**. Ikastetxe bakoitzak bere hizkuntza-proiektua egiteko aukera izango du. Oinarri horietatik abiatuta, Gobernuak 2023-04-24an lege-proiektua onartu zuen, eta Legebiltzarrerara bidali zuen. Bertan, **Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzari buruzko abenduaren 21eko 17/2023 Legea onartu zen**.

## CURRICULUMA ETA DIGITALIZAZIOA

1. **Hezkuntza-sistemaren eraldaketa eta hobekuntza pedagogikorako kronograma bat ezarri da**. Kronograma honi lotuta, honako hauek azpimarra ditzakegu:

- **2022-2024 aldirako EAEko hezkuntza-sistemaren eraldaketa digitalerako plan estrategikoa**, 2022ko apirilaren 26an onartua. Azken bi ikasturteetan, **Hezkuntza Sailak 100.000 ordenagailu banatu ditu sare publikoan**. Era berean, **itunpeko ikastetxeentzako dirulaguntzen programa bat onartu da, 21 milioi eurokoa**, ikasleentzat ordenagailu eramangarriak erosteko. (2021-2022 ikasturteko deialdia)
- **Digitalizazio Plana, gaur egun martxan dagoena. Unibertsitatez kanpoko euskal hezkuntza-sistemak mentoretzarako digitaletako DigCompEdu Gelan programa**, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxe publikoetarako. Mentore digitalen aldi baterako programa hori **Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren esparruan finantzatutako Euskal Hezkuntza Sistemaren Hezkuntza Digitaleko Planaren esparruan planteatzen da**.
  - 2022-2023 ikasturterako deialdia (7.950.168 €)
- **Lehen ikasgela adimendunak abian jartzea, errealitate birtual eta areagotuarekin, eta 4.0 euskal eskolarako aurrerapen gisa. 5,2 milioi euro** bideratu dira **Lanbide Heziketan 25 ikasgela digital interaktibo sortzeko**. (2023/12/19)
- 2023an, hezkuntza-etapen curriculumak ezartzen duten **dekretuak onartzea**:
  - **75/2023 Dekretua** (Haur Hezkuntza)
  - **76/2023 Dekretua** (Batxilergoa)
  - **77/2023 Dekretua** (Oinarrizko Hezkuntza)
- Hezkuntza-sistemako irakasle guztien prestakuntza digitalizazioan eta curriculumean.

## EKITATEA ETA INKLUSIOA

1. **40 ikastetxe publiko Eusle programa** (euskal hezkuntza-sistemara iritsi berri diren ikasleak hizkuntzan murgiltzeko programa) **ezartzen ari dira**. 2022-23 ikasturtean, 41 ikastetxe publikok parte hartu zuten Eusle programan: 12 ikastetxek, Araban; 8k, Bizkaian; eta 20k, Gipuzkoan. Horietatik, 29 Lehen Hezkuntzakoak dira, 2 IPIkoak eta 9 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoak. (2022/12/29)
2. **Eraldatzen programa ezartzea 66 ikastetxetan** 2022-2023 ikasturtean. Aukeratutako ikastetxe publikoekin lankidetzan garatu beharreko programa-kontratua da, eskola-arrakasta eta bizitzarako gaitasunen garapen-maila handiagoa hobetzea helburu duena, betiere ikasleengan planteamendu inklusibo batetik esku hartuz.

3. **Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzan, ikasle bakoitzeko gastu publikoa 7.329 eurokoa da** (2020-2021 ikasturtea), Estatuko autonomia-erkidego guztietako altuena.
4. **Gaitasun handiko ikasleak detektatzeko eta esku hartzeko protokoloa ezartzea funts publikoekin sostengatutako ikastetxe guztietan.** (2023/01/19)
5. **Ikasleen onarpena arautzen duen araudia aldatu da, kalteberatasun-egoeran dauden ikasleen eskolatzeko inklusioa errazteko beharrezkoak diren neurriak sartzeko.** Neurri horiek partaidetza- eta inklusio-printzipioei jarraitzen diete, eta diskriminaziorik eza eta segregaziorik eza bermatzen dute, bai eta benetako berdintasuna ere ikasle horiek hezkuntza-sisteman sartzean eta irautean. Ikasturte bakoitzean eskolatzeko osagarriko programa EAEko ikastetxe publiko eta itundu guztietan aplikatzeari buruzko jarraibideak onartzen dira. (2023/05/16)
6. Otsailaren 28ko **30/2023 Dekretua onartzen da, zeinaren bidez aldatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitatez kanpoko ikastetxeen sarea antolatzeko eta planifikatzeko irizpideak ezartzen dituen** Dekretua. Plangintza horren emaitzak eskola-mapa osatuko du, euskal hezkuntza-zerbitzu publikoaren eskaintza islatzen duen antolamendu- eta plangintza-tresna gisa.

## ONGIZATE EMOZIONALA ETA HEZKIDETZA

1. **Ikastetxeetan Jokabide Suizida Prebenitzeko, Esku Hartzeko eta Posbentzioa egiteko Estrategia aurkeztea eta zabaltzea.**
2. Ikastetxeetan, **indarkeria matxistaren biktimak diren haur, nerabe eta emakumeei arreta emateko jarraibideak argitaratzea eta zabaltzea.** (2022)
3. Sailak **Bizikidetzari eta ongizate emozionalari buruzko kongresua antolatu du**, Bizikasi ekimenaren barruan. (2022-03-30a)

## PLANTILLAK EGONKORTZEA

1. **Egonkortasun handiagoa giza baliabideetan.** 2022. urtean, Hezkuntzak 6.365 plaza deitu zituen, guztira, egonkortzeko hautaketa-prozesuetan eta ohiko hautaketa-prozesuetan. Horiek guztiak 2023ko birjartze-tasarekin gehituko dira, **deitutako 7.000 plaza** gainditu arte.
2. Egonkortze-oposizioko lehiaketa eta lehiaketa-oposizio arrunta:
  - Bigarren Hezkuntza, Musika eta Arte Eszenikoak, Arte Plastikoak eta Diseinua, Maisu-maistrak (2022/12/28ko EHAA): 2.004 plaza
  - Egonkortzeko salbuespeneko prozesuak (merezimendu-lehiaketa)
  - Hezkuntza Berezia (EHAA, 2022-12-29): 520 plaza
  - Sukaldea eta Garbiketa (EHAA, 2022-12-29): 480 plaza
  - Lanbide Heziketako Sektore Bereziatako Irakasle Espezialisten Kidegoa (2022/12/12ko EHAA): 183 plaza.
  - Bigarren Hezkuntza, HEO, Musika eta Arte Eszenikoak, Arte Plastikoak eta Diseinua, Maisu-maistrak eta LHko irakasle teknikoak (2022-09-30eko EHAA): 3.178 plaza

3. 2023an, **prozesu horien izapidetzeak aurrera egin du**, eta bidean dago euskal enplegu publikoaren eredu berri baterantz. Eredu hori **2024an** amaituko da, **17.000 plaza finkatzeko prozesuarekin**, horietako batzuk hezkuntza-eremukoak. Oro har, 2023ko ariketa honetan enplegu publikoa egonkortzeko 138 hautaketa-prozesuri dagozkien probak amaitu dira, eta faseka hautagaien merezimenduak baloratzen ari dira. Horrela, **Administrazio Orokorren eremuko egiturazko behin-behinekotasuna ez da % 8tik gorakoa izango.** (2023/11/08)
4. EAEko Administrazio Orokorren eta haren erakunde autonomoen eta EAEko Hezkuntza Administrazioaren **2023ko Enplegu Publikoaren Eskaintza** onartzea. Eskaintzak **3.010 plaza ditu**, guztira, eta aurrerapauso handia da gobernua euskal sektore publikoan enplegu publikoa sustatzeko duen helburuaren barruan. Horietatik 886 Hezkuntza Administrazioari dagozkio. (2023/12/13)

## UNIBERTSITATEA + ENPRESA

1. **Unibertsitatea + Enpresa II. Estrategia gauzatzen ari da.** Helburua da unibertsitate-prestakuntza duala sustatzea, eta unibertsitate-prestakuntza duala egiten duten ikasleen kopurua bikoiztea, gaur egungo 4.800 ikasleetatik hurrengo lau urteetan 10.000 izatera pasatuz. Era berean, eskaintza bikoiztu nahi da, unibertsitateko prestakuntza dualeko 80 titulaziotara iritsi arte. (2022/05/04)
2. **Unibertsitatea + LH programa bultzatzen ari da**, igarobideak errazteko, beren ikasketak adar bereko LHko ziklo batekin indartu nahi dituzten unibertsitateko ikasleek, gutxienez, behar diren kredituen % 25 baliozkotu ahal izateko.
3. **Euskal Unibertsitate Publikoak EHU Quantum Center sortu du.** Zentro horrek EHUko 6 fakultate eta eskolotako 83 ikertzaile ditu. Unibertsitateak estatuko fisika kuantikoko lehen masterra jarri zuen abian. EHU Quantum Center teknologia kuantikoko T.NikQ proiektuan parte hartu duten Europako ikastetxeetako bat izan da.
4. **6.000 metro koadroko eraikin berri bat eraikitzeke proiektua abian da, EHUko bikaintasuneko oinarritzko ikerkuntzarako**, Ibaeta-Donostia campusean. Eraikina legegintzaldi honetan amaituko da, eta 80 laborategi izango ditu. Guztira, 300 ikertzailek lan egiten dute funtsezko ikerketa-eremuetan, hala nola, konputazio kuantikoan, neutronikoan, superkonputazioan, kimika aurreratuan, material berrietan eta polimeroetan. Horiek guztiak Jaurilaritzak onartutako IKUR estrategian sartuta daude.
5. **Esparru-hitzarmena, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren eta Hezkuntza Sailaren artean jarduera-protokolo orokor bat ezartzen duena, I+G+B programa bat egiteko, Material Aurreratuen arloko plan osagarriaren esparruan.** Programa horretan parte hartuz, Euskadik 5.559.000 €-ko Europako finantzaketa jasoko du, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan. Euskadik, bestalde, bultzada berri bat emateko, programa finantzatzeko 4.6 M € emateko konpromisoa hartu du. Beraz, **Euskadi garatzen hasi den proiektuaren aurrekontua 10,2 milioi eurokoa da.** (2022/11/09)
6. **IBMk Donostia aukeratu du seigarren ordenagailu kuantikoa instalatzeko.** Zehazki, ikerketa zientifikorako gune batean kokatuko da, Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Ibaetako campusean. Superordenagailu hori, IBM Quantum System One, 2024aren amaieran instalatzea aurreikusi da, eta, horrela, multinazionalak Alemanian, Japonian, Estatu Batuetan, Hego Korean eta Kanadan dituen ordenagailuei gehituko zaie. (2023/03/13)

## LANBIDE HEZIKETA

1. **LHko hamar ikasletik zazpik titulua lortu eta sei hilabetera dute lana.** Laneratzea handiagoa da goi-mailako zikloetako ikasleen artean eta industria-adarretan. Zientziarekin eta teknologiarekin lotutako zikloetan matrikulatzen diren 10 emakumetatik ia 9k enplegua lortzen dute. Errealitate horren gainean, lanbide-heziketa duala, euskal enpresekiko interakzioa eta emakumeen Lanbide Heziketako sarbidea sustatzen ari da, era berean, etorkizuneko Lanbide Heziketa prestatzen ari da.
2. **Lanbide Heziketako Zentroen Munduko Biltzarra egin zen, "Excellence for All" lelopean** (Bikaintasuna guztiontzat), Lanbide Heziketako Ikastetxeen Zentro eta Elkarleen Munduko Federazioak (WFCP) antolatuta. Mundu mailako Lanbide Heziketako sistemetako bat delako aukeratu zen Euskadi kongresu hau garatzeko, eta Europako Batzordeak bikaintasun-plataformen artean hautatu zuen, Europako LHren etorkizuneko eredia eraikitzeke adibide gisa. (2022-06-15a)
3. **Lanbide Heziketako Etorkizuneko Ikaskuntzen Euskal Institutua sortzea**, etengabeko eraldaketan dagoen enpresa- eta gizarte-ingurunearen eskaera berrien arabera, LH etengabe egokitzeko prozesua garatzeko. (62/2022 Dekretua, maiatzaren 17koa)
4. **Etorkizuneko lanbide-heziketa osatzen duten prozesu eta aurrerapen horiek guztiak** 2023-02-23an aurkeztutako **Lanbide Heziketako VI. Euskal Planean jasota daude**. Planak gizarte aldakor baten beharrei aurrea hartu nahi die. Gizarte horrek ikasleen enplegarritasun osoa lortu nahi du, eta 2025-2026 ikasturtean ikasleen % 100 LH dualaren euskal eredian trebatuko da, 25.000 enpresa baino gehiagok parte hartuko dutelarik.
5. **22/2023 Dekretua**, otsailaren 14koa, **Lanbide Heziketako Talentuaren Euskal Institutua (iTlent) sortu** eta haren lanpostuen zerrenda onartzen duena (2023/03/21). Haren helburu nagusia ikerketa aplikatua, garapena eta inplementazioa, eta ikaskuntza-eredu metodologiko aurreratuen transferentzia dira, Lanbide Heziketako ikasleek beren talentua garatu ahal izan dezaten, konpetentzia profesional eta pertsonalen bidez, horrela, eskatutako enplegarritasun-baldintzetara egokitzeko.
6. **2023ko Lanbide Heziketaren Nazioarteko Topaketa, Tabakalera, "Ezinbestekorantz aurrera" izenburupean.** Gizakiak etorkizunean bilakaera teknologikoaren testuinguru horretan izan beharko duen izaerari buruzko hausnarketa planteatu da.

## KULTURA ETA EUSKARA

Hezkuntzarekin hertsiki lotuta dago kultura eta hizkuntza-normalizazioa. Eremu horretan, honako jardura hauek nabarmendu behar dira:

1. 2022ko abenduan, lanean eta elkarrizketetan urtebete baino gehiago eman ondoren, **erakunde arteko akordio bat lortu da** Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien artean, **kultura-sektoreko profesionalentzako berriazko zerga-neurriak ezartzeko, "Artistaren Estatutua" deritzonaren garapenaren esparruan.**
2. 2022an, **13 dirulaguntza deialdiren bidez**, 9 milioi eurotik gora bideratu ziren **kultura-sorkuntza eta -ekoizpena sustatzera. Antzeko kopurua** eskaini zen **2023an**, eta **zinema-aretoak modernizatzeko eta digitalizatzeko** atal bat gorde zen.

Euskadiko zinema-aretoak sustatzeko, modernizatzeko eta digitalizatzeko laguntza-programa.

- **2021-2023 deialdia (1.153.262 €) (2022-03-04)**



3. 2022an **8,3 M € kudeatu ziren Next Generation EU programaren MRR funtsetatik. Funts horiek esparru hauetara bideratu dira, besteak beste: kultura-azeleratzaileei laguntza ematea, kultura-eskaintza zabaltzea eta dibertsifikatzea hirikoak ez diren eremuetan, arte eszenikoak eta musikalak modernizatzea, ondarea zaharberritzea eta balioestea, liburutegiak hornitzea, elizaren ondarea digitalizatzea, dokumentu-funts publikoak digitalizatzea eta ikus-entzunezkoen sektorea digitalizatzea eta modernizatzea.**
4. **XII. Legegintzaldian**, Eusko Jaurlaritzak **kultura-ondare izendatu ditu**, besteak beste, honako elementu hauek:
  - Vasco-Navarro trenbidea Euskal Autonomia Erkidegotik igarotzean
  - Zeberioko (Bizkaia) Urrutza baserria
  - Iruña Oka (Araba) Badaiaiko Santa Katalina multzoa
  - Eibar (Gipuzkoa). Matsaria kaleko 21ean dagoen eraikina (BOJ eraikina).
  - Arrasateko Lezetxiki haitzuloko aztarnategi arkeologikoa
  - Bilboko antzinako saneamendu-sarea (Bilbo/Getxo)
  - «La Naval» industria-gunea (Sestao)
  - Elorduy egoitza (Barrika)
  - ECAYA eskola-koloniak (Ebro Etxea) (Zarautz)
  - Arrizuriaga jauregia (Bergara)
  - La Naval ontziola (Sestao)
  - Marutegiko katilua (Asparrena)
  - Gaztelugatxeko Doniene (Bermeo)
  - Arabako Errioxako ardoaren eta mahastiaren kultura-paisaia
  - Ormaza kontserbak (Bermeo)
  - Bolunburuko Itxiturako herrirka gotortua (Zalla)
5. 2022ko ekainaren 24an, **jendearentzat ireki zen Orkonera-Lutxana Euskadiko Industria Ondare Higarriaren Zentroa. Bepiztu programa. 5,1 M € (2021-2024)**
6. Eusko Jaurlaritzak Euskadiko dokumentu-ondarea zabaltu du, Cristóbal Balenciagaren eta bere taldearen 8.000 marrazki eta dokumentu baino gehiago erosiz. (2023/01/23)
7. **Iruña-Veleia herri-proiektu bihurtu da.** Europako finantziarioa jasotzen duten proiektuetako bat da. (2023/04/20)
8. **2021. eta 2023. urteen artean**, Euskadiko kultura-elementu garrantzitsuak berreskuratzeko eta balioesteko proiektuak garatu dira, **Bepiztu programaren eta lehentasunezko jarduketaren esparruan: Sestaoko Labe Garaiak (2,4 M €); La Güata, Zallan (2,1 M €); Albaola (2 M €); Agustinak, Errenterian (milioi bat euro); eta Audio, Urduña eta Artziniega, Aiaraldean (2 M €).**
9. **Euskal Kultura Ondarearen garrantzia azpimarratu eta hedatzeko laguntza-programa.**
  - 2021-2023 deialdia (2,4 M €)
  - 2022-2024 deialdia (3 M €)
  - **2023-2025 deialdia (3 M €)**
10. **Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legea erregelamendu bidez garatzen ari da**, honako dekretu hauen bidez:
  - 221/2021 Dekretua, urriaren 5ekoa, Euskal Kultura Ondarearen Erakunde arteko Organoaren osaera, antolaketa, funtzionamendua eta eginkizunak arautzen dituen.

- 228/2021 Dekretua, urriaren 26koa, Euskal Kultura Ondarearen Euskal Autonomia Erkidegoko Kontseilua arautzen duena.
  - 6/2022 Dekretua, urtarrilaren 11koa, Euskal Kultura Ondarearen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroari buruzkoa.
  - 19/2023 Dekretua, otsailaren 7koa, Kulturaren Euskal Kontseiluaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzkoa.
  - Honakoa lantzen ari da: Oinarrizko Babesa duten Kultura Ondasunen Erregistroa sortzeko Dekretua.
11. **Etxepare Institutuak** 2022an burutu ahal izan zuen **Saison Quebec – Pays Basque kultura-trukerako programa, Montrealen** (hasiera batean 2020rako programatu zen, baina pandemiak eragotzi zuen), aurrez aurre.
  12. **Etxepare Euskal Institutuak mundu osoko unibertsitateetan sustatzen duen katedren sarean hiru berri sartu dira 2022an, Alan R. King, Frank Bidart eta Elbira Zipitriaren omenez.**
  13. **Gobernu Kontseiluak Kultura 2028 Plan Estrategikoa onartu zuen**, kulturak gizartean garrantzi handiagoa izatea bilatzen duena. (2023/03/14)
  14. **Eusko Jaurlaritzak argi berdea eman dio Vitoria-Gasteizko Principal Antzokia 12 M €-an** berritu eta handitzeko aukera emango duen hitzarmenari. **Eusko Jaurlaritzak % 40 (4,8 M €)** eta Vitoria-Gasteizko Aldundiak eta Udalak % 30 (3,6 M €) finantzatzeko dute, hurrenez hurren. (2023/05/23)

## EUSKARA

1. **“2021-2024 Euskararen Agenda Estrategikoa” gauzatzen ari da. Agenda estrategiko horrek 522 milioi €-ko aurrekontu-zuzkidura aurreikusi du lau urterako.** Hizkuntza-teknologia berrietatik hasi eta autoeskola eta saltokietaraino. Horietan, marka bateratu bat ezarriko da borondatez, bezeroak euskaraz hitz egitera animatzeko, hizkuntza-bizikidetzaz gero eta orekatuagoa izan dadin.
2. 2022an, **ESEP- Euskara Sustatzeko Ekintza Plan berria egiteko prozesua hasi zen, EAE osoan datozen hamar urteetan Euskara normalizatzeko politikak ezarriko dituen.** Datozen hilabeteetan ESEP berria onartzea aurreikusi da.
3. **2022ko abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, 1982ko azaroaren 24an onartutako Euskararen Legearen 40. urteurrena** ospatu zen. Lege hori funtsezkoa eta ezinbestekoa da, eta aukera eman die euskal erakundeei eta, oro har, euskal gizarteari euskara gaur egungo egoerara arte biziberritzeko eta normalizatzeko prozesuari ekiteko.
4. **Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien arteko Erakunde arteko Akordioa berritzea, sektorearekiko akordioa oinarri hartuta, 2022-2024 epe berrian euskarazko hedabideak finantziatzeko. Dirulaguntzak % 5 handitu dira. Eusko Jaurlaritzak 12 M €-tik gorako ekarpena egingo du hiru urtetan.**
5. 2023an, **Euskaraldia gizarte-ekimenaren laugarren edizioa egin da.** Ekimen hori herri-ekimen nagusietako bat da, hizkuntza-ohiturak euskararantz eragitea eta eraldatzea helburu duena, eta Eusko Jaurlaritzak egitasmo horretan lagundu egiten du.
6. **Hiruko Itunak indarrean jarraitzen du, eta garatzen ari da. 2021eko urrian 2025era arte luzatu zen,** eta hizkuntza-politikaren arloan Eusko Jaurlaritzaren, Nafarroako Foru Gobernuaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren arteko lankidetzaren oinarri berriak ezartzen ditu. Lankidetzaz hori 2017an hasi zen.
7. **Euskararen proiektzioa eta hura teknologia berrietara egokitzea sustatzen jarraitzen da, GAITUren** apirilaren 29ko aurkezpenarekin: 2021-2024 aldirako **Euskararen Teknologien Ekintza Plana**, 2021ean onartutako «**Euskararen Ingurune Digitala 2021-2024**» dokumentuan adierazitakoaren ildotik.

8. **EAEko 16 urtetik gorako gazteen % 74,5 euskalduna da**, duela 30 urte baino 49,5 puntu gehiago (VII. Inkesta Soziolinguistikoa). (2023/02/20)
9. **2021-2024 Eremu Sozioekonomikoan Euskara Sustatzeko Plana garatzen ari da**. Besteak beste, jarduera hauek egin dira: **Lanhitz 2022 programaren deialdia**, lantokietan euskararen erabilera sustatzeko; sei finantza-erakunderekin lankidetzeta-hitzarmena sinatzea, beren erakundeetan eta ematen duten zerbitzuan euskara sustatzeko; edo 28 erakunderi Bikain ziurtagiria ematea.
  - 2023ko deialdia (2 M €) (2023/03/21)
10. **Eusko Jaurlaritzak eta Balear Uharteetako, Valentziako, Kataluniako, Nafarroako eta Galiziako gobernuek areagotu egiten dute ikus-entzunezko plataformetako hizkuntza-aniztasunaren aldeko lana**. (2023/03/28)
11. **65/2023 Dekretua**, apirilaren 18koa, zeinaren bidez bigarrenez aldatzen baita **euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dekretua**.
12. **EHUko Hitz Zentroari dirulaguntza eman zaio hizkuntza-teknologiak ikertzeko eta euskarak ingurune digitalean duen presentzia areagotzeko (1.680.000 €)**. (2023/09/25)
13. **Esanguratsua da beren lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta duten Osakidetzako langileen ehunekoari buruzko datua: Azken 20 urteetan, bider zazpi egin du**, 2003ko % 7,6tik 2023ko % 51ra.

## JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA

1. Kirolaren eremuan, **aipamen berezia egin behar zaio 2023ko Frantziako Tourraren igarobideari**; izan ere, 2023ko uztailaren 1ean, 120. urteurrenean, Bilbon hasi zen, eta, gainera, bi etapa egon ziren gure erkidegoan, eta hirugarren etapa bat Zornotzatik hasi eta Iparraldearekin lotu zen.
2. 2022ko abenduan, **Basque Sport ekimena aurkeztu zen, euskal kirol-federazioen nazioartekotzea eta ofizialtasuna bultzatzeko marka gisa**. Urte horretan, beste zazpi kirol-federaziok **ofizialtasuna eskatzeko prozedura hasi zuten beren nazioarteko federazioetan: Igeriketa, Piraguismoa, Squash, Esgrima, Mahai-tenisa, Xakea eta Automobilismoa**.
3. **Dopinaren aurkako Euskal Agentziak** 2022an gainditu zuen **dopinaren aurkako 300 proba egiteko** helburua, eta euskal kirolean dopinik gabeko ingurune bat sortzen lagundu zuen, Estatuan eta Europan erreferentzialtasuna irabaziz.
4. **Basque Team Teknika Hobekuntzarako Zentroa (Padura) hobetzeko eta modernizatzeko obrak egiten ari dira**, Next Generation EU programako SEM funtsetatik datorren inbertsioarekin. **(2.4 M €)**
5. **EAEko jarduera fisikoaren preskripzio-plana abian jartzea**. Euskal gizarte aktiboa lortzeko lankidetzeta-proiektua da, jarduera fisikoa sustatzera eta sedentarismoa murriztera bideratutako ekimenak bateratuko dituen, pertsona ez-aktiboak ez-aktibo izateari uzteko neurriak lehenetsiz. (2023/10/06)

## EITB

1. **2022ko martxoaren 8an, Eusko Jaurlaritzak eta EITBk 2022-2025 aldirako Programa Kontratu berria formalizatu zuten**, EITBren zerbitzu publikoaren izaera bermatzeko.
2. **2022an, Euskal Irrati Telebistak hainbat ekitaldi egin zituen bere sorrera-legearen eta euskal irrati eta telebista publikoen emisioen 40. urteurrena ospatzeko**.

## GIZARTE POLITIKAK ETA ZERBITZU PUBLIKOAK

### PERTSONA BEHARTSUAK

**Bi mugarrrik** aro berri bat markatzen dute Euskadin diru-sarrerera txikiak dituzten pertsonen arretan:

- Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren transferentzia Euskadik bere gain hartzea** 2022ko martxoaren 16an.
- Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legea**, Gobernu Kontseiluak 2022ko maiatzaren 10ean onartutako lege-proiektu gisa izapidetu zena. Lege horrek Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrerera txertatzen du diru-sarrerak bermatzeko euskal ereduari; **sistemaren estaldura zabaltzen du eta bermatutako zenbatekoen nahikotasuna hobetzen du**, bereziki adingabeak dituzten familia-unitateetan. Prestazio ekonomikoen kudeaketa sinplifikatu eta arintzen du; iruzurra kontrolatzeko tresnak eta prozesuak hobetzen ditu; gizarte-zerbitzuek eta enplegu-zerbitzuek koordinatuta lan eginez laneratzeari eraginkortasun handiagoa izatea bilatzen du; administrazioen arteko gobernantza eta koordinazioa hobetzen ditu; eta hirugarren sektorearen parte-hartzea errazten du.
- Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren, Etxebizitzarako Prestazio Osagarriaren**, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren eta Gizarte Segurantzaren kuotetako hobarien kredituak handitzeko akordioa. **(87.338.426,71 €)** (2023/10/31)
- 2021-2024 aldirako Adineko Pertsonentzako Euskal Estrategia aurkeztu da**. Estrategia horrek aurrera egiten du bizitza osoaren formulazio berri baterantz, zahartze aktiboaz harago. (2023/01/20)
- Euskadiko Zahartze Aktiboaren Indizea Europako eta Estatu batez bestekoaren gainetik dago**. 2020ko datuen arabera (2022an argitaratuak), Euskadi zahartze aktiboaren rankingeko hamaikagarren postuan dago, Europar Batasuneko 28 herrialdez osatutako sailkapen batean. Zifretan, EAEk 37.3 euroko balioa du, Europako batez bestekoaren (35.7) eta Espainiako estatuaren (25.7) gainetik. (2023/01/02)
- Euskadik balia biderik gabeko pertsonentzako pisuen eta aterpetxeen sare handiena sendotu du**. Hamarkada batean **2.000 plaza irabazi ditu** "etxerik gabekoentzat" edo genero-indarkeriaren biktimeentzat, eta dagoeneko Estatuan eskuragarri dauden % 16 biltzen du. (2023/09/27)
- 149/2023 Dekretua**, urriaren 10ekoa, **gizarte-bonu termikoaren kudeaketa, ebazpena eta ordainketa arautzen dituena**. Gizarte-bonu termiko hori Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan trantsizio energetikorako eta kontsumitzaileak babesteko presako neurrien urriaren 5eko **15/2018 Errege Lege Dekretuaren bidez sortu zen** (2023/10/10).
- Familia Bitartekaritza Zerbitzuak** 14.411 pertsona artatu zituen 2022an. Datuek erakusten dute zerbitzuaren eskaria etengabe handitu dela; horregatik, 2023an **taldea indartu eta aurrekontua igo egin da, urteko 840.000 €-ra iristen delarik**. (2023/01/20)
- Zeuk Esan zerbitzuko 2022ko jardueraren memoriaren datuak eskaintzen dira**. Zerbitzu horrek haur eta nerabe adingabeei laguntza eta babesa ematen die. 2022an 1.058 hartu-eman jaso ziren, eta horietatik 22 dei nerabezaroko genero-indarkeriako kasuekin lotuta zeuden. (2023/03/30)
- Aholku Sareak, Atzeritartasun arloko Arreta Juridikoaren Euskal Sareak**, bost bulego berri ditu, Euskadiko hiru lurraldeetan dauden 19 bulego gehitu behar zaizkienak. (2022-01-28). 2023an, Aholku Sarearen lau bulego gehiago ireki ziren, migratzaileei aholkularitza juridikoa emateko. Horrela, Atzeritartasunaren arloko Arreta Juridikoaren Euskal Sareak **28 informazio-puntu izango ditu Euskadin**. (2023/01/18)
- Genero-indarkeriaren Aurkako Babes Integraleko Neurriei** buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusitako genero-indarkeriaren biktime diren emakumeentzako laguntza ekonomikorako aurrekontua etengabe handitzea (ordainketa bakarrek laguntza).
  - 2021eko deialdia (1,3 M €)
  - 2022ko deialdia (1,6 M €)
  - **2023ko deialdia (2.44 M €)** (2023/02/16)

12. **Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoa (2023-2026) onartu da.** Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren helburuak betetzeko beharrezkoak diren prestazioak, zerbitzuak, programak eta jardunak planifikatzea da helburua. Baliabideak eta zerbitzuak joera demografikoetara egokitzeko beharra azpimarratu da, bereziki, euskal gizartearen zahartzeari eta "baby boomaren" sorrerak datorren hamarkadan izango duen eraginari dagokienez. Plana bost helburu estrategikotan oinarritzen da: autonomia sustatzea, integrazioa sustatzea, zainketetan oreka bilatzea, zerbitzuen artikulazioa hobetzea eta genero-ikuspegia eta ikuspegi intersektionala hartzea. (2023/10/03)

## JUSTIZIA

1. **Gazte Justiziaren V. Plana (2020-2024) gauzatzen ari da.** Estrategia horren garapenari esker, gazteen berrerortzea % 13,1era murriztu da, eta **Gobernu Programan legegintzaldi osorako proposatutako helburua lortu da**, hau da, gazteen berrerortze-tasa % 18ra murriztea.
2. **Abian dira 2022-2028 Justiziako Plan Estrategikoa eta 2022-2025 Euskadiko Justizia Errestauratiboaren Estrategia.** 2021ean 500 kasu penal baino gehiago itxi ziren, justizia errestauratiboari esker.  
Eusko Jaurlaritzak **MASC** (Gatazkak Konpontzeko Baliabide Egokiak) **programa pilotua bultzatzen du** Abokatuen hiru Elkargorekin batera, bitartekaritza eta lankidetzaren zuzenbidea sustatzeko eta prozesu judizialak saihesteko.
3. 2023an, **justizia digitalizatzeko bidean ere aurrera egin da, abian den Justizia Digitalaren Plana gauzatu baita.** Planak bederatzi lan-ildo eta 35 jarduera-proiektu zehatz ditu, eta bere helburua epaimahaietako administrazio-kudeaketa eraldatzea eta hobetzea eta herritarrentzako kudeaketak arintzea da. Gainera, arreta berezia jarri behar zaio eten digitala ezabatzeari.
4. Otsailean, **Bilboko "Mapfre eraikina" erosi zen ekipamendu judiziala handitzeko. Guztira, 41 milioi €-ko inbertsioa egin zen.** 32 hilabeteko exekuzio-epaia aurreikusita duten obrak egikaritzen ari dira, eta 19.000 metro koadro baino gehiago izango dira, gizarte-arloko, merkataritza-arloko eta administrazioarekiko auzien arloko epaitegiak birkokatzeak. (2023/02/21)
5. **Avantius prozesu-kudeatzailea Euskadiko organo judizial eta fiskal guztietara hedatzen amaitu da.** Horrela, espediente judizial elektronikoaren ezarpena osatzen da. (2023/03/17)
6. Justizia Administrazioko langileen baldintzak hobetzeko, azaroaren 7ko **167/2023 Dekretua onartu da, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioko funtzionarioak Euskal Administrazio Orokorreko funtzionarioekin nola parekatu arautzeko eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren eta sindikatuen artean Bulego Judizial eta Fiskala ezartzeko IV. Akordioa onartzen duen Dekretua aldatzen duena.** (2023/11/21)
7. Emakumeen aurkako **indarkeriaren arloko epaitegiak eta hiru lurraldeetako epaitegi mistoak modernizatzeko eta egokitzeko 1,3 M €-tik gorako inbertsioa.** Aurreko legegintzaldian Gasteizko Epaitegian izandako esperientzia pilotuaren ondoren, 2020an Donostia, Durango, Gernika, Irun eta Tolosako epaitegietan egin ziren lanak; 2021ean, Amurrio, Balmaseda, Barakaldo, Getxo, Bergara eta Eibarren egin ziren erreformak. 2023ko azaroan amaitu dira erreformak Bilboko bi epaitegietan. Azken kasu horretan, inbertsio osoa 642.617,74 €-koa izan da. Bi epaitegiek 191,89 m<sup>2</sup> gehiago dituzte.
8. 2022-2030 **aldirako Egoitza Judizial Jasangarrien Plana gauzatzen ari da.**

## ESPETXE-POLITIKA

1. Aukerak – Gizarteratzearen Euskal Agentzia sortzeko irailaren 30eko 3/2021 Legea onartu ondoren, **2022ko urtarrilean AUKERAK – Presoak Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskal Agentziaren estatutuak onartu ziren. Aukerak agentziaren helburua da euskal presoen % 40 birlaneratzea.** Helburu horrekin, transferentzia bere gain hartuta, eskumena kudeatzeko Justiziaren eremua egokitu da, era berean, kudeaketa hori aurrera eraman ahal izateko araubideak eta egiturak onartu dira.
2. Orain arte, **774 hasierako sailkapen edo hirugarren graduko preso-progresio egin dira**, 2021eko urriaren 1ean Euskadik espetxeen eskumena bere gain hartu zuenetik. (2023/06/17)
3. **Euskal espetxeen mende dauden eta askatasunaz gabetuta dauden pertsonen gizarteratzeko** eta gizarte-arreta emateko proiektu komunitarioetarako dirulaguntzen programa, eta zigorrak betearazten laguntzeko proiektuak eta espetxeratzearen ordezkotzat neurriak.
  - **2022ko deialdia (6,2 M €)**
  - **2024ko deialdia (5 M €)**
4. **Askatasuna kendu dieten eta gaixotasun larriak eta sendaezinak dituzten pertsonentzako lehen egoitza-zentroa abian jarri da.** Eusten proiektua hirugarren gradura igaro behar duten eta beren mendetasuna zaintzeko familiaren edo gizartearen babesik ez duten pertsonen zuzenduta dago. Trantsizio-baliabide bat da, foru-aldundiek eta Jaurlearitzak kudeatutako zerbitzu soziosanitario komunitarioak indartzen dituena. (2023/08/11)

## SEGURTASUNA

- 1 **Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Kidegoetako Oinarrizko Eskalako Agente kategorian** (Ertzaintza eta Udaltzaingoa) **eta Udaltzaingo Zerbitzuetan txanda ireki bidez sartzeko 2021eko hautaketa-prozeduraren deialdi bateratua amaitu da. Guztira 494 plaza daude**, eta horietatik 424 Ertzaintzarenak dira. Hirugarren baterako sustapena. (2023/11/10)
2. **Ertzaintzaren 40. urteurrena.** Urteurren hau baliagarria izan da, halaber, Ertzaintzaren eta Udaltzaingorenen arteko deialdian emakumeen parte-hartzea sustatzeko.
3. **Ertzaintza delitu eta delinkuentzia mota berrietara egokitzeko eta berritzeko prozesuak aurrera jarraitzen du.** Zibersegurtasunaren eta eraso zibernetikoen aurkako azpiegitura kritikoen segurtasunaren eremu osoa sartu da. Gainera, helikoptero berri bat gehituko da Ertzaintzaren flota modernizatzeko.
4. **Eudelekin batera, gizartea sentsibilizatzeko kanpaina bat jarri da abian, Euskadin gertatzen diren gorroto-delituak salatzeko.** Era berean, **“Euskadiko Gorroto Istiluen Txostena 2021” aurkeztu zen Legebiltzarrean.** Txosten horretan, berritasun gisa, Euskadin bikotekideek edo bikotekide ohiek erail dituzten emakumeen 25 epai aztertu ziren. Euskadiko 2022ko gorroto-istiluen txostenean, Ertzaintzak 2022an erregistratutako 438 gorroto-istilu aztertu ditu. Horietako gehienak, 435 ( % 99,3), gorroto-delituak dira, eta 3 ( % 0,68) gorroto-arau-hauste administratiboak. (2023/04/17)
5. 2022ko uztailen **salaketa elektronikoa** abian jarri zen. Hala, **Ertzaintza aukera hori zuen estatuko lehen polizia bihurtu zen.** Euskadi.eus webgunearen bidez, salaketa bat jar daiteke Ertzaintzan, dagokion ertzainetxera joan beharrik gabe. Bide horretatik salaketa jartzea delitu-tipologia jakin batzuetara eta beste inguruabar batzuetara mugatuta badago ere, horrek **aurrerapena dakar salaketa-prozesuaren erosotasunari eta arintasunari dagokienez.** (2023/09/14)  
**Atzerrira bakarrik edo guraso-ahala ez duten helduekin bidaiatzen duten adingabeentzako baimen ofizialen izapidetze elektronikoa** ezarri da. (2023/01/04)

6. **“Arrisku-jokoa goiz detektatzeko eta prebenitzeko gida” argitaratu** da nerabeen eta gazteen artean. Gida honek jarraibideak eta tresnak eskaintzen ditu, hezkuntza-komunitateak, eragile sozial, sanitario eta soziosanitarioek eta familiek informazioa jaso dezaten, eta gazteen artean joko patologikoa detektatu eta prebenitu dezaten.
7. **Eusko Jaurlaritzak bat egin du Bide Segurtasunaren aldeko Euskal Itunarekin**, hau da, zirkulazio-istripuek eragindako heriotza eta lesio larriak gabeko gizarte baterantz aurrera egiteko 17 konpromiso hartu zituzten lehenengo 14 erakunde, elkarte eta instituzioen arteko konpromiso etikoarekin. Ekimen aitzindaria da, eta **Euskadi erreferente bihurtu du European bide-segurtasunari eta trafikoaren kudeaketari dagokienez. 65 urtetik gorakoentzako bide-segurtasunaren arloko sentsibilizazio-programa berri bat aurkeztu da.** Helburua da kolektibo horri prebentzioko eta autobabeseko tresnak ematea bide-arriskuen aurrean. (2023/10/18)
8. **“Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako Agente kategorian sartzeko Emakumeen Sustapenerako I. Plana, 2026”.** Euskal Poliziaren hirugarren promozio bateratuan, % 30 inguru emakumeak dira. % 31,2 Ertzaintzan (377tik 118 emakume) eta % 23,5 Euskadiko udaltzaingoetan (123tik 29 emakume). Horrela, bertan abian jarritako desberdintasunaren neurri zuzentzaileak ematen dituzten emaitza positiboak egiaztatu dira, modu eraginkorrean. (2023/11/13)
9. 2022ko abenduan, Gobernu Kontseiluak **Datu Pertsonalak Babesteko eta Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren Lege Proiektua onartu zuen.** Eusko Legebiltzarrak **Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari buruzko abenduaren 21eko 16/2023 Legea onartu zuen.**
10. **Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Administrazioiko zerbitzu laguntzaileetako enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuak ezarri dira.** Guztira **315 plazarako** deialdia egin zen.
11. **Genero-indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren kasuetarako Ertzaintzaren plantilla % 41 indartu da.** Horrela, bada, gaur egun 70 plazako lanpostu-zerrenda batetik 100 plazara igoko da, arlo horretan diharduen agente bakoitzak bere lan-karga, batez beste, % 29,33 murriztu ahal izan dezan. Agente bakoitzeko 75,6 kasutatik 53,7 espedientera igaro da. (2023/06/28)
12. **Zibersegurtasunaren Euskal Agentzia sortzeko ekainaren 29ko 7/2023 Legea onartu da.** Agentzia horrek herritarren, enpresen eta euskal sektore publikoaren ziberkrimenaren eta zibererasoen aurkako borroka zaindu eta koordinatuko du. Cyberzaintza Zibersegurtasuneko Euskal Agentzia sortu zen, Euskadin Internet eta teknologia berriak erabiltzeak eragindako mehatxuei modu integralean eta zeharkakoan aurre egiteko. (2023/09/13)
13. **Suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuei buruzko azaroaren 23ko 12/2023 Legea onartu da.**

## MEMORIA ETA GIZA ESKUBIDEAK

1. **Gogora Institutuan Begiradak dokumentua aurkeztu da:** Euskadin memoriaren eraikuntza sozialerako oinarri partekatuak. Dokumentua idatzi duen lantaldeak azpimarratzen du giza eskubideen urraketa oro bidegabea izan dela, dela eta izango dela; gatazka politikoei eta Estatuaren arrazoiei ez dute inolara ere justifikatzen indarkeria erabiltzea.
2. **Giza eskubideen urraketen biktimen oroimenean, justizian eta erreparazioan sakontzeko ekitaldiak eta txostenak:** gerra zibilean eta gerraostean indarkeria eta jazarpena pairatu zuten oroimenezko ekitaldia. Euskadin ETAREN indarkeria jasan zuten Estatuako segurtasun-indar eta -kidegoetako pertsonen buruzko txostena. Indarkeria poliziala jasan zuten pertsonak. Martxoaren 3ko biktimak...

3. **Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako pertsonen eta haien familiek ETaren terrorismoagatik jasandako bidegabekeriari buruzko txostena aurkeztea.**
4. **Baimena eman zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari Martxoak 3 Memoriagunea Fundazioaren eraketan parte hartzeko, haren estatutuak onartzeko eta patronoa izendatzeko. (2023/02/28)**
5. Eusko Legebiltzarrean Euskadiko **Memoria Historiko eta Demokratikoari buruzko irailaren 28ko 9/2023 Legea onartu da.**

## MIGRAZIOA. UKRAINATIK DATOZEN ERREFUXIATUAK

1. **Herritarren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. Plana (2022-2025) onartu da,** aniztasuna kudeatzeko euskal eredu bat eraikitzeko oinarriak ezartzen dituena.
2. **Ukrainatik datozen errefuxiatuak hartzea.** 2022ko lehen hiruhilekoan, **Ukrainako errefuxiatuen harrera-mahaia bildu zen, lehendakaria buru zela,** eta harrerarako lehen kontingentzia-plana ezagutarazi zen. **Kontingentzia-plan hori,** ondoren, **bi plan gehigarritan zabaldu zen,** gertakarien bilakaera kontuan hartuta. Horregatik, Eusko Legebiltzarrak Ukrainako gerrari buruzko osoko bilkura monografiko bat egin zuen apirilean, eta **44 ebazpen onartu ziren.** Ebazpen horien ganean, Gobernu Kontseiluak **erreskate ekonomikorako funts bat eta erreskate sozialerako funts bat onartu zituen apirilaren 12an, ISURI funtsa, 15 M €-ko zuzkidurarekin,** kontingentzia-planei eta errefuxiatuei laguntzeko planei estaldura emateko.  
  
ISURI funtsa amaitu ondoren, **Eusko Jaurlaritzak Ukrainatik datozen errefuxiatuei laguntza ematen jarraitzen du,** Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeekin lankidetzan estuan edo, besteak beste, **Gizarte Larrialdietarako Laguntzen (GLL) bidez.**
3. **Iragaitzazko Migratzaileei Premiazko Arreta Emateko Erakundearteko Koordinazio Mahaia Iparaldeko Erkidegoaren ordezkariak iraunkorra gehitu du.**
4. **67/2023 Dekretua,** maiatzaren 9koa, **Migrazioaren eta Asiloaren Euskal Foroa sortzen duena, Euskadiko egungo errealitate soziopolitikoari buruzko hausnarketan, elkarrizketan eta kontsultan erreferente izan nahi duena.** Organo berriak pertsona guztien berdintasuna aitortzean eta eskubide eta betebeharretan oinarritzen du bere identitatea. Horrela, duela 20 urte (2023/05/09) jaiotako Herritar Etorकिन Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroa ordezkariak duen kontsulta-organo berri hau sortu da.
5. **“Euskadin tokiko harrera-politikak diseinatzeko orientabideak” izeneko dokumentua aurkeztea.** Dokumentu hori Migrazioaren eta Asiloaren Euskal Foroaren Harrera Batzordean garatu da. Batzorde hori hirugarren sektoreko erakundeek, atzerriar jatorriko pertsonen elkarteek eta euskal administrazioetako ordezkariak osatzen dute. (2023/10/04)
6. **Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeei, tokiko organismo autonomoei eta tokiko merkataritza-sozietateei dirulaguntzak emateko programa,** immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko eta immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren arloan jarduerak garatzeko.
  - 2021eko deialdia (880.000 €)
  - 2022ko deialdia (880.000 €)
  - **2023ko deialdia (850.000 €) (2023-06-19)**



## GARAPENERAKO LANKIDETZA

1. Garapenerako lankidetzaproiektuetarako laguntza-programa. Pobreziaren aurkako borrokan modu esanguratsuan laguntzen duen tresna da, Hegoaldeko herrialde pobretuetako prozesu endogenoak eta gaitasunak indartuz, eta tokikoari lehentasuna emanez estatukoarekiko eta nazioartekoarekiko duten loturan, betiere irabazi-asmorik gabeko erakundeen bitartez.
  - **2022ko deialdia (32 M €)**
  - **2023ko deialdia (34 M €)**
2. **Lankidetzaren eta Elkartasunaren Euskal Legearen proiektua onartu da.** Horren helburua da garapenerako lankidetzara bideratutako politika publikoen koherentzia aurrera egitea eta aurrekontuaren % 0,7 lankidetzara bideratzeko konpromisoan aurrera egiten jarraitzea. (2023/07/26). Legebiltzarrean izapidetzen ari da, aurrerago onartzeko.

## BERDINTASUNA

1. **Euskadik aurrera egiten jarraitzen du soldata-arrailearen murrizketan,** INEren azken txostenaren arabera eta orduko irabazia aztertuta, Europar Batasunak egiten duen bezala, **soldata-arrakalak 7 puntu egin du behera Euskadin 2016. urtearekin alderatuta,** eta % 14,3tik % 7,3ra jaitsi da 2021ean, azken datu hori da Europarekin alderatzeko eskuragarri dagoen azkena.
2. **2022an, ehun euskal erakundek sinatu zuten berdintasunaren aldeko herri-ituna.** Dokumentua "NBE Emakumeen Generation Equality" ekimenaren barruan dago, eta gizarte osoari dagozkion hamar konpromiso zehatz ditu. Berdintasunaren aldeko Euskadiren esperientzia urte horretako martxoan aurkeztu zen Nazio Batuetan, "Generation Equality" ekimenaren barruan. Genero Berdintasunerako Europako Institutuaren metodologia aplikatuz, Euskadi genero-berdintasunaren indize handiena duten Europako 8 herrialdeen artean kokatu da.
3. **Biktima diren emakumeei harrera hobea egiteko Erakundearteko Akordioaren Jarraipen Batzordearen esparruan, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei arreta hobea emateko III. Akordioa onartu da.** Akordio hori 2001ean sinatu zen hasiera batean, eta 2009an eguneratu zen. Helburua da tratatu txarren eta sexu-erasoen biktimei arreta ematen dieten erakundeak koordinatzea, osasun-, polizia-, epailletza- eta gizarte-babes osoa bermatzeko. Jaurilaritzak emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimentzako arreta koordinatzeko Erakundearteko III. Akordioaren berri eman du. Akordio hori 2022ko abenduaren 20an adostu zuten erakundeek. (2023/01/10)
4. **1/2023 Legegintzako Dekretua,** martxoaren 18koa, **emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena.**

## HAURRAK ETA NERABEAK

1. 2022ko apirilean, **Haur eta Nerabeen aurkako Indarkeriaren aurkako 2022-2025 Euskal Estrategia onartu zen.** Euskadi gizarte-gaitz horri aurre egiteko estrategia integrala izan zuen Estatuko lehen erkidegoa izan zen.
2. **Seme-alabak dituzten familien onurarako jarduketa-programa** (30/2015 Dekretua, martxoaren 17koa).
  - 2021. urtea (26.935.600 €)
  - 2022. urtea (25.036.200 €)
  - **2023. urtea (11.806.400 €)**

3. **Lana eta familia bateragarri egiteko laguntza-programa.** Hiru laguntza mota: a) seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileentzako laguntzak; b) mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileentzako laguntzak; eta c) 3 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeagatik laguntzak.
  - 2021eko deialdia (37.016.082 €)
  - 2022ko deialdia (34.678.250 €)
  - **2023ko deialdia (30.350.000 €)**
4. **Seme-alabak dituzten familientzako laguntzei buruzko otsailaren 21eko 27/2023 Dekretua onartzen da. Laguntza horiek kenkari fiskalei eta jada bultzatutako beste neurri batzuei gehitu ahal izango zaizkie, hala nola, haurreskolak doan izatea edo kontziliaziorako laguntzak.**

Dekretu hori onartuta, seme-alabak dituzten familientzako laguntzak birbanatu egiten dira, eta programa berri horren bidez antolatzen da, martxoaren 17ko 30/2015 Dekretuak araututako laguntza-programaren ordean.

- 91.270.000 €-ko hasierako zenbatekoa eta 11.923.900 €-ko igoera; guztira, 103.193.900 €.
5. **Haur eta Nerabeen Lege Proiektua onartzea. Proiektu horrek aitortzen du adingabeen interes gorena eskubideen titular gisa gailentzen dela, eta ez babes-subjektu gisa, eta nazioarteko, Europako eta Estatuko tratatuen xedapenak jasotzen ditu haurren eta nerabeen eskubideen gainetik.**

Era berean, dokumentuaren helburua da nortasunaren garapen askea bermatzea eta urratutako eskubideak berreskuratzea eta itzultzea. (2023/06/27). Legebiltzarrean izapidetzen: 2024ko otsailean lege gisa onartzea aurreikusi da.
6. **25 enpresa berri atxiki zaizkio Kontzilia Erkidegoari,** eta horrek esan nahi du kontziliazio-plan propioa dutela edo bi urteko epean ezartzeko konpromisoa hartzen dutela. (2023/03/23)
7. **Osakidetza proiektu pilotu bat egin du bi ikastetxetako ikasleekin hezkuntza afektibo-sexualean, eta 160 ikasle baino gehiago prestatu ditu.** 2024rako beste deialdi bat dago programatuta, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleentzat, Barakaldoko eta Sestaoko 14 ikastetxetan. Guztira, 700 ikasle izango dira. (2023/11/24)

## GAZTERIA

1. **Gazteriaren EAEko 2/2022 Legea 2022/03/10ean onartu zen, gobernuko alderdien eta Elkarrekin-Podemos legebiltzar-taldearen babes parlamentarioarekin.** Legeak gazteen emantzipazioaren, kalitatezko enpleguaren eta etxebizitza duina lortzeko aukeraren alde egiten du, bizi-proiektu independentea eratzeko funtsezko elementu gisa.
2. **Gazteen Emantzipazioa bultzatzeko 2030 Euskal Estrategia onartu da (2023/03/21).** Estrategiaren helburua da 2030erako gazteen emantzipazio-tasa % 50era hurbiltzen laguntzea. Emantzipatzeko batez besteko adinari dagokionez, helburua 28 urtetik behera kokatzea da. Hamar proiektu traktore eta 26 ekimen osagarri biltzen ditu, bost eremutan egituratuta: enplegua, etxebizitza, errenta, kohesioa eta erresilientzia. Berrikuntzen artean, 25 eta 29 urte bitarteko gazteak emantzipatzen laguntzeko dirulaguntza bat jaso du.
 

**Eusko Jaurlearitzak bere lehentasunen erdigunean jarri du gazteen emantzipazio-adina aurreratzea,** 2030ean EB-27ko batez bestekoaren mailan kokatzeko (% 50,6) (2023-08-12)
3. **191/2023 Dekretua,** abenduaren 26koa, **Gazteen Emantzipaziorako Programa arautzen duena.** Bi urtez hilean 300 euroko zuzeneko dirulaguntza aurreikusten du 25-29 urteko gazteentzat, emantzipazio-prozesu bat hasi dutenentzat edo hasiko dutenentzat.
  - **2024ko deialdia (53 M €)**
4. **Lanbideren urteko txostena.** Unibertsitateko ikasleen % 86k bere gaitasunera egokitutako enplegu bat du hiru urteko epean. (2023/07/20)
5. **V. Gazte Plana abian jartzea.** (2023/10/17)

## ADINEKOAK

1. 2021ean aurkeztutako **Eusko Jaurlaritzaren zainketen arloko trantsizio-politika 2022an ezarri da.**
2. **Hitzarmena Gipuzkoako ForuAldundiarekin, zahartzeari eta mendekotasunari buruzko erreferentziarako Adinberri zentroa Pasaian sustatzeko.** Zentro horrek Zilarrezko Ekonomia izenekoari lotutako lanpostuak sortuko ditu. Zentroak adinekoen egoitza berritzaile bat, eguneko zentro bat, tutoretzapeko apartamentuak eta zahartzeari lotutako I+G unitate bat izango ditu bere instalazioen artean. Hitzarmena 2020-2024ko Euskadiko Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko Berpiztu Programaren barruan sartzen da. Sinatutako akordioaren bidez, **Eusko Jaurlaritzak 2.950.325 € bideratuko ditu Oarsoaldean eskualdean zahartzearen arloan sortzen ari den ekosistema indartzeko.** Proiektuarekin jarraituz, Pasaia Herreran eraikin berri bat eraikitzen hasi ziren, hari lotutako zerbitzu-enpresak hartzeko. (2023/03/28)
3. 2022an, **ZAINTEL eta Etxean Zaind zerbitzu berriak aurkeztu ziren. Familia zaintzaileei laguntzeko estrategia soziosanitarioaren esparruan,** mendeko pertsonak ardurapean dituzten familiei lagundu nahi zaie.
4. **2021-2024 aldirako Adineko Pertsonentzako Euskal Estrategia aurkeztu da.** Estrategia horrek aurrera egiten du bizitza osoaren formulazio berri baterantz, zahartze aktiboaz harago. (2023/01/20)
5. **Silver Economy izeneko nazioarteko lehen foroa egin da Euskadin,** Adinberri Fundazioak antolatua. Adineko pertsonentzako berrikuntza eta gizarte-jasangarritasuna sustatzea du helburu. (2023/11/08)
6. **Helduak Zabaltzen programaren pilotajeak Erandion izan duen arrakastaren ondoren, landa-inguruneetara zabaltzeko programa,** eta aurreko esperientzia pilotuak hasiko dira Kanpezun (Araba) eta Arratzun (Bizkaia), proiektua hainbat testuingurutan errepikatuz eta egokituz. (2023/11/27)

## ETXEBIZITZA ETA GARRAIOAK

1. **80/2022 Dekretua,** ekainaren 28koa, **Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokien gutxieneko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituena.** Era bateratuan jasotzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzek eta zuzkidura-bizitokiak bete behar dituzten gutxieneko eraikuntza- eta bizigarritasun-baldintzak, bai eta erabilera nagusia bizitegirakoa dutenen eta horiek hartzen dituzten eraikinen betekizunak ere. Horien helburu nagusia da Euskadiko etxebizitzaren estandarrak hobetzea eta handitzea. Berritasun nagusi gisa, aipatzekoa da 10 metro koadro arteko terrazak ez direla azalera erabilgarritzat hartuko, eta sukaldeak handitu egingo direla, gizonak eta emakumeak etxeko lanetan parte har dezaten sustatzeko.
2. **Euskadik Next Funtseko etxebizitzaren eta eraikinen energia-birgaitzaren helburuak betetzen ditu, eta 130 M €** inguru konprometitu dira 15.600 etxebizitzatik gorako jarduketak laguntzeko. Gobernu zentralak Europako funtsak liberatzeko ezarritako helburuak lortu dituen lehen autonomia-erkidegoa izan da. (2023/06/19)
3. **Gaztelagun programako etxebizitzak alokatzeko laguntzak.** Handitu egin da bai laguntza jaso dezaketen pertsonen kopurua, bai zenbatekoak jasotzeko denbora, hiru urteko gehieneko aldia kendu eta 36 urtera arte luzatu baita.
  - 2022ko deialdia (7,6 M €)
  - **2023ko deialdia (6,9 M €)**
4. **Errentamendu babestua sustatzeko programa.** Sustapen berriko eragiketarik edo lehendik dauden etxebizitzak aldeztu aurretik erosi ondoren birgaitzeko eragiketarik bultzatzea; sustatzaile publiko eta pribatuen alokairu sozial eta eskuragarriko etxebizitzak sustatzea; **zuzkidura-bizitokiak (ZB), gizarte-ekimenak edo cohousinga eta lankidetzaren etxebizitzak;** Alokairu programa (lankidetzaren publiko-pribaturako mekanismo berria, zeinaren bidez epe luzera eraikin pribatuak lagatzen baitzaizkio Jaurlaritzari inbertitzaile instituzionalei aseguratutako errenten truke); eta jenderik gabeko eremuetako alokairu-jarduketak sustatzea.
  - **2023ko deialdia (20.700.000 €)**

5. **Urtero-urtero 9.200 gaztek baino gehiagok jasotzen dituzte Eusko Jaurlaritzaren laguntzak alokairua ordaintzeko.** (2023/01/10)
6. **Agindua, 2022ko urriaren 14koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, alokairu eskuragarriari buruzkoa.** Horren helburua da alokairu eskuragarriaren espezialitatea sortzea araubide orokorreko babes sozialeko etxebizitzan eta araubide autonomikoko etxebizitza tasatuen errentamendu-araubidearen barruan, eta horiek sustapena bultzatzea, betiere alokairua eta etxebizitzan eta bizitegi-erakinen beste erabilera-modu batzuk bultzatzeko gainerako jarduerekin bat etorriz. Bi kasuetan, etxebizitzak urtean 21.000 eta 39.000 € arteko diru-sarrera haztatuak dituzten pertsonentzat edo bizikidetzak-unitateentzat izango dira.
7. **Etxebizitza-erakinen eta etxebizitzan birgaitzea bultzatzeko dirulaguntzen programa, egiturazko berrikuntzen (estalkiak eta fatxadak), irisgarritasunaren (igogailuak instalatzea, batez ere) eta energia-efizientziaren bidez.**
  - **2023ko deialdia (40.050.000 €)**
8. **147/2023 Dekretua,** urriaren 10ekoa, **etxebizitza bat okupatzeko eskubide subjektiboari buruzkoa.** Etxebizitzarako eskubide subjektiboa (EES) aitortzeko betekizunak, baldintzak eta prozedurak arautzen ditu, eta alokairuko etxebizitza sozial bat edo, halakorik ezean, mota horretako kontratu bat dutenei merkatu libreko errentamendu bat hilero ordaintzea erraztuko dien prestazio ekonomiko bat eskuratzeko aukera ematen die. Etxebizitzaren arloko gizarte-babesa indartu da Euskadin, eta kolektibo berriak sartu dira etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboan.
9. **Orotariko Kreditua zabalitzea diruzaintzako gerakinen kontura,** 2023ko ekitaldiko kreditu-beharrizanei aurre egiteko, bizitegi-erakinen eta etxebizitzak birgaitzeko laguntzen Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren funtsen finantzaketa osagarriarako (**60 M €**).
10. **Euskadiko Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala 2022-2036 (2022/11/30) sinatzea;** itun horrekin 80 erakunde baino gehiagok egin dute bat. Akordioan honako helburu hauek ezarri dira: alokairu eskuragarriaren eskaintza publikoa handitzea 50.000 etxebizitzako parkera iritsi arte, etxebizitza babestu iraunkorrak parke osoaren % 12ra igotzea, edo 2036 amaitu baino lehen hiru etxetik bat birgaitzea.
11. **Euskadiko 12 udalerritako 14 auzo zaurgarriren hiri-berroneratzerako laguntzak eman dira, 93 M €** guztira. Auzo kalteberen hiri-berroneratze integralerako planaren barruan kokatzen dira proiektuak, eta 21 udalerriri hartzen ditu. Araban, Gasteizko Zaramaga auzoarekin egingo da lan; Bizkaian, Bilboko hiru auzotan (Unzeta parrokoa, Urizar dorrea eta Uretamendi), Bermeon (Iparragirre eta Txibitxiaga) eta Sestaon (Vista Alegre); eta Gipuzkoan, Arrasaten (Santa Teresa auzoa), Donostian (Altza), Eibarren (Gabilondoko seme-alabak), Elgoibarren (Sigma etxebizitzak), Errenterian (Beraun), Leaburun (Txarama), Soraluzen (Ezozia) eta Irunen.
12. **Etxebizitza babestuak Euskadin bere bultzadari eustea lortu du, zailtasunak zailtasun. Madril eta Kataluniarekin batera, 2016 eta 2022 artean amaitutako 1.000 etxebizitzak gainditzen dituen erkidego bakarra da.** Euskadik 2016. urteaz geroztik Estatu osoko alokairuko babes ofizialeko etxebizitzan % 23 eraikitzen du. Aldi horretan 1.414 etxebizitza babestu eraiki dira Euskadin, alokairurako.
13. **Berritzeko izapidetze-fasean dago Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin eta Euskadiko Udalen Elkartearekin (EUDEL) sinatutako lankidetzak-hitzarmena, familia-etxebizitzatik botatzearen ondoriozko kalteberatasun-egoerak hautemateari buruzkoa, izaera sozialeko neurriak hartu ahal izateko.**
14. **Legebiltzarrak Mugikortasun Jasangarriari buruzko azaroaren 9ko 11/2023 Legea onartu zuen.** Arau hori oso garrantzitsua da Euskadiko gizartea egituratuko duen **garraio-sistema iraunkor eta moderno bat lortzeko.** Horretaz gain, mugikortasun jasangarria planifikatzeko tresnak arautzen ditu, eta foru- eta toki-erakundeek ingurumena errespetatuko duen mugikortasunaren aldeko fiskalitatea garatzeko oinarriak ezartzen ditu.

15. **Mugikortasun jasangarriaren aldeko itun sozial bat sinatzeko prozesua abian da.** Barruan, prestatzen ari den Mugikortasun Jasangarriaren Planari buruzko adostasuna lortu da. (2023/02/12)
16. **Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak eta Bizkaiko Garraio Partzuergoak urrats bat eman zuten Euskadi osorako txartel bakarraren elkarreragingarritasuna sustatzeko eta ezartzeko.** 2022ko amaieratik aurrera, MUGI txartelarekin bidaiatu daiteke Bilboko metroko linea guztietan, Barik txartel arruntarekin ordaintzen den tarifa bera ordainduta.

## ERRONKA DEMOGRAFIKOARI ERANTZUTEA

**Erronka demografikoa herri-konpromiso bat da, eta itun politiko partekatua eskatzen du.** Hala adierazi zen erronka demografikoari buruzko **osoko bilkura monografikoan**. Bilkura hori 2022ko maiatzaren 18an egin zen, eta 74 ebazpen onartu ziren legebiltzar-taldeen artean.

1. Ebazpen horietan oinarrituta, **“Erronka demografikorako 2030 Estrategia”** ezartzen ari da. Estrategiak 36 ekimen biltzen ditu, eta helburua da herritarrek nahi duten seme-alaba kopurua izateko baldintza zehatzak sortzea, jaiotza-tasari eragiten dioten baldintza ekonomikoek, sozialek eta lan-arlokoek beren itzaropenak zapuztu gabe. **Neurri esanguratsuenen** artean, honako hauek nabarmendu behar dira:

- **Hilean 200 euroko zuzeneko laguntzak, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera, ardurapeko 3 urtera arteko seme-alaba bakoitzeko.** Laguntza horiek bateragarriak dira DSBE kobratzearekin eta egungo zerga-kenkariekin. Laguntza hori urtean 125 M €-ko aurrekontu-zuzkidura gehigarria izango da.
- **Ekintzailtza, etxebizitzarako eta autoenplegurako laguntzak. 20 M € gehiago** bideratuko dira gazteen ekintzailtza, autoenplegua eta etxebizitza eskuratzeko laguntza berriak errazten dituzten pizgarrietarako.
- **0 eta 3 urte bitarteko haurren gela eta haurtzaindegien doakotasuna, urtean 7 M €-ko ahalegin gehigarria.**
- **Kontziliaziorako laguntzak areagotzea.** Adinak gora egin du gaur egungo 3 urteetatik 14 urteetara, ondorengo adingabeak zaintzeko pertsonak kontratatuzko, 2021-2022 ikasturtera arteko atzeraeraginezko ondorioekin.
- Horri dagokionez, irailaren 7ko **102/2022 Dekretua** onartu zen, **14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatuzko laguntzei buruzkoa. (4 M €).** (2023/03/15)
- **Garraio publikoa. Gazteek garraio publikoa erabiltzeko hobariak 30 urtera arte luzatzea aurreikusi da.**
- **Enplegua. Gazteen enplegurako talka-plana eta BERPIZTU Esparru Programan eta Enplegu Planean jasotako gazteen enplegurako programa guztiak indartzea.**
- **Etxebizitza. Gazteen alokairurako laguntzen Gaztelagun programan sartzeko baldintzak malgutu dira.** Diru-sarreraren muga **18.000 eurotik 24.500 eurora** pasatuko da laguntza indibidual baterako. Familia-laguntzarako diru-sarreraren muga egungo 24.000 €-tik 28.000 €-ra pasako da.

**Aurrekontu-zuzkidura 50,75 M €-koa da 2019-2024 aldirako.**

**Laguntza ekonomiko horiek bateragarriak izango dira gaur egun ezarrita dauden neurriekin,** bai ondorengoengatikoen kenkari fiskalen arloan, bai etxebizitza eskuratzen laguntzeko gainerako neurriekin, gazteen enplegu-planarekin eta gainerako gizarte-laguntzekin.

Neurri ekonomikoez gain, **beharrezkoa da kultura-aldaketa bat, lana eta familia bateragarri egitea hobetzeko eta seme-alaben nahiz mendeko pertsonen zainketan benetako erantzunkidetasunean aurrera egiteko.**

2. **Gazteen emantzipazioa bultzatzeko 2030 Euskal Estrategia abian da.** Estrategia horrek gazteen legearen eta erronka demografikoaren estrategiaren aurreikuspenak garatzen ditu. Hamar proiektu traktore eta 26 ekimen osagarri biltzen ditu, bost eremutan egituratuta: enplegua, etxebizitza, errenta, kohesioa eta erresilientzia. (2023/03/21)  
**Berritasunen artean, 25 eta 29 urte bitarteko gazteak emantzipatzeko laguntza bat aurreikusten du. Helburua da batez besteko emantzipazio-adina 28 urtera jaitea 2030ean,** eta emantzipazio-tasa handitzea, 25-29 urtekoen artean, egungo % 39,5etik % 50era. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin lankidetzan estuan, Herri Itun bat bultzatzea ere proposatzen du gazteriarekin eta gazteriaren alde.
3. **GAZ aktibatzea, gazteei emantzipazio-prozesuetan laguntzeko zerbitzua.** Prestakuntzari, enpleguari, etxebizitzari, laguntzei edo mugikortasunari buruzko informazioa emango du, eta emantzipazio-prozesuan lagunduko du. Gazteek erabakiko dute zer informazio edo prestazio mota behar duten eta zer kanalen bidez jaso nahi duten: online edo aurrez aurre. (2023/10/13)
4. **Barakaldoko Udalarekin adostutako hitzarmena, gazte-sistematik gazteen emantzipazioa bultzatzeko proiektu integral pilotu bat garatzeko,** gazteen parte-hartzearekin, trantsizio sozial eta demografikoko testuinguru batean (384.706 €). (2023/10/31)

Fuente EUSTAT e INE (sobre base 100).

## III. ARDATZA. PLANETA. BIDEZKO TRANTSIZIO ENERGETIKOA ETA KLIMATIKOA

- Gauzatzen ari dira «Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Plan Estrategikoa» eta «Ekonomia Zirkularraren eta Bioekonomiaren Plan Estrategikoa» 2021eko amaieran onartutakoak.**
- Honako hauek ere **gauzatzen ari dira: “2030erako Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana”, “2030erako Biodibertsitate Estrategia”, “Sektore Publikoaren Jasangarritasun Energetikorako Plana”, “Ingurumen Ikuskapen eta Kontrolerako Plana”, “2030erako Euskadiko Energia Estrategia” eta “2050erako Klima Aldaketaren aurkako Estrategia”.** Era berean, **2030erako Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programa eta 2030erako jasangarritasunerako hezkuntzaren estrategia ezarri dira, eta izapidetzen ari da 2030erako Airearen Kalitate Plana.**
- Bost urtean, **Euskadik erdira murriztu du hondakin ez-arriskutsuen isurketa (2023/11/23)**, hau da, 2018tik % 49 murriztu da lehen zabortegira joaten ziren hondakin ez-arriskutsuen kopurua. Gainera, **2023an 12 M€ inguru biltzea espero da**, isurtze- eta errausketa-kanonari esker.
- Euskadin, berotegi-efektuko gasen isurketak % 30 murriztu dira 2005. urtearekin alderatuta.** 2005ean 25,3 milioi tona CO2 isuri ziren, eta 2021ean, datu estatistikoak ditugun azken urtean, 17,6 milioi tona CO2. **Horrela, Euskadik berotegi-efektuko gasen isurpena % 30 murrizteko zuen helburua lortu da, eta Klima 2050 estrategian planteatutako helburuan aurrera egin da**, hau da, 2040an 2005arekin alderatuta isurketak % 40 murriztea.
- Abian da Basque Net Zero Industria Superklusterraren ekimena**, euskal kluster eta enpresa nagusiek zero emisio garbiko helburuak lor ditzaten 2050ean. **Deskarbonizazio industrialerako laguntzen programaren helburua berotegi-efektuko gasak murrizteko instalazioetan inbertsioak sustatzea da (10 M€).** (2023/09/13)
- Energia berriztagarriak bultzatzea.** Euskadin kontsumitutako energiaren % 20 iturri berriztagarrietatik etortzea du helburu 2024rako. Horretarako, aurrera egin da EEEren partaidetza duen Aixendar sozietateak bultzatutako energia eolikoko proiektu berrien izapideetan, (Labraza, Azaceta eta Laminoria). Energia-komunitateei laguntzea, EKIOLA sozietatearen bidez (herritarren energia-kooperatibak sustatzen dituen sozietateak), hala nola Arraia-Maeztu, Azpeitia eta Arrasateko kooperatibak, edo Gorbeialdeko eta Aiarako eguzki-instalazio fotovoltaikoen hurrengo eraikuntzak. Gainera, bioerregaiak edo aerotermia eta geotermia bultzatzeak helburuan aurrera egiteko aukera ematen du.
- Gobernu Kontseiluak, 2022ko ekainaren 7an, Urdaibain egindako ingurumen-egunean, **Lurzorua Babesteko Euskal Estrategia 2030 onartu zuen**, eta gauzatzen ari da. Sprilurrek 255 M€ inbertituko ditu EAEko 32 udalerritan, industria-lurzoru kutsatuen 2,3 milioi m2 berreskuratzeke, balioesteko eta merkaturatzeko.
- Euskadi Europar Batasuneko Klima-aldaketara Egokitzeko Misioan parte hartzeko hautatu dute, 2022ko ekainean.** Izendapen horrek berresten du **Euskadi klima-larrialdiaren erronkarekin konprometitutako eskualdea dela. Life Urban Klima 2050** proiektuak, **20 M€ko** aurrekontuarekin, klima-ekintzako proiekturik handiena izaten jarraitzen du, **lurralde osoan 40 ekintza zehatz baino gehiagorekin.**
- Euskadi hidrogenoaren ekonomia gidatzen ari den Europako eskualdeetako bat da. Ekimen pribatuarekin lankidetzan**, argi eta garbi egin du **Hidrogenoaren Euskal Korridorea (BH2C) eta instalazio elektrolizatzaileen garapen teknologikoa sustatzeko apustua.**

Hidrogenoaren Euskal Korridorearen (BH2C) eraketa, 78 erakunde publiko pribaturekin batera, energia, mugikortasuna, industria eta zerbitzuak bezalako sektoreen deskarbonizazioan aurrera egiteko sortu zen, eta behin betiko bultzada eman dio hidrogeno berdearen aldeko EAEren apustuari, energia garbiaren iturri osagarri gisa.

10. **Hidrogenoaren eta energia berriztagarrien erronkak funtsezko bultzada izango du Ezkerraldeko Parke Teknologikoaren Energy Intelligence Centerraren (EIC) garapenari esker;** izan ere, eraikitzen ari den lehen eraikinaren % 100 konpromituta dago eta proiektatutako bigarren eraikinaren ia % 50 konprometituta ditu.
11. **2022an, deskarbonizazio-hubaren lehen harria jarri zen Bilboko portuan.** Petronor-Repsol eta EEEK bultzatutako proiektu pribatu-publikoa. Proiektu pilotu horretan erregai sintetikoaren eta hidrogeno berdea ekoizteko instalazioak egongo dira. Lehen mugarrria da, eta beste batzuek jarraituko diote, Parisko Agendaren helburuak betetzeko, deskarbonizazioari eta energia garbiei dagokienez. 2023an, Euskadin hidrogeno berriztagarria sortzen duen lehen elektrolizagailua inauguratu zen. Petronorren findegian dago eta egunean tona bat ekoizteko ahalmena du.
12. **Abian da Basque Volt, proiektua (2023/06/19),** Zamudioko teknologia-parkean belaunaldi berriko egoera solidoko baterien gelaxkak fabrikatzeko. Lankidetzatza publiko-pribatuko proiektua da. **Basque Volt egoera solidoko gelaxkak egiten dituen Europako lehenengo gigafaktoria izango da, 700 M€-ko aurreikusitako inbertsioarekin eta 800 enplegu zuzen baino gehiagorekin.**

Lehenengo ekoizpen-lerroa 2025erako dago aurreikusita, fabrikazio normalizatuarekin hasi eta bi urtera. Basquevolt SA merkataritza-sozietateari zuzeneko dirulaguntza bat ematea, "Ingebeat" ikerketa-proiektua garatzeko. (19.445.807,50 €) (2022/12/15). Basquevoltek ere EBren funtsetako 15 M€ jaso ditu bateria-fabriketarako. (2023/09/15)

13. **Euskadik bi bateria-fabrika izango ditu:** bata **Mercedes Benzek** sustatua, Gasteizen ibilgailu elektrikoak ekoizteko duen instalazioa hornitzeko, eta bestea **Autobuses Irizar** konpainiaren eskutik.
14. 2022ko martxoan, **"Euskadiko ETE zirkularra" programa aurkeztu zen.** Jaurlaritzaren aliantza handi bat da euskal enpresekin, **500 ETE mugiarazi nahi dituen ekonomia zirkularrean aurrera egiteko. Basque Ecodesign Centerreko Batzorde Estrategikoa ere martxan jarri da,** eta 2023an **18 bazkide** izan ditu. Aliantza publiko-pribatu hori sektore pribatuko enpresa handien eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzatza-esparru bat da, ekonomia zirkularreko lidergoan aurrera egiteko. **Ekonomia zirkularreko berrikuntzarako dirulaguntzen programa bat ezarri da.** Hauek dira jardueren-ildoak: 1. lerroa. Ekodiseinua eta ekonomia zirkularren erakustaldia, 2. lerroa. Ekoberrikuntza estrategikoa eta 3. lerroa. ETE zirkularra.
  - 2022ko deialdia (1,5 M€)
  - **2023ko deialdia (1,5 M€)**
15. Gobernu Kontseiluan 2022ko uztailan aurkeztutako **Mugikortasun Elektrikoaren Euskal Estrategia gauzatzen ari da.** Estrategia horrek **2 M€tik gorako inbertsioa** aurreikusten du 2030era arte.
16. **Abian da Euskadiko Kontingentzia Energetikoaren Plana,** Espainiako Gobernuari formalki bidalia, Estatuko Planari egindako ekarpen gisa. EAEko Kontingentzia Planak dagoeneko gauzatzen ari diren programak eta neurriak jasotzen ditu, eta, gainera, eranskin espezifiko bat jasotzen du, industria arintzeko neurriekin energia-kostuen igoeratik. Eranskin honetako proposamenek Espainiako Gobernuaren eskumen eskusiboei eragiten diete bereziki.
17. **2023ko ekitaldian, garraio publikoaren tarifen % 50erainoko hobariarekin jarraituko da, abendura arte.** Hobaria handitu egingo da 2024an.
18. **Euskadiko Tokiko Administrazio Publikoaren sektorean energia-eraginkortasunean eta energia berriztagarrien erabileran inbertitzeko aurrerakin itzulgarrien programa (Gauzatu Energia, 100 M€).**
19. **Euskal Autonomia Erkidegoko industria-sektoreko enpresa txiki eta ertainetan eta enpresa handietan energia-efizientziako jarduketak laguntzeko programa.** 2019ko deialditik abiatuta (15 M€), 2021ean deialdiaren zenbatekoa 7 M€ handitu zen, eta 2022an 39 M€; guztira, 61 M€. Eskabideak aurkezteko epea 2024-06-30ean amaituko da, edo aurrekontua agortu arte..



20. **Autokontsumoarekin eta biltegitzearekin lotutako pizgarrien programa, energia-iturri berriztagarriekin, bai eta sistema termiko berriztagarriak ezartzearekin lotutakoak ere bizitegi-sektorean**, Europar Batasunak finantzaturako Next Generation EU Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan. 2021-2023 deialdia, hasierako zenbatekoa 34.558.233 € gehi aurrekontu-gehikuntza 32.226.080 € izanik. Funtsen bigarren gehikuntza 12.242.486 euroan, eta funtsen hirugarren igoera 27.738.774 euroan, **106.765.574 euroan guztira**.
21. **Mugikortasun eraginkor eta jasangarrirako pizgarrien programa (Moves III programa)**. 2021-2023 deialdia 16.378.575 € gehi 2022an 16.557.699 €-ko igoera, gehi 8.840.147 €-ko beste igoera bat (guztira 41.776.421 €).
22. **Energia berriztagarri termikoko instalazioak ekonomiaren hainbat sektoretan ezartzeko pizgarri-programak, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan**. 2022-2024 deialdia, 7.779.253 €-ko zenbatekoarekin. Lehenengo igoera 8.673.421 eurokoa da (2023/10/17), eta funtsen bigarren igoera 4.763.819 eurokoa, **21.216.494 € guztira** (2023/12/12).
23. **Kamioientzako Renove Plana. Salgaien errepideko garraioko flotak modernizatzeko laguntza-programa**.
- 2022ko deialdia (7 M€)
  - **2023ko deialdia (2 M€)**
24. **Garraio eta mugikortasun efizientean inbertsioak egiteko laguntza-programa**.
- 2022-2023 deialdia (Esleitutako funtsak: 500.000 €)
25. **Gas naturalaren prezio altuek eragindako industria-sektoreko enpresentzako laguntza-programa**.
- 2022ko deialdia (5 M€)
26. **Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko enpresei ematen zaizkien dirulaguntzak** arautzen dituen 202/2015 Dekretuan, urriaren 27koan, aurreikusitako laguntzen programa.
- 2021eko deialdia (4 M€)
  - 2022ko deialdia (5 M€)
  - **2023ko deialdia (5 M€)**
27. **Garapen jasangarria sustatzen duten ekintzak egiten dituzten toki-erakundeei dirulaguntzak emateko programa**.
- 2021eko deialdia (4 M€)
  - 2022ko deialdia (4,58 M€)
  - **2023ko deialdia (4,2 M€)**
28. **Itsas teknologia energetiko berriztagarriak erakusteko eta baliozkotzeko inbertsioetarako laguntzen programa**.
- 2021eko deialdia (2.5 M€)
  - 2022ko deialdia (2.5 M€)
  - **2023ko deialdia (2.5 M€)**
29. **Energia elektrikoa % 100 berriztagarria erostea Eusko Jaurlaritzaren eraikinetarako**. (60.750.071 €)
30. **Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeetarako eta EAeko gainerako sektore publikoko erakundeetarako % 100 berriztagarria den energia elektrikoaren horniduraren kontratazio zentralizatua bultzatzea** (2023-2024).

31. **Euskadiko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Legearen proiektua onartu da**, deskarbonizazio-prozesua azkartzeko, erantzukidetasunaren bidez. Euskadi Estatuan eta nazioartean hartutako konpromisoan eta atxikimenduan adierazi dituen araudi, politika eta plan guztiekin lerrokatu nahi du, hartara 2050erako klima-neutraltasuna eta energia-trantsizio bidezkoa lortzeko. (2023/05/16). Legebiltzarrean izapidetzen: baliteke 2024ko otsailean onartzea.
32. **2030erako Euskadiko V. Ingurumen Esparru Programa onartu da**. Bertan, ingurumena gobernuaren politika guztietan txertatzeko funtsezko zortzi proiektu eraldatzaileak zehazten dira. (2023/03/21)
33. **Vitoria-Gasteizko tranbia Salburuan funtzionamenduan hasi da**. Guztira, **25 M€** inguruko inbertsioa izan da, eta Eusko Jaurlaritzak % 65 finantzatu du; gainerako % 35a, berriz, Gasteizko Udalak eta Arabako Foru Aldundiak erdi bana eman dute. (2023/04/11)
34. **Garraio Sailaren eta Abiadura Handiko ADIFen arteko hitzarmena, Eusko Jaurlaritzaren esku uzten da Bilbo-Abandoko geltokira sartzeko korridorearen oinarritzko proiektuak eta eraikuntza-proiektuak idaztea eta obrak zuzendu eta egitea**. (2023/11/21)
35. **Plan hidrologiko berria eta Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana izapidetu dira**, 2022-2027 zikloari dagokiona. Gobernu Kontseiluak 2022ko uztailean onartu zituen, EAEko barne-arroen esparruan, eta Estatuko Administrazio Orokorriari igorri zitzaizkion, izapidetzen amaitzeko eta argitaratzeko.
- Plan hidrologikoaren helburua uren egoera ona lortzea da**, Europar Batasunak 2000/60/EE Uraren Esparru Zuzentarauan ezarritako helburuekin bat etorritik: batez ere, segurtasun hidrikoa eta horniduraren bermea lortzea, uraren iraunkortasunaren eta erabilera eraginkorraren irizpideetan oinarrituta; eta erresilientzia hobetzea muturreko fenomenoaren aurrean (uholdeak eta lehorteak).
- Muturreko fenomenoak, uholdeak eta lehorteak, errepikakorragoak izan daitezke klima-aldaketaren ondorioz, baina tresna horri esker, Euskadik plangintza hidrologiko berritu bat izango du, segurtasun hidrikoa eta hornidura bermatzeko, lurraldearen erresilientzia hobetzeko eta uren egoera ona zaintzeko.
- Lehorteen Plan Berezia Eusko Jaurlaritzak onartutako mota horretako lehen plana da**, eta Busturialdean edo Lea Artibain aplikatu da. **Planek 900 M€ko inbertsioak aurreikusten dute epe osorako, eta horietatik 600 M€ inguru euskal erakundeek inbertsioei dagozkie**.
- Horrela, **Eusko Jaurlaritzak indartu egin du uraren kudeaketari aurre egiteko duen gaitasuna**, Plan Hidrologikoa eta Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana berrituz eta Barneko Arroetako Lehorteen aurrean Jarduteko lehen Plan Berezia onartuz.
- Hiru plan hauek tresna estrategiko bereziki ezinbestekoak dira**, klima-aldaketako balizko egoeren aurrean urari dagokion guztia tenkatzeko aukera baitago.
- Plan hidrologikoak ura kudeatzeko aplikatu beharreko araudi berritu eta eguneratu bat dauka, bai eta administrazio eskudunen inbertsioen aurreikuspena ere (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak, hornidura eta saneamendua kudeatzen duten erakundeak eta Estatuko Administrazio Orokorra, batez ere), 2022-2027 aldirako aipatutako helburuei dagokienez.
36. **Hondakin-urak saneatzeko eta arazteko sistemak hobetzea**.
- Inbertsioak egin dira, batetik, ur-masa jakin batzuetan uraren kalitatea hobetzeko, oraindik ez baitziren betetzen eskatutako estandarrak, eta, bestetik, hondakin-uren saneamendu- eta arazketa-sistemak hobetzeko, dauden azpiegituren defizita osatuz.

**Bereziki, hauek nabarmentzen dira:**

- **Inbertsioak Nerbioi Garaiko saneamenduan:** Basaurbeko (Laudio) eta Markijanako (Amurrio) hondakin-uren araztegiak eta horien kolektore-sistema eraikitzea, **73 M€ko** zenbatekoarekin.
- **Donostialdeko araztegiak hobetzeko inbertsioak:** Loiolan hondakin-uren araztegi berri bat eraikitzea, **55 M€koa**, industria-urak tratatu ahal izateko, eta euskal administrazioak Estatuaren agindu bidez gauzatu nahi duena.
- **Inbertsioak Bilbo Metropolitanarrean:** Sestaoko Galindoko HUA berritzeko eta hobetzeko hainbat jarduketa, Leioako Lamiakoko gainezkatzeen tratamendu-estazioa eta Zuazo-Galindoko ekaitz-tanga eraikitzea, **270 M€ko** guztizko zenbatekoarekin.
- **Inbertsioak Txingudin:** Atalerrekako HUA egokitzea, **6 M€ko** zenbatekoarekin.
- **Inbertsioak kolektoreetan: Bizkaian:** Muxika-Gernika (**12,3 M€**), Ermua-Mallabia (**3,4 M€**); **Gipuzkoan:** Oikia-Aizarnazabal (**6,4 M€**), Mijoa (**3,1 M€**), Elgeta (**3 M€**), Pasaia (**4,8 M€**) eta Mendaro (**10,4 M€**); eta **Arabakan:** Artziniega (**6 M€**) eta Aramaio (**1,7 M€**).
- **Ibaiak, hezeguneak eta estuarioak lehengoratzeko, espezie inbaditzaileak kontrolatzeko eta uretako ekosistemak hobetzeko inbertsioak, bereziki urari lotutako ingurumen-garrantzi handieneko eremuetan, hala nola Natura 2000 Sareko eremu askotan.**

37. **Hornidura-bermea.** Era berean, ekitaldi honetan dagoeneko planifikatu dira 3 lurraldeetako sistema jakin batzuetan hornidura bermatzeko inbertsioak. Jarduera horien artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- **Bizkaia:** Urdaibaiko hornidura hobetzea (**30 M€**), Lea-Artibai (**30 M€**), Enkarterriak (**43 M€**) eta Bilbo Metropolitanarra (**292 M€**) eremuetan.
- **Gipuzkoa:** Añarbeko Beheko Ubidearen ordezkeroanbide bat eraikitzea eta hura birgaitzea, **39,1 M€ko** zenbatekoarekin.
- **Arabak:** hornidura hobetzea Arabako hainbat herritan, hala nola Laudion, Amurrian, Okondon, Barambion, Ziorragan, Sobronen eta Zuian.

38. **Ur-masetan lurraldearen erabileren presioaren eta uholdeen arrisku naturalarekiko esposizioaren prebentziozko ebaluazioa.** Nabarmentzekoa da ekimen, dokumentu eta proiektuen berriemateko administrazio-lana, uraren arloan aplikatu beharreko araudira egokitzen direla egiaztatzeko. Bai ur-masen egoerari dagokionez, bai lurzorua erabileren eta ur-goraldien errepikapen naturalaren arteko bateragarritasunari dagokionez. **Ebaluazio Arloak 450 txosten inguru egiten ditu urtero.**

**Lurzorua erabilerak eta ur-goraldien errepikapen naturala bateragarriak** direla zaintzeko. Uholdeak Prebenitzeko Arloak 250 bat txosten egin ditu (241 2022an) uholde-arriskuaren analisiarekin, azterketa hidraulikoen baliozkotzearekin eta UAKPren neurrien programarekin bateragarria den ebaluatzearekin lotuta. Gainera, uholde-arriskugarritasunari eta uholde-arriskuko eremuetako erabileren bateragarritasunari buruzko azterketekin lotutako 88 kontsulta teknikori erantzun zaie.

39. **Jabari publiko hidraulikoan obrak egiteko baimenak: joera positiboa finkatzea.** Obra-baimenak izapidetzearen helburua da ezartzea zer baldintzatan egin daitezkeen obrak eta jarduketak jabari publikoan edo haren ingurunean (polizia- eta zortasun-eremua), ur-masak hondatzea saihestuz, ur-masak hobetzen saiatuz, eta betiere kontuan hartuta uholde-arriskua dutela.

2022. urtean, obra baimentzeko 1611 espediente hasi dira (urbanizazioak, eraikuntzak, landaketak, mozketak, etab.), eta 1518 ebatzi dira.

**Nabarmentzekoa da URak 2022an hasitako eta ebatzitako obra-baimenen espedienteen** bolumenak 2021ean hasitakoak eta ebatzitakoak gainditu dituela, urte horretan gorakada handia izan baitzen aurreko urteekin alderatuta.

# IV. ARDATZA. AUTOGOBERNUA. AUTOGOBERNU GEHIAGO

## KUDEAKETA PUBLIKO GARDENA

1. **Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko Plan Estrategikoa gauzatzen ari da.** Plan horrek administrazio-prozesuen berrikuntza eta modernizazioa, gardentasuna, plantillak finkatzea eta administrazio publikoko plantilla gaztetzeko giza baliabideak sartzeari planteatzen ditu.
2. **Enplegu publikoa. Izapidetzen ari da 2022rako lan-eskaintza publikoaren betearazpena, 8.764 plazakoa,** Administrazio Orokorrari, Hezkuntzari, Osakidetzari eta Segurtasunari dagokiena. Aurrerapauso handia da enplegu publikoan bitartekotasuna murrizteko helburuarekin. Plaza horietatik 1.686 administrazio orokorrari dagozkie; 3.040 hezkuntzari; 3.723 Osakidetzari; 315 segurtasunari.
3. **Euskadik lehen aldiz egiten ditu toki-erakundeetako funtzionarioak hautatzeko probak.** EAEko erakundeen eskumena defendatzen da, funtzionarioen hautaketari, enplegu-eskaintzaren onarpenari eta izendapenari dagokienez. Bere ustez, prozesua euskal autogobernuaren babespean dago, Eusko Jaurlaritzari esleitutako eskumen-eremuan. (2023/10/17)
4. **113/2023 Dekretua,** uztailaren 18koa, **Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko enplegatu publikoentzako telelanari buruzkoa.** (2023/07/18)
5. **Euskal Sektore Publikoari** buruzko maiatzaren 12ko **3/2022 Lege berriak aukera emango du erakunde-sarearen antolaketa, egitura, funtzionamendua eta araubide juridikoa arautzen duten arau guztiak argitzeko, antolatzeko eta modernizatzeko.** Lege hori sozietate publikoei eta atxikitako erakundeei ere aplikatuko zaie, eta aukera emango du sinergietan aurrera egiteko eta Euskadiko administrazio publikoetan gainjartzeak eta bikoiztasunak saihesteko.
6. **Tekgunearen esparruan, Administrazioaren digitalizazioan EAEko eta Nafarroako erakundeen arteko lankidetzaren aldeko apustua egiten da.** Tekgunea berrikuntza teknologikorako lanerako eta topaketarako gunea da Euskal Administrazio Publikoarentzat. Bertan, EAEko eta Nafarroako erakundeek, bai eta enpresek eta unibertsitateek ere, sortzen ari diren teknologiei, berrikuntza-proiektuei eta software-garapenei buruzko ezagutza partekatzen dute.
7. **Ekainetik aurrera, Zuzenean digitalizatu egiten du paperean aurkeztutako dokumentazioa.** Herritarrek emandako paperak eta dokumentuak jasotzeari eta gordailutzeari amaiera eman dio, eta formatu digitalean bakarrik gordetzen hasi da. Neurri horrek, ingurumena babesten laguntzeaz gain, informazio konfidentziala babesteko eraginkortasuna eta segurtasun-maila hobetzen ditu.
8. 2022ko irailean, EAEko **administrazio publikoen aurrean egiaztapen-txartelak formatu digitalean aurkezteko aukera ematen duen aplikazio mugikor bat abiaraztea.** NIK Patrika digitala/Cartera digital aplikazioak balioko du orain arte plastikozko txartelean aurkeztu diren egiaztagirak telefono mugikorrean ostatatzeke. Diru-zorro digital osoa ezartzeko aurrerapausoak, NIK patrika. (2023/04/26)
9. **Herritarren partaidetzan berrikuntzak sartzeko laborategia da iLab, eta web-orria abian jarrita ekin dio bere ibilbideari.** Web-orri horren bidez, lankidetzaren sare bat sortuko da, eta laborategi horretan parte hartuko duten rola eta esperimenduak definituko dira. (2023/07/12)
10. **91/2023 Dekretua,** ekainaren 20koa, **herritarrei arreta osoa eta kanal anitzekoa emateari eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoen bidez eskuratzeari buruzkoa.** Asmoa da herritarrei arreta egokia bermatzea administrazioarekiko harremanetan, kontsultak edo izapideak egiteko, hainbat bide erabiliz: telefonoz, telematikoki edo elektronikoz, eta, jakina, aurrez aurre. (2023/06/20)

11. **Zerbitzu Publiko Elektronikoen Estatistika Organoak 2021eko datuak argitaratu ditu.** 2016 eta 2021 artean, % **20 igo zen Internet bidez** eskaintako zerbitzu, prozedura eta izapide guztiak, **eta 38.000 eskaintza baino gehiago** egin ziren Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoen webguneetan. (2023/10/31)
12. **Nahitaezko instrukzio bat onartu da, Eusko Jaurlaritzako sail guztiak eta haien sektore publikoak lizitazioetan sartu behar dituzten gutxieneko ingurumen-klausulak ezartzen dituena.** (2023/03/27)
13. **Euskadiko Gardentasunaren Lege-proiektua onartu da.** Arauaren helburua da gardentasuna eta herritarrek gai publikoetan parte hartzea bermatzea eta kontuak ematea erraztea. (2023/11/28). Legebiltzarrean izapidetzen.
14. **EAEko Administrazio Orokorren eta haren erakunde autonomoen eta EAEko Hezkuntza Administrazioaren 2023ko Enplegu Publikoaren Eskaintza onartzea.** Eskaintzak **3.010 plaza** ditu guztira, eta aurrerapauso handia da gobernuak euskal sektore publikoan enplegu publikoa sustatzeko duen helburuan. Horietatik **590 plaza EAEko Administrazio Orokorri eta bere erakunde autonomoei** dagozkie, **886 Hezkuntza Administrazioari, 1.434 Osakidetzari** eta Administrazio instituzionaleko zuzenbideko gainerako erakunde publikoei, eta **100 plaza Ertzaintzako** agenteen kategorian sartzeko. (2023/12/13)

## KUDEAKETA EKONOMIKO ARDURATSUA

1. **Eusko Legebiltzarrak 21/2023 Legea onartu du, abenduaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2024. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena. Guztira, 15.025,4 M€ dira** (aurreko ekitaldiaren aldean % 5,4 gehiago). Aurrekontu horren % 73 (10.934,3 M€) gizarte-gastura bideratzen da. Era berean, eutsi egiten zaio 2.000 M€-tik gorako inbertsio publikoaren aldeko apustu irmoari (2023an baino % 13,5 gehiago), bai eta I+G+bren aldeko apustuari ere, % 6,5eko igoerarekin; horrek % 40an kokatzen du 2021az geroztik berrikuntzan eta garapenean izandako hazkundea. Beraz, **aurrekontu errekorra da, alderdi ekonomikoan eta sozialean konplexua den agertoki batean.**  
**Helburua hazkundea eta lehiakortasuna sustatzea da, ongizaterako eta gizarte-orekarako.** Konpromiso horrekin batera, inbertsioa handituko da, ikerketaren eta garapenaren aldeko apustua indartuko da, eta sektore eta jarduera ekonomikoak babestuko dira, bereziki industria eta autonomoak.
2. Martxoaren 30ean, Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek **“2022-2024 aldirako Euskadiko Inbertsio Estrategikoen Plana” aurkeztu zuten.** Plan horren bidez, **530 M€ko aurrekontu-baliabide gehigarriak aktibatu ziren, Euskadi Next programan sartutako proiektuak bultzatzeko eta bizkortzeko.** Proiektu horiek bizkortu egingo dira Europako funtsak gehituta. 2022-2024 aldirako Inbertsio Estrategikoen Erakundearteko Planaren (PIIE) gauzatze-mailaren berri eman da. 2022an, guztira, 112,7 M€ inbertitu dira hainbat proiektutan, hau da, urte horretarako aurreikusitako guztizkoaren % 120,8ko gauzatze-maila eta ZIBParen guztizko zuzkiduraren % 21,3koa. (2023/02/15)

### 3. Europako funtsen kudeaketa:

- 2022ko martxoan, **Eusko Jaurlaritzak iruzurraren aurka borrokatzeko duen konpromisoa onartzen duen adierazpen instituzional bat onartu zen.** Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren betearazpenean eskatzen den Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren baliabideekin **finantzatutako ekimenetarako iruzurraren**, interes-gatazkaren, finantzaketa bikoitzaren eta estatu-laguntzen eta ingurumenari egindako kalte ez-esanguratsuaren betekizunak estaltzeko neurrien plan bat ere.
- 2022ko irailean, **Eusko Jaurlaritzak Espainiako Gobernuari proposatu zion MRR maileguen erabilera eskualdeko proiektu estrategiko pribatuak eta publiko-pribatuak bultzatzeko palanka bat izatea** (Euskadi izan zen eskualdeko PERTES sortzea proposatu zuen lehen autonomia-erkidegoa), eta, gainera, MRR bonu bat sortzea autonomia-erkidegoen zorpetzean kontuan hartzen ez diren proiektu publikoetarako.

**Eusko Jaurlaritzaren jarrera lau proposamenetan zentratzen da, ESPEei eta Europako funtsei dagokienez: 1) Arintasun handiagoa funtsak gauzatzeko orduan; 2) Partaidetza handiagoa ESPEetan; 3) Eskualdeek protagonismo handiagoa izatea horiek ezartzeko orduan, eskualdeko ESPEa kontuan hartuta; eta 4) Partaidetza handiagoa Espainiako Suspertze Planaren Adendaren barruan, Europak emandako dirulaguntzak osatuko dituzten 70.000 milioi maileguak lortzeko.**

- **Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak Next Generation Europako funtsen egoeraren berri eman du, eta euskal produkzio-sareak Europako MRR funtsak xurgatzeko aukerak galtzeko arriskuaz ohartarazi du.** Euskadik, behingoz, eskualdeko gobernua eragile protagonista gisa aktibatzea planteatzen du, Europako funtsak gure enpresetara, hirugarren sektorera, zentro teknologikoetara eta unibertsitateetara bideratzeko eta banatzeko. (2023/10/27)
- **Next Generation funtsen injekzioa % 50 igo da Euskadin 2023ko ekitaldian, eta 2.339 M€a iritsi da.** Hazkunde hori, batez ere, proiektu estrategiko handien (PERTS) deialdien aktibazioari zor zaio; izan ere, euskal enpresek gaitasun handia dute beren proposamenen gaitasun eraldatzailea dela eta, eta, zehazki, 500 M€ gehiago dira. (2023/12/23)

### 4. Finantza-nahikotasunaren bermea:

- **Standard and Poors nazioarteko agentziak Euskadiko kreditu-kalitatea hobetu zuen 2022ko apirilaren 1ean, eta AA-ra igo zuen,** perspektiba egonkorarekin, Espainiako estaturako kalifikazioaren gainetik bi maila. Era berean, apirilaren 13an, "Fitch" nazioarteko agentziak Euskadiren kalifikazio positiboa igo du.
- **Gure herriak nazioarteko merkatuetan izan zuen ospe onari esker, Euskadi bonu jasangarriaren seigarren jaulkipena jarri zen abian, 500 milioi eta hamaika urte bitartekoa.** Berrito ere, eskariak eskaintza hirukoiztu zuen, 1.453 M€ko eskaerak jaso baitziren. Jaulkipen horri esker, 60 M€ baino gehiago aurreztu ahal izan ziren zor horren bultzatzean, eta zorra hamaika urterako ezarri zen.

Eusko Jaurlaritzak VII **"Euskadi Bonu Jasangarria"** jaulki du, **700 M€ko** balioarekin hamar urterako. Eskaria eskaintza baino zazpi aldiz handiagoa izan da. 2018an lehen jaulkipenarekin hasitako prozesu baten zazpigarren jaulkipen honekin, **horien zenbateko osoa 4.400 M€koa da.** (2023/02/08)

### 5. FEIko finantza- eta kreditu-tresna berriak.

- **Enpresa txiki eta ertainei, banakako enpresaburuei eta profesional autonomoei finantza-laguntza emateko 2022ko programa onartu da,** energiaren eta lehengaien prezioen igoerak eragindako eragin ekonomikoari erantzuteko (83/2022 Dekretua, uztailaren 5ekoa), eta dagokion deialdia egin da (Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2022ko uztailaren 21eko Agindua).

- **Finkatuz Funtsa, Finantzen Euskal Institutuak (FEI) kudeatua, 300 M€a iritsiko da, euskal enpresetan partaidetzak hartzea helburu hartuta, haien sustraitzea, hazkundera, nazioartekotzea eta trantsizio teknologiko eta energetikoa erraztuz.** Funtsa handitzearekin Eusko Jaurlaritzak legegintzaldi honetan zehar kapitala handitzeko hartutako konpromisoa betetzen da, adierazitako **300 M€a iritsi arte.**

Finkatuz programaren iritiz **lehentasunezkoak** diren **sektore estrategikoen artean daude: aeronautika, elikadura, automozioa, biozientziak, eduki digitalak, ekoindustriak, energia, makineria, siderurgiako produktuak eta instalazioak, teknologia elektronikoak eta informazioaren teknologiak, garraioak, mugikortasuna eta logistika.** Sektoe horiek ez dira zerrenda itxia, eta denboran zehar aldatu ahal izango dira. Funts hori 2021ean jarri zen abian, eta orain arte hiru enpresatan hartu ditu partaidetzak: ITP Aero, CAF eta Kaiku. (2023/11/07)

6. **Eusko Legebiltzarrean arlo horretan funtsezkoak diren bi lege onartu dira:**

- **20/2023 Legea**, abenduaren 21ekoa, **Dirulaguntzen Araubidea arautzen duena**, dirulaguntzen sistema arautzeaz gain, enpresen deslokalizazioaren ondorio batzuei aurre egiteko neurriak ezartzen dituena. Ildo horretan, deslokalizazioaren aurreko azken 8 urteetan enpresa batek jasotako laguntza publikoak itzultzera behartzen du.
- **19/2023 Legea**, abenduaren 21ekoa, **Finantzen Euskal Institutua arautzen duena, zeinaren helburua baita Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeen finantza-politikako eta kreditu publikoko tresna gisa jardutea**, garapen ekonomiko eta soziala modu jasangarrian bultzatuz, euskal sektore ekonomikoetan finantzaketa eta partaidetza publikoko tresna publikoak kudeatuz.

7. 2022ko urriaren 25ean, **Hitzartuz Programa aurkeztu zen.** Neurri-sorta berri horrek **334 M€ko inpaktua aurreikusten zuen, 2022. eta 2023. urteen artean banatuta.**

8. **Euskal Autonomia Erkidegoko Iruzur Fiskalaren kontrako Borrokarako Bederatzigarren Plan Bateratua.** 2022. urtea: ikuspegi kuantitatibotik, 2022an aurkitutako zorraren zenbaketa, ekitaldi horretako Plan Bateratuan jasotako neurriei dagokienez, 639 M€koa zen, hau da, foru-ogasunek 2022an kudeaketa propioko zerga itunduengatik bildutako zenbateko osoaren % 4,5 inguru. 2021. urtearekin alderatuta, handitu egin da aurkitutako zorraren zenbatekoa (572 M€), nahiz eta foru-ogasunek urte horretan bildutako zenbateko osoaren ehunekoa ez den aldatzen (**% 4**). (2023/06/19)

9. 2022ko azaroan, **Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak (EIBM) bi akordio garrantzitsu onartu zituen Euskadiko autogobernu ekonomiko eta finantzarioa indartzeko eta garatzeko:**

- Bi zerga berri ituntzea - **Berrerabili ezin diren plastikozko ontzien gaineko zerga berezia eta Hondakinak zabortegetan uztearen, erraustearen eta hondakinen baterako errausketaren gaineko zerga** - eta **Euskal Ekonomia Ituna** Berotegi Efektuko Gas Fluordunen gaineko Zergan sartutako aldaketetara **egokitzea.**
- **2022-2026 bosturtekorako kupoaren metodologia berria**, abiaburu-urteko behin-behineko kupoa **1.472 M€tan** finkatzen duena.
- Era berean, **Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak (EIBM) fortuna handien gaineko zerga ituntzea eta Euskadik aldi baterako energia-kargetan eta kreditu-erakundeetan eta kredituko finantza-establezimenduetan parte hartzea erabaki du.**

10. Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen da apirilaren 3ko **9/2023 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duen** maiatzaren 23ko 12/2002 Legea aldatzen duena. (2023/04/04)

11. Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen da **10/2023 Legea**, apirilaren 3koa, 2022-2026 bosturtekorako **Euskadiko Kupoa zehazteko metodologia onartzen duena.** (2023/04/04)

## TRANSFERENTZIEN EGUTEGIA

1. 2020ko urriaren 14an, **Espainiako Gobernuak transferentzien egutegi berri bat igorri zion Eusko Jaurlaritzari, aurreko egutegia eguneratzeko**, kontuan hartuta COVID pandemiaren ondorioz egiteke zeuden eskualdatzeen kudeaketan izan zezakeen eragina. **Egutegi berri honetan, Espainiako Gobernuak egiteke dauden 30 gai aitortzen ditu. Horietatik, orain arte, bost transferentzia baino ez dira gauzatu:** batetik, 2021eko maiatzaren 10ean onartu ziren lau transferentziak: errepideko garraioa; ISBNaren esleipena; itsasertzaren antolamendua eta kudeaketa; eta espetxeen kudeaketa. 2022ko martxoaren 16an, bizitzeko gutxieneko diru-sarrera Euskadira osorik transferitzea onartu zen.
2. **Lehendakariak Gobernuko presidenteari proposatu zion batzorde iraunkor bat eratzea**, Espainiako Gobernuak bidalitako egutegian jaso eta egiteke zeuden transferentzia guztiak osorik aztertzeko. (2022-09-15a)
3. **Estatuko Gobernuaren ekintzarik ezaren ondorioz, Eusko Jaurlaritzak aurrea hartu zuen eskumenen transferentziak negoziatzeko ohiko prozesuan, eta jarrera aktiboa hartu zuen. Horretarako, gobernu zentralari eskualdatzeko proposamenak aurkeztu zituen, egiteke zeuden negoziazio-prozesuak behartzeko.** Orain arte, zazpi proposamen hauek bidali dira: meteorologia, itsas salbamendua, zinematografia babesteko funtsa, itsasertzaren antolamendua eta kudeaketa, immigrazioaren aurreko lan-baimenak, makinaren egiaztapena eta atzerriko unibertsitateko titulazioa eta ikasketak. (2023/06/21)

## EUSKADI-BASQUE COUNTRY

1. **Europako Eskualdeetako Lantaldeak 2022ko ekainaren 29an egindako osoko bilkuran, barne-erreforma urgenterako dokumentu bat aurkeztu zen**, organismo horretan hartzen diren erabakietan legegintza-eskumenak dituzten eskualdeei pisu kualitatibo handiagoa emateko.
2. 2022ko maiatzaren 24an, **Europako Arku Atlantikoaren Batzordean, lehendakariak «Euskadi Europaren etorkizunari buruzko konferentzian» dokumentua aurkeztu zuen.** Dokumentu horretan, **Europar Batasunari bermeak eskatzen zaizkio**, «estatu kideetako eta haien komunitate politikoetako erakunde parlamentarioen artean lortutako akordioak errespetatzen direla bermatzeko mekanismoak ezar ditzan, subiranotasun-estatusari buruz erabakitzeke borondatea gauzatzeko (...), bai eta, hala badagokio, EBko kide izateari uzteko erabakia estatu kideak hartzen badu ere».
3. **2022ko urrian, Euskadiren Frantziako ordezkariak berria aurkeztu zen.** Ordezkaritza hau irekitzeak Euskadi Basque Country erakundearen kanpo-posizionamendua hobetzen laguntzen du.
4. **Euskadik proposatzen du Nazio Batuetan estatuz kanpoko gobernuek presentzia handiagoa izatea 2030 Agendaren sustapenean.** Dagokion osoko bilkuran, 2030 Agendaren maila anitzeko gobernantzaren gaia eta estatuz azpiko gobernuen eginkizuna aztertu ziren. Izan ere, eskualdeetako gobernuek parte-hartze eta ordezkari argiagoa izatea proposatu da, Euskadikoa bezalako gobernuen esperientzian oinarrituta, «2030 Agendaren gaitasun eraldatzailea hobetzen eta zabaltzen lagundu dezakeelako». (2022-02-02)
5. **Lehendakariak eta Japoniako enbaxadoreak Euskadi Japonia 2023 aurkeztu dute. Ekimen horren helburua da lankidetzaren indartzea eta Euskadi Basque Country Niponian sustatzea, Euskadi Basque Country 2025 Estrategian lehentasunezko zatitza den herrialdean.** Euskadik Euskadiko Nazioarteko Agentziaren enpresa- eta merkataritza-bulego bat du Tokion. Horri esker, euskal enpresek herrialde horretan eta Asia-Pazifiko eremuan negozio-aukerak aurkitzeko aukera izango dute. (2023/01/17). 2023ko urrian, lehendakariak bisita ofiziala egin zuen Japoniara.



6. **Eskualdeetako Batzorde Europarraren osoko bilkuran parte hartzea, Bruselan.** Euskadi bat dator 2030 Agendak proposatzen dituen filosofiarekin eta metodologiarekin, "ibilbide-orri bat baita garapen-eredu berri baterantz aurrera egiteko, bateragarri egingo dituen uztarezinak diruditen 3 dimentsio: hazkunde ekonomikoa, gizarteratzea eta ingurumenaren babesa". (2023/02/08)
7. **Euskadik, Galiziak, Asturiasek eta Kantabriak Ardatz Atlantikoa bultzatzea proposatzen dute, eta, horretarako, Makroeskualde Atlantikoa sortu dute.** Eskualde atlantikoa artikulatu, kohesionatu eta ikusgarri egingo duen eta gobernu-maila guztiek parte hartuko duten lan- eta topaketa-foroa. Agenda komunak, besteak beste, honako gai hauek biltzen ditu: trenbide-sarea, hidrogenoaren korridorea, klima-aldaketari emandako erantzuna eta espezializazio adimendunaren aldeko apustua. (2023/03/14)  
Lehendakaria Frantziako eta Portugaleko enbaxadoreekin bildu da, Makroeskualde atlantikoa eratzeko eta abiadura handiko konexioak arintzeko beharra azaltzeko. (2023/04/12). Euskadi Arku Atlantikoko Batzordearen Batzarreko buru da. Batzar horretan, Europari Makroeskualde Atlantikoari abala eskatzen zaio. Era berean, lehentasunak eta gobernantza-eredua zehaztu dira. (2023/05/23)
8. **Lehendakaria eta Nouvelle Akitaniako lehendakaria Europako Garraio Komisarioarekin bildu dira, Atlantikoko trenbide-korridorearen egoerari heltzeko eta haren gauzatzea bultzatzeko, 2030ean garaiz eta behar bezala osatuta egon dadin,** Europako araudian horri buruz jasotzen den moduan. (2023/07/19)
9. **"Ekialde Hurbileko eta Erdiko gatazkaren ondorio humanitario eta sozioekonomikoen Jarraipenerako Sailarteko Mahaia" sortu da.** Egoera larria denez eta zalantzak daudenez gatazkaren bilakaerari buruz edo eskualdean edo nazioartean izan dezakeen hedapenari buruz, Eusko Jaurlaritzak beharrezkotzat jotzen du gertakarien jarraipena, aurrea hartzea eta balorazioa egiteko esparru hori aktibatzea. (2023/10/17)

## TRANSIZIO SOZIALA ETA 2030 AGENDA

1. 2022ko uztailaren 12ko **Gobernu Kontseiluan onartu zen Euskadin Tokiko 2030 Agenda eta tokiko ekintza jasangarria sustatzeko Adierazpen Instituzionala.**
2. 2022ko urriaren 31n, **Nazio Batuen 2030 Tokiko Koalizioaren Idazkaritza irekitzeko ekitaldia egin zen.** Ekitaldi horren arabera, Euskadi maila anitzeko gobernantzarako eta lankidetzeta publiko-pribaturako **munduko erreferentzia-puntu** bat da, 2030 Agenda toki-eremuan eraginkortasunez ezartzeko.
3. **Euskadi 2030 Agenda Foroaren V. Osoko Bilkuraren adierazpena: 2030 Euskadi Agenda Foroan, EAEko erakunde eta entitate guztiei eskatu zitzaizen GJHekiko konpromisoa hartzeko.** Multilateralismoaren alde egiten da, eta Nazio Batuen indartzearen alde, herrialdeen arteko desberdintasunak konpontzeko eta haien ebazpenak errespetatzeko gune gisa. Era berean, 2030 Agendako Garapen Jasangarrirako Helburuak nazioartean eta tokian-tokian betetzea bultzatzen da. Premia globalak, tokiko ekarpena eta konpromiso pertsonala koherentziaren balioak lotu behar dituen hiru dimentsio dira. (2023/10/25)
4. **Nazio Batuen 2030 Tokiko Koalizioaren Idazkaritzaren egoitza orokorra Bilbon irekitzeko behin betiko hitzarmena formalizatzea.** (2023/11/03)

The background is a solid green color. In the center, there is a large, white, stylized number '6'. Behind the number, there is a faint, light green outline of a handshake. To the right of the number, there are several overlapping, semi-transparent green shapes that resemble stylized arrows or abstract geometric forms pointing upwards and to the right.

# 6

I. ERANSKINA.  
HERRIAREN 10 HELBURUEN  
BETETZE-MAILAREN  
XEKETASUNAK



# 1. HELBURUA: LANGABEZIA % 10ETIK BEHERA JAISTEA

## > ENPLEGUAREKIKO HELBURUAK

- ✓ Lehentasun bat: enplegua.
- ✓ ETEak eta autonomoak laguntzea.
- ✓ Ekintzailtza bultzatzea eta tokiko garapen ekonomikoa sustatzea.
- ✓ Gazteen enplegua sustatzea.
- ✓ Enpleguari lotutako prestakuntza-programak areagotzea.
- ✓ Laneratzea sustatzea eta enpleguaren kalitatea hobetzea.
- ✓ Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak garatzea.
- ✓ Lan-iruzurraren aurka borrokatzea eta lan-ikuskapenak indartzea.
- ✓ 2022-2026 aldirako Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategia abian jartzea.
- ✓ Etxebizitzen eta ekipamendu publikoen birgaitzea sustatzea, enplegua sortzeko intentsiboa delako.
- ✓ Iraupen luzeko langabeentzako eta enplegu-arazo handienak dituzten kolektiboentzako programa espezifikoak, genero-ikuspegia barne.

## >LEGEGINTZALDIKO JARDUERAK ETA ERANTZUNAK

- ✓ 2020ko azaroaren 3an **“Berpiztu” Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko Sailarteko Esparru Programa onartu zen.** Berpiztu Programak, enpleguari buruzko II. Ardatzean, 1.615 M €-ko zuzkidura dauka eta 130.520 lanpostu sortzea aurreikusten du 2024ra arte. Ondoren aurkezten diren datuetan oinarrituta, ondoriozta daiteke 2024ko ekitaldian programaren hasierako aurreikuspenak neurri handi batean bete direla.

BERPIZTU PROGRAMA (*)	AURREK. 2020-2024 (M €)	ENPLEGUAK 2020-2024	ENPLEGUAK 2020	ENPLEGUAK 2021	ENPLEGUAK 2022	ENPLEGUAK 2023 (aurrerapena)	AURRERAPEN GLOBAL METATUA 2020-2023
1. Ekintzailletza. Enpresa berriak.	128	10.790	1.674	2.353	2.657	3.269	9.953
2. Enplegurako prestakuntza.	342	42.100	3.967	12.145	17.892	18.425	52.429
3. Laneratzea. Eskualdeko eta tokiko enplegu-planak.	577	26.110	4.970	6.371	4.689	5.469	21.499
4. Programa Renove. Birgaitzea / Eraikuntza.	406	15.000	3.225	3.079	3.475	4.339	14.118
5. Lan-eskaintza publikoak. (**)		10.720	2.538	3.988	8.764	500	15.790
6. Gazte enplegurako Talka Plana. (*)	162	25.800	2.519	5.605	6.291	6.529	20.944
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.615</b>	<b>130.520</b>	<b>18.893</b>	<b>33.541</b>	<b>43.858</b>	<b>38.531</b>	<b>134.733</b>

(\*) *Berpiztu Programaren Kontseilu Errektoreak 2023/03/22ko bilkuran onartutako datuen arabera.*

(\*\*) *Ez da kontuan hartzen aurrekontu-ondorioetarako. Urtero onartzen diren lan-eskaintza publikoetako plazak sartzen dira.*

GAZTEEN ENPLEGURAKO TALKA-PLANA BERPIZTU PROGRAMA (*)	AURREK. 2020-2024 (M €)	ENPLEGUAK 2020-2024	ENPLEGUAK 2020	ENPLEGUAK 2021	ENPLEGUAK 2022	ENPLEGUAK x2023 (aurrerapena)	AURRERAPEN GLOBAL METATUA 2020-2023
Enplegurako prestakuntza duala	-	11.900	1.205	1.934	2.183	3.034	8.356
Hezkuntza-mundutik lan-mundura igarotzeko programak	14	3.280	465	736	710	660	2.571
Gazteen enplegurako prestakuntza-bekak	42	1.936	37	523	457	419	1.436
Gazteak gizarteratzeko prestakuntza	18	2.728	217	915	778	960	2.870
Gazteen enplegurako programak	65	4.150	365	1.037	1.810	1.087	5.019
Gazteen ekintzailletza	23	1.716	229	460	353	368	1.410
<b>GUZTIRA</b>	<b>162</b>	<b>25.800</b>	<b>2.519</b>	<b>5.605</b>	<b>6.291</b>	<b>6.528</b>	<b>21.662</b>


(\*) *Berpiztu Programaren Kontseilu Errektoreak 2023/03/28ko bilkuran onartutako datuen arabera.*

- ✓ Berpiztu Programaren esparruan, **lehentasunezko jarduera eremuei bultzada emateko (eskualde baztertuak) plan berezi bat jarri da abian (180 M €)**. Proiektu traktore batzuk dinamizatu nahi dira **Ezkerraldea-Meatzaldean, Enkarterrin, Oarsoaldean eta Aiaraldean**. Aparteko inbertsio hori helburu berberetarako edo antzekoetarako ezarritako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretako zuzkiduren osagarria izango da. 2023. urtean **Debabarrenan lehentasunez jarduteko plana** diseinu eta elaborazio fasean dago.

- ✓ **2030ko Enpleguaren Euskal Estrategia onartu da.** Estrategia horrek epe ertain edo luzera, kalitatera, gizarteratzera eta berdintasunera bideratutako enplegu-politiketan etapa berri bat ireki nahi du, eta prestakuntzarako eta aktibaziorako eskubide subjektiboaren aitortpenari heltzen dio, enplegua Euskadiren aurrerapenerako eta gizarte-kohesiorako baliagarria izan dadin.
- ✓ **250 M €-ko Inbertsioen Ezohiko Programa onartu da.**
- ✓ **Lanbide: 2022-2026 Plan Estrategikoa onartzea,** Lanbideren misioa, ikuspegia, helburuak, ardatzak eta ildo estrategikoak zehazten dituen dokumentua. Horiek guztiak hogeita hamar proiekturen bidez egituratuko dira 2026ra arte.
- ✓ **2022-2026** aldirako **II. Unibertsitate-Enpresa Estrategia** abiarazi da.
- ✓ **Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategia** gauzatzen ari da.
- ✓ 2022ko maiatzaren 24ko Gobernu Kontseiluan, **2022. urterako 8.764 plazako lan-eskaintza publikoa onartu zen.** Plaza hauek modu honetara banatu ziren: Administrazio Orokorra (1.686), Hezkuntza (3.040), Segurtasuneko Administrazioa (315) eta Osakidetza (3.723). Une honetan hautapen prozesu guztiak abian daude; eta horietako baten bat, bere azken fasean.
- ✓ **2022ko apirilaren 12ko Gobernu Kontseiluan 2021-2024** aldirako Enplegu Plan Estrategikoa onartu zen, zeinaren bidez pandemiaren ostean Euskadi sozioekonomikoki bultzatzen lagundu nahi baita, horretarako, hiru trantsizioak ezarriz, alegia, digitala, energetiko-klimatikoa eta demografikoa, horretaz gain, kalitatezko enplegu inklusiboa sustatu nahi du, kontratu sozial berri baterako.
- ✓ **“Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berrien programa. Ekintzailtza eta mikroenpresak” izeneko dirulaguntza programa,** EBko NextGeneration EU delakoak finantzatuta, STEPren barruan.
  - 2022ko deialdia (15.307.013 €).
- ✓ **“Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berrien programa. Kolektibo kalteberak” izeneko dirulaguntza programak,** Europar Batasuneko NextGeneration delakoak finantzatutako Suspertze, Transformazio eta Errisilientzia planaren barruan.
  - 2022ko deialdia (18.879.757 €)
  - **2023ko deialdia (12.000.000 €)**
- ✓ **Euskadiko Lan Ikuskaritzaren Kudeaketa Plana (2022-2024) abian jartzea (2022-06-25).**
- ✓ 2022an **% 21 jaitsi da laneko ezbehar-kopurua Euskadin;** eta % 20 in itinere istripuen kasuan. Lanaldietako intzidentzia 214 istripukoa da 100.000 biztanleko (estatuko txikienen artean hirugarrena), urte arteko murrizketa % 21ekoa da eta 25 istripukoa. (Adecco txostena) (2023/01/19)
- ✓ 2022an **Lan Ikuskaritzak 8.760 kontratu mugagabe bihurtu zituen** Euskadin. 25.948 kontratu berrikusi zituen, 14.559 kontratazioko iruzurraren aurkako ohiko jardueraren ondorioz, eta beste 11.389 talka-planaren esparruan. Horietatik 8.760 kontratu mugagabe eta lanaldi osoko bihurtu ziren, 3.027 jarduera arruntagatik eta 5.733 talka-planean. (2023/02/06)
- ✓ Otsailaren 14ko **20/2023 Dekretua,** Euskal Autonomia Erkidegoko **lan-hitzarmen eta -akordio kolektiboen erregistroa eta gordailua arautzen dituen** Dekretua aldatzen duena. Helburua da Enpresen Berdintasun Planen Erregistroa sartzeari Euskal Autonomia Erkidegoko lan-agintaritzaren mendeko lan-hitzarmen eta -akordio kolektiboen Erregistroan, eta denboraren poderioz zaharkituta geratu diren arau-erreferentziak eguneratzea. (2023/02/14)
- ✓ **Abenduaren 21eko 15/2023 Legea, Enpleguari buruzkoa, Euskadiko politika publiko guztietan lan duinaren irizpidea sartzera behartzen duena.** Lan-orientaziorako eta -aktibaziorako eskubide subjektibo gisa sartzeko leihatila eta lan-historia bakarra, gobernantza partekatua eta udalen funtsezko zeregina.

- ✓ **Euskadiko Elkarrizketa Sozialerako Mahaiaren bilera** Elkarrizketa soziala bizikidetzarako eta aberastasunaren banaketa orekaturako funtsezko pieza gisa babestea berriaz berretsi ondoren, **talde berri bat sortzea erabaki da, erronka demografikoak enpleguan duen eragina aztertzeko, gazteen enpleguari buruzko itun baten oinarriak** finkatzeko, **45 edo 50 urtetik gorakoak kontratatzeko** programa berri bat bultzatzeko, eta zainketen aldeko itun sozial baten oinarriak onartzeko. (2023/04/19)
- ✓ Lanik gabe daudenen eta 30.000 biztanletik beherako herrietan bizi direnen gaitasun digitalak hobetzeko prestakuntza finantzatzeko laguntza-programa, parte-hartzaile guztietatik % 65 emakumeak izanik.
  - 2022ko deialdia (4.200.000 €) (2022/12/20)
  - **2023ko deialdia (4.553.605 €) (2023/07/26)**
- ✓ **“Lehen esperientzia profesionala Administrazio Publikoetan programa”**, EBko Nextgeneration EUk finantzaturako STEPren esparruan. 16 eta 30 urte bitarteko gazteei administrazio publikoetan eta sektore publikoko erakundeetan lehen esperientzia profesionala emateko programa.
  - 2022ko deialdia (7.516.326 €) (07/12/2021)
  - **2023ko deialdia (13.700.000 €) (19/09/2023)**
- ✓ **Enpleguaren kalitatearen indizea:** duela gutxi argitaratutako *“La calidad del empleo en España y sus Comunidades Autónomas”* monografian jasotako datuen arabera, enpleguaren kalitaterik onena Euskadiri, Madril, Kataluniari, Nafarroari eta Errioxari dagokie, guztiak ere estatuko batez bestekoaren gainetik. Horren arabera, Kanarietan eta penintsulako hegoaldeko eskualdeetan izango litzateke egoerarik txarrena. Alderik handiena Euskadiren (107,4) eta Extremaduraren (98,8) artekoa da (Ivle eta Areces Fundazioa).

#### b. Comunidades autónomas. 2007 y 2022 (índice: España 2007=100)



- ✓ Pandemiarekin hasitako krisiaren ondorioz langabeziak gora egin ondoren, 2022an behera egin zuen, 2019tik behera. Enpleguarekiko gogobetetasuna egonkor mantendu da azken urteotan, eta generoko soldata-arraiak beheranzko joerarekin jarraitzen du. (2023ko Euskadiko Lehiakortasun Txostena, Orkestra)
- ✓ Biztanleria Aktiboaren Inkestaren azken datuen arabera (2024ko urtarrilaren 26a), Euskadik 2023ko ekitaldia % 6,33ko (4.H) langabezia-tasarekin ixten du, Estatuko txikiena (EIN).

## > EMAITZAK

### LANGABEZIA % 10ETIK BEHERA DAGO

LANGABEZIAREN BILAKERA (*)											
	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Euskadi	15,1	16,1	15,7	13,8	11,6	10,5	9,8	10,6	10,0	8,5	7,6

(\*) Dato: promedio anual de los 4 trimestres.

Último dato 4º trimestre 2023: 7,0 %.

Fuente: PRA Eustat.

### 2023KO ABENDUAN 1. 012.947 PERTSONA ZEUDEN AFILIATUTA GIZARTE SEGURANTZAN, SERIE HISTORIKO OSOKO HILEKO ERREKORRA IZANIK.

GSko AFILIAZIOAREN BILAKERA (*)											
	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Euskadi	875,2	887,2	908,0	925,3	944,0	962,1	980,6	959,1	980,0	994,1	1.012,9

\* Urteroko abenduko datuak. Iturria: Gizarte Segurantza eta Gizarteratze Ministerioa.

### GAZTEEN ENPLEGUA

- ✓ Helburua da gazteen langabezia-tasa % 10etik behera jaitea (2023/09/14ko politika orokorreko eztabaidaren ondoren hitzemandakoa).
- ✓ Aurreko 12 hilabeteetan LHko ikasketak amaitu zituzten pertsonen okupazio-tasa % 83,2koa izan zen 2021ean (eskuragarri dauden azken datuak).
- ✓ Gazteen langabezia-tasa (16-29 urte) % 29,5ekoa zen 2014an, eta % 10,8koa da 2023ko 4. hiruilekoan, BJAREN (Eustat) datuen arabera, hau da, erdia baino gehiago murriztu da.
- ✓ 2022an, 122.700 gazte zeuden okupatuta; 2020an baino 18.000 gazte gehiago (104.700).



## 2. HELBURUA:

# BARNE PRODUKTU GORDINAREN % 40 GAINDITZEA INDUSTRIAN ETA ZERBITZU AURRERATUETAN

## > INDUSTRIAREKIKO ETA GARAPEN EKONOMIKOAREKIKO KONPROMISOA

- ✓ Industria eta zerbitzu aurreratuen aldeko apustu irmoa, euskal ekonomiaren motore gisa.
- ✓ Aurreikuspenen arabera, 2020-2024 aldian, 1.000 milioi euro baino gehiago bideratuko dira teknologia- eta industria-ikerketara, Euskadin errotuta dagoen 4.0 industria bultzatzeko (ZTBP).
- ✓ Industriari lotutako enpresa eta zerbitzu berriak garatzea.
- ✓ Euskal ETE-en lehiakortasuna hobetzea, berrikuntza teknologikoa eta digitalizazioa sartzea erraztuz eta berrikuntza ez-teknologikoa indartuz.
- ✓ Industria-jarduera Euskadin errotzea erraztuko duten industria-proiektu estrategikoen garapena bultzatzea eta enpresa-proiektu berriak erakartzea.
- ✓ Adimen artifizialeko estrategia bat egitea eta Basque Artificial Intelligence Center abian jartzea.
- ✓ Fabrikazio aurreratuko bi zentro publiko berri irekitzea

## > LEGEGINTZALDIKO JARDUERAK ETA ERANTZUNAK

- ✓ Eusko Legebiltzarrean 2021/11/16an aurkeztutako Industria Garapen eta Nazioartekotze Plana gauzatzen ari da.
- ✓ Abian da 2024ko Erakunde arteko Ekintzailtza Plana (2021/04/27an onartua), eta zuzeneko inbertsioa aurreikusten du: 259 milioi euro eta 130 milioi euro gehiago ekintzailtza-prozesuaren etapa guztietarako.
- ✓ **Euskadiko Eraldaketa Digitalerako Estrategia 2025 (1.400 M €) gauzatzen ari da.**
- ✓ **Euskadiko Parke Teknologikoen Sarearen 2021-2024 Plan Estrategikoa gauzatzen ari da.**
- ✓ **Ezkerraldea-Meatzaldea Parke Teknologikoa garatzea eta Energy Intelligence Center martxan jartzea.**
- ✓ **BAIC sortzea.** Eusko Jaurlaritzak baimena ematen du "Adimen Artifizialaren Euskal Zentroa Elkarte" - EUSKO BAIC - Asociación Vasco de Inteligencia Artificial" elkarte eratzeko. **17 erakundek eratu dute BAIC elkarte.**

- ✓ **Basque Volt proiektua** (2023/06/19), **Zamudioko teknologia-parkean** belaunaldi berriko egoera solidoko baterien gelaxkak fabrikatzeko. Egoera sendoko gelaxkak egiten dituen Europako lehen giga lantegia izango da; **700 milioi euroko inbertsioa eta zuzeneko 800 lanpostu baino gehiago** egitea aurreikusten da. Lehen ekoizpen-lerroa 2025erako aurreikusita dago, fabrikazio normalizatuarekin hasi eta bi urtera. **Basquevolt EBko funtsetatik 15 milioi euro esleitu dira bateria-fabriketarako** (2023/09/15).
- ✓ Legegintzaldian zehar, Eusko Jaurlaritzak 2021, 2022, 2023 eta 2024ko ekitaldiei dagozkien ETE-entzako Laguntza Planak onartu eta inplementatu ditu. Plan horiek hainbat dirulaguntza programa jasotzen dituzte.
  - **Gauzatu-Industria programa, teknologia-oinarriko ETEak eta/edo berritzaileak sortzea eta garatzea sustatzeko, laguntza itzulgarrien bidez.**
    - 2021eko deialdia (28 M €)
    - 2022ko deialdia (28 M €)
    - **2023ko deialdia (28 M €)**
    - **2024ko deialdia (28 M €)**
  - **Renove 4.0 Industria Programa, 4.0 Industriako eta Fabrikazio Aurreratuko proiektuak ezartzeko makineria edota ekipamendu aurreratua erosten laguntzeko.**
    - 2021eko deialdia (5 M €)
    - 2022ko deialdia (8 M €)
    - **2023ko deialdia (8 M €)**
  - **Bilakatu COVID-19 Programa, euskal industria sarea indartzeko helburua duena.**
    - 2021eko deialdia (44 M €)
    - 2022ko deialdia (52 M €)
  - **Innobideak laguntza programa.**
    - 2021eko deialdia (3,55 M €)
    - 2022ko deialdia (3,25 M €)
    - 2023ko deialdia (2,94 M €)
  - **Industria Digitala programa, euskal industria digitalizatzen laguntzeko, EIKTak industria- eta zerbitzu-enpresetan txertatuz.**
    - 2021eko deialdia (6,1 M €)
    - 2022ko deialdia (6,1 M €)
    - **2023ko deialdia (6,1 M €)**
  - **Hazinnova programa, euskal enpresaren berrikuntza ez-teknologikoa sustatzera bideratutako gauzako laguntzak, inpaktu handiko produktu eta negozio-prozesuetan berrikuntza txikiak sortzen dituzten mikroproiektuak eginez, konpainietan epe motzera emaitzak nabaritzera bideratuta.**
    - 2021eko deialdia (2,3 M €)
    - 2022ko deialdia (2,7 M €)
    - **2023ko deialdia (2,7 M €)**

- **Basque Industry 4.0 programa**, teknologiaren transferentziari heltzen dioten industria-ikerketako eta garapen esperimentaleko proiektuei laguntzea helburu duena.
  - 2021eko deialdia (2,3 M €)
  - **2022ko deialdia (1,4 M €)**
- **Basque Digital Innovation Hub laguntza-programa. Konexioa, ETE-ek digitalizazioarekin eta iraunkortasunarekin lotutako teknologiak erabiltzea sustatzeko.**
  - 2020ko deialdia (450.000 €)
  - 2021eko deialdia (1.000.000 €)
  - 2022ko deialdia (1.096.000 €)
  - **2023ko deialdia (1.000.000 €)**
- ✓ **BIND 4.0** delakoak azelerazio-programaren **zortzigarren deialdia ireki du. Mundu osoko 76 herrialdetako 777 startup**-ek eman dute izena BIND 4.0 ekintzailtza-programan (2023/10/01).
- ✓ **Finantzen Euskal Institutuaren bidez, Eusko Jaurlaritzak CAFen (% 3), ITP-Aeroren (% 6) eta Kaikuren (% 7,3) partaidetza du Finkatuz Funtsa gauzatzen (255,7 milioi euro).**
- ✓ **Enpresen errentagarritasunaren adierazle guztiak hobetu dira.** Unitateko lan-kostuak behera egin zuen 2021ean, eta Alemaniaren, Espainiaren eta EB-27ren azpitik kokatu zen ekonomia osoari dagokionez, eta Alemaniarekin batera (eta Espainiaren eta EB-27ren gainera) manufaktura-sektorean. Ustiapeneko soberakin gordinak gora egin zuen Euskadin 2020tik 2022ra bitartean, eta aktiboen gaineko itzulerak (ROA) zein baliabide propioen gaineko errentagarritasunak (ROE) gora egin zuten 2022an. *(Euskadiko Lehiakortasunari buruzko 2023ko txostena)*

## >EMAITZAK

### INDUSTRIA ETA ZERBITZU AURRERATUAK BARNE PRODUKTU GORDINAREN % 40,8 DIRA 2022AN

#### INDUSTRIA-SEKTOREAREN ETA ZERBITZU AURRERATUEN EHUNEKOA

EUSKADI. 2022ko EKIKTALDIA.	
Industria eta Energia	24,2 %
Zerbitzu aurreratuak	16,6 %
Industria eta Zerbitzu aurreratuak	40,8 %

*Iturria: Eustat: Euskal Autonomia Erkidegoko Barne Produktu Gordina (eskaintza)  
Eskura dagoen azken datua: 2022. urtekoa*

# 3. HELBURUA:

## I+G GASTUAN EUROPAKO BATEZ BESTEKOAREKIKO KONBERGENTZIA LORTZEA

### >I+G+B-REN ALDEKO KONPROMISOA

- ✓ Legegintzaldi osoan I+Gera bideratutako aurrekontuaren urteko % 6 hazteko konpromisoa.
- ✓ Espezializazio adimendunaren aldeko apustua, hiru trantsizioei aurre egiteko: trantsizio teknologia-digitala, energia- eta ingurumen-trantsizioa eta trantsizio sanitario-soziala.
- ✓ Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistemaren nazioartekotzea: Euskadi, berrikuntzarako leku erakargarri gisara.
- ✓ I+Geko 120 proiektu estrategiko bultzatzea eta 12 ekimen erosketa publiko berritzaileko.
- ✓ Zibersegurtasun industrialeko polo teknologiko bat garatzea Euskadin.
- ✓ Hazinova. 5.000 ETE sartzeta eraldaketa digitalean eta berrikuntzan.
- ✓ Basque Research and Technology Alliance (BRTA) izeneko erakundearen bitartez, nazioarteko talentu teknologikoa erakartzea, talentu hori euskal zentro teknologikoetan sar dadin.
- ✓ Bind 4.0 ekimena indartzea eta oinarri teknologikoa eta izaera berritzailea duten enpresa berriak sortzen laguntzeko azpiegiturak eta zerbitzuak hobetzea.

### >LEGEGINTZALDIKO JARDUERAK ETA ERANTZUNAK

- ✓ **2030eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana (ZTBP) gauzatzen ari da**
- ✓ **2021erako eta 2022rako urte arteko % 9,7ko igoera; eta 2023rako, urte arteko % 12koa, ikerketa eta berrikuntzako inbertsio publikoan.** Konpromiso honek 2020-2023 laurtekoan, guztira, I+G+Bra 2.270,7 milioi euro bideratzea esan nahi du.

AURREKONTUA	ZENBATEKOA	IGOERA
2020	488,6 M€	+5,9 %
2021	535,8 M€	+9,7 %
2022	587,8 M€	+9,7 %
2023	658,5 M€	+12 %
<b>GUZTIRA 2020-2023</b>	<b>2.270,7 M€</b>	<b>8,2 %</b>


- ✓ Eustaten datuen arabera, **EAEko I+Gko guztizko inbertsioa** –administrazio publikoetatik, enpresetatik eta nazioarteko iturrietatik datorren finantzaketa barne – serie **historikoaren maximora** iritsi zen 2022an, **1.795 M €-rekin**, urte horretako **BPGaren % 2,08**.
- ✓ **Zibersegurtasuneko Euskal Zentroa martxan jartzea eta Basque Artificial Intelligence Center (BAIC) sortzea.**
- ✓ Ikerbasquek 16 urte bete ditu Zientzia indartzen Euskadin, eta, gaur egun, guztira, 35 herrialdetako 345 ikertzaile ditu, hiru kategoriatan banatuta: 178 finkatu, 94 gazte bekadun eta 73 Research Associate delakoan. Hirugarren kategoria horrek aurreko biak osatzen ditu, eta ikerketa-karreraren etapa desberdinak betetzea du helburu. 2022ko ekitaldian, ikerketa-lan horrek 40 milioi euroko itzulkinak lortu zituen, hain justu ere, ikertzaileek kanpoko deialdi lehiakorretan lortu dituzten guztizko funtsei esker.
- ✓ Erreferentziako helburuarekin lotuta, **hainbat programa gauzatzen dira**, eta horien artean honako hauek nabarmenduko ditugu:
  - **BERC programa, Oinarrizko eta Bikaintasuneko Ikerketa Zentrozen kategorian akreditatutako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileen jarduera ez-ekonomikoa finantzatzeko dirulaguntzei buruzkoa.**
    - 2022-2025 deialdia (50,4 M €)
  - **Emaitak Plus 2022 I+Grako laguntza-programa, Foku Anitzeko Teknologia Zentrozen eta Ikerketa Kooperatiboko Zentrozen emaitzak eta gaitasunak hobetu eta merkaturatzeko. Horretarako, I+Gren balio-kate osoan lan egingo du, eta etorkizuneko ikuspegiekiko ezagutza berriak eskuratzera bideratuko da, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean (Euskadi, 2030) identifikatutako espezializazio-esparruetan.**
    - 2021eko deialdia (68 M €)
    - 2022ko deialdia (70 M €)
    - **2023ko deialdia (71 M €)**
  - **HAZITEK programa. Programa horren azken helburua da euskal industria indartzea, enpresetako I+Gko jardueren bidez, euskal produkzio-sarearen lehiakortasun globalari modu erabakigarrian lagunduz eta eragin ekonomiko esanguratsua izan dezaketen emaitzak sortuz, Euskal Autonomia Erkidegorako estrategikoak diren espezializazio-eremuetan eta merkatutik hurbilen dauden I+Gko faseetan arreta jarrita.**
    - 2021eko deialdia (96.300.000 €)
    - 2022ko deialdia (95.000.000 €)
    - **2023ko deialdia (93.428.572 €)**
  - **Elkartek programa, Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarearen barruan dauden Ikerketa, Garapen eta Berrikuntzako Erakundeek aurrera eramatekoa, elkarlanean oinarritutako ikerketa sustatzeko, zehazki, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskadiko Planean jasotako espezializazio-eremuetan.**
    - 2022ko deialdia (44,4 M€)
    - 2023ko deialdia (41 M€)
  - **Azpitek programa, Euskadin eragina duten 3 trantsizio digitalak (teknologiko-digitala, energetiko-klimatikoa eta sozial-sanitarioa) aurrera eramateko azpiegitura zientifiko-teknologiko bikainak babesteko.**
    - 2021eko deialdia (12.188.631 €)
    - 2022ko deialdia (13.835.000 €)
    - **2023ko deialdia (6.714.286 €)**

- **Ikerketan bikaintasuna sustatzeko laguntza-programa.**
  - 2022-2025 deialdia (42 M €)
- **Osasun-arloko ikerketa- eta garapen-proiektuetarako laguntza-programa.**
  - 2021eko deialdia (5.650.000 €)
  - 2022ko deialdia (6.192.000 €)
  - **2023ko deialdia (6.000.000 €)**
- **“Doktore ez diren ikertzaileak” prestatzeko doktoratu aurreko programa, doktore-tesiak egiteko.**
  - 2021-2022 ikasturteko deialdia (9,0 M €)
  - 2022-2023 ikasturteko deialdia (9,9 M €)
  - **2023-2024 ikasturteko deialdia (12,9 M €)**
- **“Ikertzaile doktoreak” prestatzeko doktoratu ondoko programa, EAEko ezarpen-zentroetan ikertzaile doktoreak hobetzeko eta aldi baterako atzerrira mugitzeko.**
  - 2021-2022 ikasturteko deialdia (2,8 M €)
  - **2022-2023 ikasturteko deialdia (3,8 M €)**
- **Bikaintek laguntza-programa, I+G proiektuak garatzeko, doktore-titulua duten ikertzaileak kontratatuz eta Euskal Autonomia Erkidegoan industria-doktoretzak eginez.**
  - 2021eko deialdia (5,7 M €)
  - 2022ko deialdia (5,7 M €)
  - **2023ko deialdia (5,7 M €)**
- **“Industria Digitala” programa, euskal industria digitalizatzen laguntzeko, EIKTak industria-enpresetan eta horiei lotutako zerbitzu-enpresetan txertatuz.**
  - 2021eko deialdia (6,1M €)
  - 2022ko deialdia (6,1 M €)
  - **2023ko deialdia (6,1 M €)**
- **«Hazinnova» programa, euskal enpresaren berrikuntza ez-teknologikoa sustatzera bideratutako gauzazko laguntzak, negozioetako produktu eta negozioetan eragin handiko berrikuntza txikiak eragiten dituzten eta konpainietan epe laburrera emaitzetan gauzatzen diren mikroproiektuak sortzeko.**
  - 2021eko deialdia (2,3 M €)
  - 2022ko deialdia (2,8 M €)
  - **2023ko deialdia (2,7 M €)**
- **Gauzatu-Industria programa, teknologia-oinarriko ETEak eta/edo berritzaileak sustatzen dituen, Euskadiko garapen teknologikoan eta berrikuntzan duten eragina handitzeko eta, beraz, ehun ekonomikoaren produktibitatea hobetzeko.**
  - 2021eko deialdia (28 M €)
  - 2022ko deialdia (28 M €)
  - **2023ko deialdia (28 M €)**

- «Basque Industry 4.0.» programa, teknologia-transferentziari heltzen dioten industria-ikerketako eta garapen esperimentaleko proiektuak laguntzeko.
  - 2021eko deialdia (2,3 M €)
  - 2022ko deialdia (1,4 M €)
- **Basque Digital Innovation Hub Konexioren laguntza-programa, ETE-ek digitalizazioari eta iraunkortasunari lotutako teknologiak erabiltzea sustatzeko.**
  - 2020ko deialdia (450.000 €)
  - 2021eko deialdia (1.000.000 €)
  - 2022ko deialdia (1.096.000 €)
  - **2023ko deialdia (992.360 €)**
- **Innobideak laguntza-programa, erakundeetan berrikuntzaren kudeaketa eta sistematizazioa sendotzen laguntzen duten berrikuntza-proiektuak egiten laguntzeko, horrela, EAEko enpresa berritzaileen oinarria handitzeko.**
  - 2021eko deialdia (3,55 M €)
  - 2022ko deialdia (3,25 M €)
  - **2023ko deialdia (2,94 M €)**
- **Ikertalent programa. Nekazaritza-, arrantza- eta elikagaigintza-sektoreko zientzia-, teknologia- eta enpresa-arloan ikertzaileak eta teknologoak prestatzeko laguntza-programa.**
  - 2021eko deialdia (1,8 M €)
  - 2022ko deialdia (1,8 M €)
- ✓ **IKUR lankidetzaren bikaintasuneko ikerketarekin lotutako hainbat ekimen babesteko dirulaguntzak** ematen dira, ekimen horiek Euskadiko ikerketa-zentroetan Neurozientzien, Teknologia Kuantikoen, Neutronikaren, Superkonputazioaren eta Adimen Artifizialaren arloetan garatzen ari dira **(14,5 M €)**. (2022/12/20)
- ✓ **Fundación Ikerbasque / Ikerbasque Fundazioari dirulaguntza zuzena ematen zaio**, Basque Nanoneuro Network (B3N) 2022-2025 sarea garatu eta bultzatzeko (4,1 M €).
- ✓ **Euskadik I+Gn 1.800 milioi inguruko errekorra inbertitu zuen 2022an**. Bere Barne Produktu Gordinaren % 2 baino gehiago bideratzen duen lurralde bakarra da (atzetik ditu Madril, Nafarroa eta Katalunia), Espainiako batez bestekoa gainditzen du (% 1,43), eta eurogunetik gertu geratzen da (% 2,27).
- ✓ **Ikertzaileen kopuruak ere abangoardian jartzen du Euskadi, Madril, Nafarroa eta Kataluniaren aurretik**. 2021ean gainditu zen lehen aldiz 22.000 ikertzailearen kopurua. 2020arekin alderatuta, % 4ko igoera dakar, eta biztanleriaren % 2 baino gehiago I+Gn aritzen da «lanaldi osoan edo partzialen». (Zientziari buruzko txostena Euskadin 2023) (2023/11/15)
- ✓ **Euskadi lider bihurtu da Europako funtsaren per capita itzuleran, 240 milioi € erakarri baititu 2021etik 2022ra, horiek azken urteetan lortutako 1.640 milioi euroei gehitu behar zaizkie**. Diru hori ez da lurralde-kuota baten parte, lehiaketa lehiakorretan hautatutako ikerketen kalitatearen emaitza baizik, eta Europar Batasun osoko milaka proiektu parte hartu dute horietan (2023/11/15). (Zientziari buruzko txostena Euskadin 2023)
- ✓ **Euskal berrikuntza-sistemaren osasun ona Regional Innovation Scoreboarden posizioen igoeran islatzen da**. Hala ere, ETE-etan berrikuntzaren erronkak bere horretan jarraitzen du; izan ere, jarduera berritzailea duten ETE-en ehunekoak apur bat igo den arren, kopuru hori pandemiaren aurreko mailen azpitik dago oraindik, eta EB-27rekiko eta Alemaniarekiko arrakala handia da oraindik. Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko jarduera ekintzaileen tasa nahiko egonkor mantendu da azken urteotan, Espainiakoa baino zertxobait beherago eta Alemaniakoa baino dezente beherago. (Euskadiko lehiakortasunari buruzko 2023ko txostena. Orkestra)

## > EMAITZAK


### BPGREKIKO I+GKO GASTUAREN EUROPAREKIKO KONBERGENTZIA MAILA, AUTONOMIA ERKIDEGOKA (2021)



Iturria: Geuk egindakoa, Erostat-eko datuen gainean (2023/12/06)



## EUSKADIK BERE LEKUA FINKATU DU EUROPAKO BERRIKUNTZA ALTUKO HERRIALDEEN ARTEAN



Iturria: Regional Innovation Scoreboard. Eskualde berrikuntzaren adierazleen taula (2023)

## 4. HELBURUA:

# EUSKADI DESBERDINTASUN SOZIAL GUTXIEN DUTEN EUROPAKO 5 HERRIALDEEN ARTEAN KOKATZEA (GINI INDIZEA)

## >DESBERDINTASUN SOZIALA TXIKITZEKO KONPROMISOAK

- ✓ Egoera ahulean dauden pertsoneri laguntza ematen jarraitzea, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DBE), Gizarte Larrialdietarako Laguntzen (GLL) eta Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarriaren programek ematen duten elkartasun kolektiboaren bidez.
- ✓ Kalteberatasun bereziko egoerei arreta jartzea: babesgabezia, etxerik gabeko pertsonak, energia-pobrezia, pertsona kalteberak, haur-pobrezia...
- ✓ Migratzaileen harrera eta integrazioa.

## >LEGEGINTZALDIKO JARDUERAK ETA ERANTZUNAK


- ✓ **Gizarte-gastuaren aurrekontua**, oro har (osasuna, hezkuntza eta gizarte-babesa), handitu egin da azken bosturtekoan, 2017-2022 aldian: 921 M € ( % 13,7); 2017an 6.725 M € izatetik, 2022ko aurrekontuan 7.646 M € izatera igaro da.
- ✓ Joera horrek areagotzen jarraitzen du; izan ere, 2024rako aurrekontuen Legeak guztizkoaren % 76 bideratzen du (10.934,4 M €) gizarte-polituketara, eta horrek 653 M € inguruko igoera dakar aurreko urtearekin alderatuta.
- ✓ **Gizarte-babeseko gastua eurotan etengabe hazi da** erabilgarri dagoen denbora-seriean, eta biztanleko gastua 2008an 6.402 €-koa izatetik **2022an 10.346 €**-koa izatera igaro da (+%61,9).
- ✓ Era berean, Eurostatek 2021erako argitaratutako azken datuekin, erosteko ahalmenaren parekotasunean neurtuta, 10.183 €-koa izan zen, Euskadin gizarte-babeseko per capita gastua, EB-27ko batez bestekoaren (9.805 €) eta Estatuko batez bestekoaren (7.332 €) gainetik.
- ✓ **Eusko Legebiltzarrak lege hau onartu du: 14/2022 Legea, abenduaren 22koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemari buruzkoa.**

- ✓ **Plan eta estrategia hauek gauzatzen ari dira:**
  - **Familia zaintzaileei laguntzeko estrategia soziosanitarioa (2021-2030)**
  - **Etterik Gabeko Pertsonen Euskal Estrategia (2018-2021)**
  - **“Agenda Nagusi” Adinekoekiko Gobernantzaren Euskal Estrategia**
  - **Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Plana (2018-2022)**
  - **Haurren eta Nerabeen Aurkako Indarkeriaren Aurkako Euskal Estrategia (2022-2025)**
  - **Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoa**
- ✓ **Migratorako Euskal Itun Sozialaren ekintza-eremua toki-eremura zabaldu da.** Atxikimendu kanpaina 2022ko abenduaren 18an amaitu zen, hain justu ere, migratzaileen nazioarteko egunean, eta orotara, Euskadiko 120 udalek sinatu zuten Ituna.
- ✓ Etorkinak hartzeko eta gizarteratzeko hainbat programa abian jarri dira: **Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. Plana** (2022-2025), Share Programa, Auzolana II babes komunitarioko programa, ikasle etorkinei laguntzeko hezkuntza-programak, Harrera Programa eta igarobidean dauden migratzaileentzako baliabide-sare berria.
- ✓ **149/2023 Dekretua, urriaren 10ekoa**, urriaren 5eko 15/2018 Errege Lege Dekretuaren bidez sortutako **gizarte-bonu termikoaren kudeaketa, ebazpena eta ordainketa** arautzen dituena (15/2018 Errege Lege Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan energia-trantsizioa egiteko eta kontsumitzaileak babesteko premiazko neurriei buruzkoa). (10/10/2023)
- ✓ **Euskadik baliabiderik gabeko pertsonentzako pisu- eta aterpe-sare handiena finkatu du.** Hamarkada batean 2.000 plaza irabazi ditu “etterik gabekoentzat” edo genero-indarkeriaren biktimentzat, eta Estatuan eskuragarri daudenen % 16 pilatu ditu. (2023/09/27)
- ✓ **Adinekoekiko 2021-2024 eperako Euskal Estrategia aurkeztu da.** Estrategia hori bizitza osoaren formulazio berri baterantz doa, zahartze aktiboaz haratago. (2023/01/20)
- ✓ **Kuvu belaunaldien arteko proiektuak nahi ez den bakardadeari aurre egiten dio, adinekoen eta gazteen arteko bizikidetzak bultzatuz.** (2023/07/05)
- ✓ **Iraganbidean dauden Migratzaileei Premiazko Arreta emateko Erakundearteko Koordinazio Mahaiaren bilera.** Bilera horretan, Gurutze Gorriak Hilanderas I auzoan igarotze-bidean dauden migratzaileei arreta emateko 2022ko jarduera-balantzea aurkeztu zuen. **2022an 6253 pertsona artatu ziren**, eta horietatik mila baino gehiago emakumeak ziren; azken horietatik, berrogeita hamar inguruk adingabeak zituzten beren ardurapean. (2023/03/15)
- ✓ **Berritzeko izapide-fasean dago Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin eta Euskadiko Udalen Elkartearekin (EUDEL) sinatutako lankidetzak-hitzarmena**, familia-etxebizitzatik botatzearen ondoriozko kalteberatasun-kasuak hautemateari buruzkoa, gizarte-izaerako neurriak hartu ahal izateko.
- ✓ **147/2023 Dekretua, urriaren 10ekoa, etxebizitza bat okupatzeko eskubide subjektiboari buruzkoa.** Etxebizitzarako Eskubide Subjektiboa (EES) aitortzeko betekizunak, baldintzak eta prozedurak arautzen ditu, eta alokairuko etxebizitza sozial bat eskuratzeko aukera ematen du, edo, halakorik ezean, horrelako kontratu bat dutenei merkatu librean errentamendu bat hileroko ordaintzea erraztuko duen prestazio ekonomiko bat. Etxebizitzaren arloko babes soziala indartu da Euskadin, eta kolektibo berriak txertatu dira etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboan.
- ✓ **Euskadiko Etxebizitzaren aldeko 2022-2036 Itun Soziala sinatu da, eta 80 erakundek baino gehiagok bat egin dute itun horrekin.** Akordioaren helburuak honako hauek dira: alokairu eskuragarriaren eskaintza publikoa handitzea 50.000 etxebizitzako parkera iritsi arte, parke osoaren % 12ra igotzea etxebizitza babestu iraunkorrak, edo hiru etxetik bat birgaitzea 2036 amaitu baino lehen.

- ✓ **Gaztelagun programako etxebizitzak alokatzeko laguntzak hobetu dira.** Laguntza jaso dezaketen pertsonen kopurua eta zenbatekoak jasotzeko denbora handitu egiten dira, hiru urteko maximoa kendu eta 36 urtera arte luzatzen baita.
- ✓ **Zaurgarritasun-egoeran dauden adingabeak eta gazteak gizarteratzeko eta laneratzeko estrategia partekatua onartu da** (*Euskarri Erakunde arteko Adierazpena*).
- ✓ **173/2023 Dekretua, azaroaren 21ekoa, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren Erregelamendua onartzen duena.** Erregelamendu horrek tresna teknikoak ezartzen ditu segurtasun juridikoa bermatzeko, prestazioa eskuratzeko erraztasuna sendotzeko, interesdun guztien berdintasuna bermatzeko eta DSBEren kudeaketan eta kontrolean eraginkortasuna eta zorrotasuna lortzeko.
- ✓ **Euskadi, Giza Garapenaren Indizea-GGI 0,936 izanik, herrialdeen sailkapeneko 14. postuan** dago. Indize hori PNUD delakoak argitaratu zuen 2022ko irailean, eta 194 herrialderen mundu mailako sailkapena ezartzen du, haien bizi-baldintzen arabera ordenatuta. Azterlanak bakoitzari GGI bat esleitzen dio (0tik 1erako eskala batean), honako hauen arabera: jaiotzako bizi-itzaropena, eskola-adinean dauden haurren eskolatze-urteak, 25 urte edo gehiagoko helduen batez besteko eskolatze-urteak eta per capita errenta nazional gordina.
- ✓ **Euskadiko etxeen unitateen batez besteko errenta erabilgarria Europako batez bestekoa baino handiagoa da,** baina pandemian zehar beste lurralde batzuetan baino gehiago okertu da. Desberdintasun-mailak gora egin du apur bat, energia-pobreziak ere gora egin duen bezala, baina pobrezia- edo bazterketa-arriskuan dauden pertsonen proportzioa apur bat jaitsi da 2022an, eta antzeko lurraldeetan txikienetakoa izaten jarraitzen du. (*Euskadiko lehiakortasun-txostena 2023, Orkestra*)
- ✓ **Mendekotasunaren arretaren eremuan,** biztanleria osoaren gaineko onuradunen ratioa kontuan hartuz gero, 2022ko ekitaldirako tasa (azken horretan ditugu datuak) **Euskal Autonomia Erkidegoan Estatu osoan baino handiagoa da,** hau da, Euskal Autonomia Erkidegoan biztanleriaren % 4,9, eta Estatuan, berriz, % 3,9. (*2022ko Memoria Sozioekonomikoa. Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea.*)

## >EMAITZAK

### 2023AN GINI INDIZEA 26,9 PUNTUAN KOKATU DA. EUSKADI 7. LEKUAN DAGO EUROPA MAILAN



ini indizeak gizarte baten desberdintasun-maila identifikatzen du: 0 maila da berdintasun handiena eta 100 desberdintasun handiena.

Iturria: Eustat, Euskadirako; Eurostat, gainerako herrialdeetarako. Eslovakiari buruzko daturik ez dago.

### EUSKADIN 2022KO POBREZIA-ARRISKUAREN TASA % 15,7 DA, EUROPAKO BATEZ BESTEKOA (% 21,6) BAINO % 5,9 PUNTU TXIKIAGOA ETA ESTATUKOA (% 26,0) BAINO 10,3 PUNTU TXIKIAGOA

#### POBREZIA-ARRISKUAREN TASA (ARPE). EB-2022 (EUROPA ESTRATEGIA 2030)

	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Euskadi	16,2	18,2	15,9	15,0	12,2	15,0	13,6	16,0	15,7
Espainia	30,2	28,7	28,8	27,5	27,3	26,2	27,0	27,8	26,0
EB-27		24,0	23,7	22,4	21,7	21,1	21,6	21,7	21,6

Iturria: INE eta Eurostat (2023/06/22)

Eskura dagoen azken datua: 2022. urtekoa

## 5. HELBURUA: EUSKADI GENERO- BERDINTASUNEAN INDIZE HANDIENA DUTEN EUROPAKO 6 HERRIALDEEN ARTEAN KOKATZEA

### >GENERO BERDINTASUNAREKIKO KONPROMISOAK

- ✓ Berdintasunerako Lege bat onartzea, indarkeria matxista prebenitzeko eta haren aurka borrokatzeko, eta berdintasunari bultzada berri bat ematea.
- ✓ Berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako itun sozial eta herritarra.
- ✓ Emakumeen laneratzea areagotzeko eta lan-baldintzak hobetzeko programak, hala nola, emakumeak sektore maskulinizatueta prestatzeko eta birkokatzeoko programa.
- ✓ Emakumeen eta gizonen arteko soldata-desberdintasuna murrizteko eta ekintzailtza eta emakumeen lidergoa bultzatzeko neurriak.
- ✓ Lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko programak. Etxeko eta zaintzako jardueretan genero-aldea murriztea, erantzunkidetasuna sustatuz.
- ✓ Balioak aldatzea eta emakumeak eta neskek ahalduntzen laguntzea.
- ✓ Emakumeen laneratzea sustatzea, autonomia ekonomikoa bermatzeko, batez ere, tradizionalki maskulinizatuta egon diren lanetan.

## >LEGEINTZALDIKO JARDUERAK ETA ERANTZUNAK


- ✓ Eusko Legebiltzarrak **lege hau onartu du: 1/2022 Legea, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzena.**
- ✓ **Plan hauek ezarri dira edo ezartzen ari dira:**
  - **EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana 2018-2022. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2030ko estrategia. (Gobernu Kontseiluan izapidetzen).**
  - **Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Jarduera Plana.**
  - **Euskadin soldata-arrakala murrizteko ekintza-plana.**
  - **Euskal Hezkuntza Sistemaren Hezkidetzarako II. Plana, Berdintasunaren eta Tratu Onaren bidean 2019-2023.**
  - **Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalan emakumeak sartzea sustatzeko plana.**
- ✓ **Kontziliazio erantzukiderako programak sustatzen dira,** etxeko eta zaintzako jardueretan genero-aldea murrizteko helburuarekin.
- ✓ **Euskal Administrazio Publikoko langileek 18 asteko guraso-baimena dute.** Eusko Jaurlaritzak diruz laguntzen du eremu pribatuko eszedentzia, 16 astera arteko guraso-baimena errazteko.
- ✓ **Euskal erakundeek Indarkeria Matxistaren Biktima diren Emakumeen Arreta Hobetzeko III. Akordioa onartu dute.** Hasiera batean 2001ean sinatu eta 2009an eguneratu zen akordioa da, eta tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei arreta ematen dieten erakundeen arteko koordinazioa du helburu, babes sanitario, polizial, judizial eta sozial integrala bermatzeko. (2022/12/20)
- ✓ **Osakidetzaren ikerketa-proiektuetan parte hartzen duten pertsonen % 66 emakumeak dira.** Osasunaren arloko ikerketan parte hartzen duten 2.703 pertsonetatik 1.803 emakumeak dira. Horiek guztiek bikaintasuneko ikerketa sanitarioa garatzen dute Euskadin, Bioaraba, Biobizkaia, Biogipuzkoa eta Biosistemak ikerketa sanitarioko institutuetan. Gainera, nabarmendu behar da gero eta emakume gehiagok hartzen dutela proiektu horien lidergoa. Zehazki, ikertzaile nagusien % 56 emakumeak dira, hau da, 453tik 252. (2023/02/10)
- ✓ 40 urteren ondoren, 1983tik ( % 14,7 emakumeak eta % 85,3 gizonak), **Ertzaintzan sartzen diren emakumeen eta gizonen arteko aldea erdira murriztu da:** promozio berrietan % 30etik gora emakumeak dira. Helburua da 2026an Ertzaintzan sartzen direnen % 40 emakumeak izatea. (2023/10/23)
- ✓ **Genero Berdintasunaren Indizearen (EIGE) epe ertain eta luzeko datuek erakusten dute bilakaera positiboa izan dela 2010etik 2019ra bitartean;** izan ere, Euskadik 68,8 puntu lortu zituen 2010ean; 69,1 2012an; 69,3 2015ean; 71,1 2017an; eta 73,1 2019an (eskuragarri dagoen azken datua). Gainera, **adierazleak hobetu dira arlo guztietan eta, bereziki, ezagutzan eta boterean,** eta botere politikoa azpimarra daiteke, 15 puntu hobetu baita, 96,7ra iritsi arte. Denboraren arloko hobekuntza, batez ere, zainketekin lotutako jardueren hobekuntzari zor zaio, 2010ean 88,7 izatetik 2019an 93,7 izatera igaro baita. Datu horiek ez dira aitzakiatzat hartu behar politika publiko horretan tematuta ez jarraitzeko, izan ere, garbi ikusten da hobetzeko gaitasun handia dagoela. (2022ko Memoria Sozioekonomikoa. Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea)

## >EMAITZAK

### EUSKADI GENERO-BERDINTASUNEAN AURRERATUEN DAUDEN EUROPAKO 7 HERRIALDEEN ARTEAN DAGO, BELGIKA, IRLANDA, HERBEHEREAK, FINLANDIA ETA ESPAINIATIK OSO GERTU

#### GENERO BERDINTASUNAREN INDIZEA


##### BILAKAERA DENBORAN



	Euskadi	Espainia	EB-28
2012	68,8	66,4	63,8
2014	69,1	67,4	65
2017	69,3	68,3	66,2
2019	71,1	70,1	67,4
2021	73,1	73,7	68

Iturria: Eustat eta EIGE (Genero Berdintasunerako Europako Institutua)





Iturria: Eustat eta EIGE (Genero berdintasunerako Europako Institutua).

Esekura dagoen azken datua: 2021. urtekoa.

**EUSKADIN, GIZONEN ETA EMAKUMEEN ARTEKO ORDUKO SOLDATA-ARRAKALA 7 PUNTU MURRIZTU DA, 2016KO % 14,3TIK 2021EKO % 7,3RA**

ADIERAZLEA	2016ko datua	2017ko datua	2018ko datua	2019ko datua	2020ko datua	2021eko datua	2016tik ALDEA
% Soldata-arraila, lanordu arrunteko (%)	14,3	12,8	11,9	9,5	8,3	7,3	-7,0
Gizonen eta emakumeen arteko aldea (€)	2,34	2,17	2,16	1,71	1,70	1,69	-1,15
Lanordu arrunteko irabazia, gizonak (€)	15,9	16,1	16,5	16,6	16,9	17,3	1,3
Emakumeen lanordu arrunteko irabazia (€)	13,6	13,9	14,4	14,9	15,2	15,6	2,4

Iturria: EIN. Soldata-egiturari buruzko urteko inkesta.

# 6A HELBURUA:

## ESKOLA UZTEAREN TASA % 7TIK BEHERA FINKATZEA

### >HEZKUNTZAREKIKO KONPROMISOAK

- ✓ Beken programa indartzea: irakaskuntza, joan-etorriak, egoitza, jantokia eta eskola-materiala.
- ✓ Irakasleei egonkortasun eta kalitate handiagoa ematea enpleguan, egiturazko bitartekotasuna 10 puntu murriztuta.
- ✓ Premia bereziak dituzten ikasleei zuzendutako langileak eta baliabideak indartzea.
- ✓ 2 eta 16 urte bitarteko hezkuntza-ibilbidea duten ikastetxe publiko integratuak finkatzen eta ezartzen lan egitea.
- ✓ Hezkuntza-sistema eraldaketa teknologikora eta digitalera egokitu dadin bultzatzea, eskola berritzaile, moderno eta sortzailea eraikitzeke helburuarekin.
- ✓ Eleaniztasunean aurrera egitea, euskara funtsezko ardatz izanik.
- ✓ Lanbide-heziketa bultzatzea, prestakuntzarekin, berrikuntzarekin, ekintzailetzarekin eta nazioartekotzearekin lotutako proiektu berrietan.

### >LEGEGINTZALDIKO JARDUERAK ETA ERANTZUNAK

- ✓ **Euskadi irakaskuntza publikoan diru gehien inbertitzen duen erkidegoa da.** Unibertsitatez kanpoko irakaskuntza publikoan, ikasle bakoitzeko gastu publikoa 10.214 €-koa izan zen 2021ean (eskuragarri dagoen azken datua); Estatuko handiena, 6.540 €-koa.
- ✓ **Ikaskuntza-adierazleen bilakaera positiboa izan da,** eta horrek beste lurralde batzuekiko aldea murrizten lagundu du, derrigorrezko titulazioa baino handiagoa duten biztanleei dagokienez, era berean, horri esker, Euskal Autonomia Erkidegoak oso ondo kokatuta jarraitzen du etengabeko ikaskuntzari erreparatuta. (Euskadiko Lehiakortasun Txostena 2023, Orkestra)
- ✓ **Hezkuntzako gastuaren finantzaketa publikoak goranzko joeran jarraitzen du:** 3.541 M €-ko guztizko gastutik, 2012an, 4.710 M €-ko gastura 2022an (behin-behineko datua), % 24,8ko portzentajezko igoera egiaztatuz.
- ✓ Euskal Hezkuntza Sistemaren Eraldaketa Digitalerako Planarekin bat etorriz, ikastetxe publikoen hezkuntza-eta kudeaketa-beharrak asetzeko **beharrezko material informatikoa hornitzeko, instalatzeko eta konfiguratzeko esparru-akordioa.** (54,4 M €) (2022/12/20)


- ✓ **Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzari buruzko Lege Proiektua onartu zuen** (2023/04/25), eta Legebiltzarrak Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzari buruzko abenduaren 21eko 17/2023 Legea onartu zuen (2023/12/21).
- ✓ Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoetan eta **Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuetan 2023-2024 ikasturterako ikasleei onarpena emateko jarraibideak** onartzen dira. (2023/01/03)
- ✓ Hezkuntza Sailaren menpeko ikastetxe publikoetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuetan **Batzilergoko ikasleei onarpena emateko jarraibideak onartzen dira. 2023-2024 ikasturtea.** 2023-2024 ikasturterako ikasleak onartzeko prozesuak ikasleen banaketa orekatuagoa sustatzearen alde egiten du.
- ✓ **Europatik datozen plan osagarrien eta Eusko Jaurlaritzak egiten dituen ekarpenen bidez (14 milioi euro), 5 ikerketa-lerrok** (biodibertsitatea, osasunari aplikatutako bioteknologia, komunikazio kuantikoa, energia eta hidrogeno berriztagarria eta material aurreratuak) 32 milioi euroko inbertsioa jasotzen dute guztira. (2023/03/27)
- ✓ 2019-2022 Unibertsitate Sistemaren Plana ebaluatu ondoren, **2023-2026 Unibertsitate Sistemaren Plana onartu da** (2023/05/30)
- ✓ **Beka eta laguntza garrantzitsuenen artean**, honako hauek aipatu behar dira:
  - Unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketetarako beken eta laguntzen programa
    - 2020-2021 ikasturteko deialdia (60 M €)
    - 2021-2022 ikasturteko deialdia (63 M €)
    - 2022-2023 ikasturteko deialdia (72,6 M €)
    - **2023-2024 ikasturteko deialdia (68 M €)**
  - **Unibertsitate-ikasketak eta goi-mailako beste ikasketa batzuk egiteko beka-programa eta mugitzeko zailtasun bereziak dituzten ikasleen garraio-gastuak ordaintzeko laguntzak.**
    - 2021-2022 ikasturteko deialdia (28,6 M €)
    - 2022-2023 ikasturteko deialdia (28,5 M €)
    - **2023-2024 ikasturteko deialdia (28,5 M €)**
  - **Ikastetxe publikoetan edo, salbuespen gisa, itunpeko ikastetxe pribatuetan eskolatutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako eskola-garraiorako banakako dirulaguntzak.**
    - 2021-2022 ikasturteko deialdia (4,14 M €)
    - 2022-2023 ikasturteko deialdia (4,55 M €)
    - **2023-2024 ikasturteko deialdia (5,41 M €)**
  - **Ikasleentzako ordenagailu eramangarriak erosteko itunpeko ikastetxeentzako dirulaguntzen programa.**
    - 2021-2022 ikasturteko deialdia (21,16 M €)
  - **Hezkuntza Administrazioaren menpeko ikastetxeak dauden udal jabetzako higiezinetan obrak egiteko eta karpak hornitzeko eta instalatzeko gastuak finantzatzeko laguntza-programa (Udalaguntza).**
    - 2020 ikasturteko deialdia (10,2 M €)
    - 2021 ikasturteko deialdia (10,5 M €)
    - 2022 ikasturteko deialdia (8,1 M €)
    - **2023 ikasturteko deialdia (10 M €)**

- Hezkuntza-administrazioaren mendeko ikastetxeak (patio inklusiboak) dituzten udal-jabetzako higiezinetan jolas-guneak sortzeko edo hobetzeko obren gastuak finantzatzeko laguntza-programa: Hezkuntza-administrazioaren mendeko ikastetxeak (patio inklusiboak) dituzten udal-jabetzako higiezinetan jolas-guneak sortzeko edo hobetzeko obren gastuak finantzatzeko laguntza-programa:
  - 2022ko deialdia (7 M €)
  - **2023ko deialdia (7 M €)**
- **Lehen eta bigarren hezkuntza berezi irekia, hezkuntza berariaz indartzeko proiektuak eta hezkuntza-itunen bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programak finantzatzeko programa.**
  - 2021-2022 ikasturteko deialdia (37,4 M €)
- **Zuzeneko dirulaguntzak ematen zaizkie itunpeko ikastetxe pribatuei, 2021/2022 ikasturtean hezkuntza-laguntzako espezialistak kontratatzearen ondoriozko gastuetarako, hezkuntza-premia bereziak dituzten eta baliabide hori behar duten ikasleen zereginak gela arruntetan edo ikaskuntza-geletan eskolatzeagatik (15 M €).**
- **Titulartasun pribatuko Haur Hezkuntzako lehen zikloko eskolentzako laguntza-programa.**
  - 2020-2021 ikasturteko deialdia (26,59 M €)
  - 2021-2022 ikasturteko deialdia (24,59 M €)
  - 2022- 2023 ikasturteko deialdia (25,09 M €)
  - **2023-2024 ikasturteko deialdia (17,25 M €)**
- ✓ **Gobernuak erabaki du 44 milioi euro erabiltzea Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoetako eskola-garraioaren zerbitzua** kontratatzeko 2020-2021, 2021-2022, 2022-2023 eta 2023-2024 ikasturteetarako.
- ✓ **Akordioa, Mondragon Unibertsitatearekin, Deustuko Unibertsitatearekin eta Euskal Herriko Unibertsitatearekin 2023-2026 ekitaldietarako programa-kontratuak izenpetzeko baimena ematen duena.** Programa-kontratuaren finantzaketak lau urteko indarraldia hartzen du, eta aurreko aldi baino 35,1 milioi (+%17,86) gehiago erabiltzen dira. (235 M €) (2023/07/04)
- ✓ **Eusko Jaurlaritzak Donostia International Physics Center (DIPC) handitzea bultzatzen du,** bikaintasun-ikerketari indartzeko. Aurreikusitako inbertsioa 6.800 m<sup>2</sup>-ko azalera izango duen eraikin berri bat eraikitzeko da. (15M€) (27/01/2023)
- ✓ Plan hauek gauzatzen ari dira:
  - **2019-2023ko Hezkuntza Azpiegituren Plana** (hasierako aurrekontua 318 milioi eurokoa zen, eta 250 jarduera jasotzen zituen, 7 ardatz estrategikorekin bildu eta lehenetsitakoak).
  - **Gaitasun Handiko Ikasleentzako Hezkuntza-arretako Plana.** Ahalmen handiko ikasleak antzemateko eta horiekin esku hartzeko protokoloa ezartzea funts publikoekin sostengatutako ikastetxe guztietan. (2023/01/12)
  - **Ikasle Etorkinei Hezkuntza Arreta emateko Plana.**
- ✓ **Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren 2020rako Enplegu Publikoaren Eskaintza onartu da, 836 lanpostuko aurreikuspenarekin.** 2020ko EPE. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa. 2023-2024 ikasturteko praktikaldia. (2023/11/09)
- ✓ **Deialdia, 2022an, 3.178 irakasle lanposturentzat, merezimendu-lehiaketaren sistemaren bidez, enplegu publikoa egonkortzeko helburuarekin.** Prozesua azken zatian dago: EPE 2022 plazen jabetza hartzea. Irakasleak. (2023/11/14)

## >EMAITZAK

**ESKOLA UZTEAREN TASA % 5,6KOA IZAN ZEN 2022AN,  
ESTATUKO BAXUENA DA ETA EUROPAKO  
BATEZ BESTEKOAREN AZPITIK DAGO (EUROPAKOA % 9,6KOA DA)**


### KONPARAKETA EB-2022



Iturria: Eurostat / Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa.

**2021-2022 IKASTURTEAN, 2 URTEKO HAURREN  
ESKOLATZEA % 91,3KOA DA,  
ESTATUKO ALTUENA (ESTATUKOA % 64,2KOA DA)**

**AUTONOMIA ERKIDEGOEN KONPARAKETA.  
2021-2022 IKASTURTE**



*Iturria: Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioa.*

*Eskuragarri dauden azken datuak.*

# 6B HELBURUA: EUSKARAREN EZAGUTZAN ETA ERABILERAN AURRERA EGITEA

## >EUSKARAREKIKO KONPROMISOAK

- ✓ Herritarren euskararen ezagutza handitzen jarraitzea. Helduen ikaskuntza-plana sendotzea.
- ✓ Herritarren euskararen erabilera handitzen jarraitzea. Euskararen transmisioa bermatzea.
- ✓ Bereziki, euskararen erabilera handitzea aisialdian eta kirolean, EAEko sektore publikoan, eremu sozioekonomiko publikoan eta pribatuan.
- ✓ Herritarren hizkuntza-eskubideen bermean aurrera egitea.
- ✓ Euskararen lurralde guztietan erakundeen arteko lankidetzari indartzen jarraitzea.
- ✓ Euskara ardatz izango duen hezkuntza-sistema eleaniztuna bultzatzea, hizkuntza-aukera eta bi hizkuntza ofizialetan gaitasun egokia lortzearen printzipioak bermatuz.
- ✓ Helduek euskara B2 mailara arte doan ikastea lortzea, maila akademikoari lotuta.
- ✓ Euskararen erabilera sustatzea komunikabideetan, IKTetan eta esparru sozioekonomikoan.
- ✓ Zerbitzu publikoetan arreta elebiduna bermatzea eta euskal herritarren hizkuntza-eskubideen erabilera eraginkorra sustatzea.
- ✓ Euskarari eta hizkuntza-bizikidetzari buruzko adostasun sozial eta politiko zabalena bultzatzea eta artikulatzea.

## >LEGEGINTZALDIKO JARDUERAK ETA ERANTZUNAK

- ✓ **2021-2024 Euskararen Agenda Estrategikoa gauzatzen ari da.** 2021eko azaroaren 2ko Gobernu Kontseiluan onartu zen.
- ✓ **2022an abian jarri zen ESEP-Euskara Sustatzeko Ekintza Plana,** EAEko datozen hamar urteetako euskararen normalizaziorako politikak zehaztuko dituena. ESEP berria 2024an onartzea aurreikusten da.
- ✓ **2022ko abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, 1982ko azaroaren 24an onartua zen Euskararen Legearen 40. urteurrena ospatu zen.** Lege hori funtsezkoa eta ezinbestekoa da, eta, horri esker, euskal erakundeek eta, oro har, euskal gizarteak euskara biziberritzeko eta normalizatzeko prozesuari ekin ahal izan diote, egungo egoerara iritsi arte.
- ✓ **Euskararen ezagutzan eta erabileran aurrera egiteko laguntza eta dirulaguntza** garrantzitsuenen artean, honako hauek aipatu behar dira:

- **Irale programako euskara-ikastaroetan parte hartzeko irakasleak liberatu nahi dituzten ikastetxe pribatuentzako edo gizarte-ekimeneko ikastetxeentzako laguntza-programa.**
  - 2020ko deialdia (524.068 €)
  - 2021eko deialdia (628.000 €)
  - 2022ko deialdia (1.443.000 €)
  - **2023ko deialdia (1.433.000 €)**
- **Irale ikastaro-programa**, lanorduetan zein lanorduetatik kanpo, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza arautuko ikastetxe publiko eta itunpeko pribatuetako langileentzat.
  - 2021-2022 eta 2022-2023 ikasturteetako deialdiak
  - **2023-2024 ikasturteko deialdia**
- **o Unibertsitateaz kanpoko mailetan euskarazko ikasmaterialak ekoizteko laguntza-programa (EIMA)**
  - 2021-2022 ikasturteko deialdia (985.000 €)
  - 2022-2023 ikasturteko deialdia (985.000 €)
  - **2023-2024 ikasturteko deialdia (985.000 €)**
- **2021eko apirilaren 21ean, euskaltegi pribatuen sektorearekin akordio estrategiko bat lortu zen euskaltegi horien finantzaketa-sistema indartzeko eta handitzeko**, batez ere, irakasleen lan-baldintzak hobetzeko helburuarekin. Aurrekoari dagokionez, euskaltegi pribatuei eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuei zuzendutako dirulaguntzen programa aipatu behar da. 2022 eta 2025 bitarteko deialdietarako esleitutako funtsak **90.024.000 €-koak dira**.
  - 2020-2021 ikasturteko deialdia (22,4 M €)
  - 2021-2022 ikasturteko deialdia (12,76 M €)
- **Udaletako edo haien menpeko erakundeetako euskaltegiei zuzendutako dirulaguntzen programa, udal-titulartasuneko euskaltegi publikoak.**
  - 2020- 2021 ikasturteko deialdia (12,8 M €)
  - 2021-2022 ikasturteko deialdia (12,76 M €)
  - 2022-2023 ikasturteko deialdia (12,76 M €)
  - **2023-2024 ikasturteko deialdia (12,76 M €)**
- **Dirulaguntzen programa, euskaltegian edo euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuan hizkuntzaren ezagutza ebaluatzeko proba gainditu duten edo HABEren euskara-maila edo baliokidea egiaztatu duten ikasleentzat.**
  - 2020-2021 ikasturteko deialdia (3,13 M €)
  - 2021-2022 ikasturteko deialdia (3,78 M €)
- **Euskaltegi pribatuei eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuei zuzendutako dirulaguntzen deialdia, arbel digitalak eta horien euskarriak eskuratzeko.**
  - 2022ko deialdia (500.000 €)
  - **2023ko deialdia (170.000 €)**
- 2022ko martxoaren 11n, **Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien arteko Erakunde arteko Akordioa berritu zen, sektorearekin egindako akordioan oinarrituta, euskarazko hedabideen finantzaketa-aldi berrirako (2022-2024), hau da, laguntzak % 5 handitu ziren**. Eusko Jaurlaritzak **12 milioi euro** baino gehiago jarriko ditu hiru urtean.



- Euskara gizartean sustatzeko, zabaltzeko eta/edo normalizatzeko Euskalgintza dirulaguntzen programa.
  - 2021ko deialdia (1.350.000 €)
  - 2022ko deialdia (1.550.000 €)
  - **2023ko deialdia (1.700.000 €)**
- **Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuarekin sinatutako hitzarmen baten bidez, 760.000 euro gehiago bideratuko ditu euskarazko ikus-entzunezkoak ekoiztera. Horrela, ikus-entzunezko produkzioarako 2022ko deialdiaren guztizko zenbatekoa 3.190.000 €-koa izango da.**
  - **2023ko deialdia (2.430.000 €) (2023/04/18)**
- **Euskara Esparru Sozioekonomikoan Sustatzeko 2021-2024 Plana garatzen eta hedatzen jarraitzen da, besteak beste:**
  - Dendetan euskarazko komunikazioa sustatzeko “Eskatu euskaraz, eskaini euskaraz” kanpaina, 2021. eta 2022. edizioak.
  - Durangaldean LANDUE ekimena martxan jartzea.
  - DurangLanhitz laguntza-programa, EAEko sektore pribatuko lantokietan euskararen erabilera eta presentzia sustatzeko.
    - 2021eko deialdia (2 M €)
    - 2022ko deialdia (2 M €)
    - **2023ko deialdia (2 M €)**
  - **INDEUS programa biziberritzea.**
  - **Eusko Jaurlaritzak eta sei finantza-erakundeek hitzarmena sinatu dute sektorean euskararen normalizazioan aurrera egiteko.**
  - **Eusko Jaurlaritzak Elkargoak Euskaraz Sarea bultzatu du.** Proiektu horrek elkargo profesionaletan eta elkargokideen lan-espazioetan euskararen erabilera sustatzen du.
  - **2022an Bikain Ziurtagiriak eman zitzaizkien 28 erakunderi.** Ziurtagiri horrek euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa maila egiaztatzen eta aitortzen du esparru sozioekonomikoan. 2023an, 37 erakundeek euskararen kudeaketaren arloan egindako lana aintzatetsi da.
- ✓ **“Euskararen ingurune digitala: gomendioak (2022-2024)” dokumentua aurkeztu da,** Euskararen Aholku Batzordeko Ingurune Digitaleko Batzorde Bereziak egina. Batzorde hori izango da datozen urteetan ingurune digitalean euskararen erabilera sustatzeko ibilbide-orria.
- ✓ **Gobernu Kontseiluak “EAEko administrazio orokorraren eta hari atxikitako sektore publikoaren hizkuntza-irizpideak” onartu ditu,** herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko.
- ✓ **Etengabeko lankidetzak HABEren eta Lanbideren artean, langabetuak euskaraz trebatzeko.**
- ✓ **Indarrean jarraitzen du Hiruko Itunak,** 2021eko urrian 2025era arte luzatu zena, Eusko Jaurlaritzaren, Nafarroako Foru Gobernuaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren arteko hizkuntza-politikaren arloko lankidetzaren oinarri berriak ezartzen dituena.
- ✓ **«Iparraldeko Euskeraren Erakunde Publikoa» deitutakoarekin euskara sustatzeko lankidetzarako 2017-2022 Esparru Akordioa.** Aurrekoarekin lotuta, Eusko Jaurlaritzak eta Euskararen Erakunde Publikoak 1.930.000 euroko funtsa eratuko dute aurtien Iparraldeko eragileak bultzatzeko. Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskararen Erakunde Publikoak Euskaraz barra-barra marka aurkeztu dute euskaraz hitz egiteko guneak identifikatzeko. (2023/03/31)
- ✓ **Euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagiriaren baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko** azaroaren 9ko 297/2010 Dekretua aldatzea. Une horretatik aurrera, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Sailak eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoak emandako euskara titulu ofizialak ere automatikoki aitortuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoan balio osoarekin. (2023/04/18)

- ✓ **Kirolean euskarazko komunikazioa sustatzeko 2021-2024 Plana indarrean dago.**
- ✓ **Hamaika Esku programa.** Programa honen helburua da ikastetxeen funtzionamendua eta ikasleen hezkuntza-emaitzak hobetzen laguntzea, ikasleen ezaugarrietatik, zailtasunetatik, beharretatik eta indarguneetatik abiatuta, jarduera koherente eta egoki baten bidez, bai eta bazterkeria-egoeran (testuinguru sozioekonomiko eta kultural zaila, kokapen geografikoa, administrazio-egoera...) hainbat arrazoirengatik gara daitezkeen ikastetxeen baldintzak hobetzen laguntzea ere, eta haien baliabideen kudeaketa eta eraginkortasuna hobetzea.
- ✓ **Gaitu aurkeztu da, 2021-2024 Hizkuntzaren Teknologien Ekintza Plana,** euskara hizkuntza-teknologietan integratzeko helburua duena. (2022/04/29).
- ✓ **Euskararen autoikaskuntzarako INGURA sistema aurkeztu da.** Plataforma teknologiko berria da, eta ikaskuntza-metodologiak nabarmen hobetzen ditu.
- ✓ **Jaurlaritzak Euskaraldia gizarte-ekimena babestu du,** hizkuntza-ohiturak euskararantz eragiteko eta eraldatzeko helburua duen herri-ekimen nagusietako bat.
- ✓ **Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak azterlan bat argitaratu zuen** 2022an. Azterlan horren arabera, **euskal gizartearen gehiengo zabalak babesa eskaintzen die Administrazioan euskara sustatzeari,** euskara ikasteko laguntza-politikei, enpresek euskara sustatzeko inplikazio handiagoa izateko beharrari, ingurune digitalean euskarazko eduki gehiago sortzeko beharrari, euskarazko hedabideak babesteari...
- ✓ **Gaur egun, B2 mailara arteko matrikulazioa doakoa da,** baita C1 maila egiaztatzen duten 16 eta 30 urte bitarteko gazteena ere, betiere maila gainditzen badute. **Berritasun gisa, lerro berri bat jarri da abian 2023-2024 ikasturterako, 16 eta 18 urte bitarteko gazteek C1 komunikazio-maila hobetzeko ikastaro bat doan izan dezaten.** (2023/09/11)

## >EMAITZAK

### AZKEN INKESTA SOZIOINGUISTIKOAREN ARABERA, 2021EAN EUSKADIKO 25 URTETIK BEHERAKO BIZTANLEEN % 82,6 EUSKAL HIZTUNAK ZIREN

EUSKAL HIZTUNEN EHUNEKOA	2011	2017	2021
25 urtetik beherako biztanleen artean	73,2	81,2	82,6
Biztanleria osoa	36,4	41,0	43,3

*Iturria: VII Inkesta Soziolingüistikoa 2021 (2023/03/30).*

# 7. HELBURUA:

## BIZITZA-ITXAROPENAREN BATEZ BESTEKOA 85 URTERA ARTE HANDITZEA

### >OSASUNAREKIKO KONPROMISOAK

- ✓ Biztanleko osasun-gastu publikoa Europako batez bestekoaren gainetik mantentzen dela bermatzea.
- ✓ Lehen mailako arreta indartzea, asistentziaren integrazioan aurrera eginez.
- ✓ Osasun-instalazioak eta -ekipamenduak modernizatzea eta egokitzea.
- ✓ Bereizmen handiko zentro bat eraikitzea Tolosan.
- ✓ Osasun-ikerketako ekosistema propioa garatzea eta osasun-arloari lotutako enpresa-sarea bultzatzea.
- ✓ Gizarte- eta osasun-zerbitzuak pixkanaka integratzea.
- ✓ Plantillak sendotzea eta osasun-arloko profesionalen prestakuntza eta aintzatespena bultzatzea.
- ✓ Itxaron-zerrendak hobetzeko plana garatzea.

### >LEGEGINTZALDIKO JARDUERAK ETA ERANTZUNAK

- ✓ Euskadin, biztanleko osasun-aurrekontu publikoa 2.148 €-koa izan zen 2023an, Estatuko batez bestekoaren gainetik (1.666 €).2024rako, 2.229 €-koa.
- ✓ **Euskal Autonomia Erkidegoa oso ondo kokatuta dago**, bai **bizi-itxaropenari** dagokionez, bai **bere buruaren osasun-egoerari** dagokionez. Era berean, aztertutako lurraldeen artean, airearen kutsadurak eragindako heriotza goiztiar gutxien dituen guneetako bat da. (*Euskadiko lehiakortasun-txostena 2023, Orkestra*)
- ✓ Euskadin bizi diren pertsona guztien **lehen mailako osasun-arretak 28 M €** izan zituen 2023an, guztira, 14 osasun-zentrotan inbertsioak egiteko.
- ✓ **Osakidetzak 2019-2019 urteetako LEP probak, 2020-2021-2022ko LEPak eta 2021eko Egonkortze LEPa amaitu ditu 2022. eta 2023. urteetan.** Guztira, 11.000 plaza baino gehiago egonkortu dira, Osakidetzako plantillaren herena.
  - 2018-19ko EPEko Enplegu Publikoaren Eskaintza ia amaituta dago, hautaketa-prozesua gainditu duten eta plaza lortu duten izangaiei destinoak esleitzeko zain. (2023/11/15).
  - 2020, 2021, 2022 eta egonkortzeko LEPen prozedurak abian daude, eta proba guztiak eginda daude.

- ✓ **2024an, Osakidetzak egonkortzeko prozesua amaitzea** aurreikusten da, LEPen prozesuak amaituta eta egiturazko plantilla finkatuta.
- ✓ **2023rako Lan Eskaintza Publikoa onartu egin da. 3.010 plaza** ditu, guztira, eta aurrerapauso handia da euskal sektore publikoan enplegu publikoa sustatzeko helburuan. Plaza horietatik 1.434 Osakidetzari dagozkie. (2023/12/13)
- ✓ **Osasunaren arloko politika publikoen plangintzaren esparruan, honako plan hauek onartu eta garatzen ari dira:**
  - **2018-2023 aldirako Euskadiko Plan Integral Onkologikoa, indarraldia amaituta.**
  - **Itxaron-zerrendak hobetzeko jarduketak.** Estatuko baxuenen artean daude, eta, horri esker, ebakuntza kirurgikoetarako batez besteko atzerapena berme-dekretuak finkatzen duen mugaren azpitik dago.
  - 2021-2028ko Osasun Plan Estrategikoa.
  - **Osakidetzaren Plan Estrategikoa.**
  - **Osasun Mentaleko Estrategia eta elikadura-jokabideko trastornoen planak, Patologia Duala eta Haur eta Gazteen Patologia, Adikzioen Plana.**
  - **VIII Adikzioen Plana 2023-2027**
  - **Pazientearen Segurtasun Plana.**
  - **Zainketa aringarrien plana.**
  - **IKTUSren plana.**
  - **Gaixotasun neurodegeneratiboen estrategia.**
  - **Euskadiko Estrategia Soziosanitarioa 2021-2024.**
  - **Osasun arloko Ikerketa eta Berrikuntzarako Euskal Estrategia 2022-2025.**
- ✓ **Eusko Jaurlaritzak**, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren bitartez, eta Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako eta Iparraldeko beste erakunde eta entitate batzuekin batera, **Bertan proiektuan parte hartzen du**. Proiektu horrek **landa-eremuetan biztanleriaren zahartze progresiboaren erronkak eta mugaz gaindiko eremuan zerbitzu publikoak eskuratzeko dauden zailtasunak jorratzen ditu.**
- ✓ Lehendakaria bertan delarik, **Sempervirens parkean egindako Covid-19aren biktima guztiak oroitzeko eta aitortzeko ekitaldia egin da**. Ekitaldi horren bidez, elkartasuna adierazi zaie familia guztiei eta beren maiteak kaleratu ezin izan zituzten pertsona guztiei, bai eta pandemian zehar arlo guztietako profesionalek egindako ahalegina aitortu ere. (2023/09/21)
- ✓ **Euskadi hautatua izan da Europar Elkarreragingarria den errezeta elektronikoaren proiektua gidatzeko**. Horretarako, garapen tekniko eta funtzionaleko ingurune probak eta Europako Batzordearen auditoria gainditu ditu (2022/07/21). Europako Batzordeak baimena eman ondoren, Poloniak Portugal eta Kroaziarekin bat egin du, herrialde horietan jada martxan baitzegoen euskal errezeta elektronikoa, eta laster Estonia eta Finlandia gehituko zaizkie. (2023/02/09)
- ✓ **Eusko Legebiltzarrean Euskadiko Osasun Publikoari buruzko azaroaren 30eko 13/2023 Legea onartu da**, Euskadiri lege-esparru bat eman nahi diona, euskal gizartean dauden osasun-premia eta -eskaera berriei modu eraginkor eta integratuz erantzuteko. **“Osasuna politika guztietan”** eta **“osasun-arloko desberdintasunak eta ekitate ezak murriztea”** dira Legearen edukian sartzen diren bi kontzeptuak.
- ✓ **Legebiltzarrean 2024rako inbertsioen eta azpiegituren plangintza aurkeztu da, Osasun Sailak urte horretarako duen aurrekontuarekin batera**, eta sail hori da berriz ere **zuzkidura ekonomiko handiena duena**. Osasun Aurrekontuen Proiektua % 5,3 handitu da, eta 2024an 4.896,6 milioira iritsi da, pertsonako 2.200 euroko gastuaren muga gaindituz. (2023/11/07)
- ✓ **Osakidetzak 3.936 M €-ko aurrekontua izango du**, horietatik % 65 langileentzat eta **137 M € inbertsioetarako**. Besteak beste, **protonterapia, Bidasoa eta Zumarragako bloke kirurgikoak, Arrasateko ospitalea, Txagorritxuko hemodialisia eta Gurutzeta, Basurtu eta Galdakaoko hobekuntza edo eraberritze lanak**. (2023/11/07)

## >EMAITZAK

**JAIOTZEAN BIZI-ITXAROPENA EUSKADIN 86,1 URTEKOA DA EMAKUMEENTZAT ETA 80,7 URTEKOA GIZONENTZAT, ETA EUROPAR BATASUNEKO ETA MUNDUKO ALTUENETAKO BAT DA**


### BIZI-ITXAROPENAREN BILAKAERA JAIOTZEAN

	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Emakumeak	86,3	86,3	86,3	86,8	86,0	86,4	86,1
Gizonak	80,4	80,6	80,8	81,0	80,3	80,9	80,7
Guztira	83,4	83,5	83,7	84,0	83,2	83,7	83,5

Iturria: INE. Oinarrizko adierazle demografikoak.

**2021EKO GIZA GARAPENAREN INDIZEAREN DATUEN ARABERA, ATAL HONETAN EUSKADI BURUAN DAGO, GARAPEN-INDIZE ALTUA EDO OSO ALTUA DUTEN HERRIALDEEN ARTEAN**

### BIZI-ITXAROPENA JAIOTZEAN. KONPARAKETA (2021)



Iturria: Eustat (2022/11/10) eta 2021eko Giza Garapenaren Indizea.

Nazio Batuen Garapenerako Programa (NBGP).

## 8. HELBURUA

# BEROTEGI-EFEKTUKO GASEN EMISIOA % 30 MURRIZTEA, 2005. URTEA OINARRI HARTUTA

## >IRAUNKORTASUNAREKIKO KONPROMISOAK

- ✓ Lurraldearen plangintza egokia eta orekatua garatzea. Energia-eraginkortasuneko planak garatzen dituzten udalei laguntzea.
- ✓ Eraikuntza iraunkorra eta ia isurketarik gabeko eraikinak sustatzea eta etxebizitza-parkea berritzeko politika garatzea.
- ✓ Ekonomia zirkularra eta hondakinen berrerabilera sustatzea.
- ✓ Mugikortasun iraunkorra bultzatzea, garraio publikoa eta garraio publikoaren eta pribatuaren elektrifikazio progresiboa sustatuz.
- ✓ Hiri-hondakinen sorrera murriztea. Lehen mailako hiri-hondakinak zero isurtzeko bidean aurrera egitea.
- ✓ Natura-ingurunearen eta ekosistemen hobekuntza bultzatzea, biodibertsitatearen defentsa sustatuz.
- ✓ Energiaren azken kontsumorako iturri berriztagarrien sorrera eta erabilera areagotzea, eta energia-eraginkortasuna handitzea, autokontsumoa eta sorkuntza banatua bultzatuz.

## >LEGEGINTZALDIKO JARDUERAK ETA ERANTZUNAK

- ✓ **Berotegi-efektuko gasen eta airearen kutsatzaileen emisio-mailak hobetzen ari dira;** horrela, berotegi-efektuko gasen emisioak nazioarteko helburuetara hurbiltzen ari dira. Birziklatze-tasa Espainiakoa baino handiagoa bada ere, oraindik bidea dago zirkulartasunean eta hondakinen berraprobetxamenduan aurrera egiteko. (*Euskadiko lehiakortasun-txostena 2023, Orkestra*)
- ✓ **Legebiltzarrak Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legea onartu zuen,** eta haren proiektua 2020/11/3an onartu zuen Gobernu Kontseiluak.
- ✓ **Eusko Legebiltzarrak 9/2021 Legea,** azaroaren 25ekoa, **Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeari buruzkoa onartu zuen,** eta haren proiektua 2020/11/24an onartu zuen Gobernu Kontseiluak

- ✓ Honako Plan Estrategiko hauek onartu dira:
  - **Trantsizio Energetikorako eta Klima Aldaketarako Plana.**
  - **Ekonomia Zirkularren eta Bioekonomiaren Plana.**
- ✓ **Euskadiko Garraio Iraunkorraren 2030erako Gida Plana gauzatzen ari da.**
- ✓ **Mugikortasun iraunkorraren aldeko itun sozial bat sinatzeko prozesua abian da. Interinean adostasuna lortu da Mugikortasun Iraunkorreko Planari buruz,** prestatzen ari baita.
- ✓ **Metroaren 5. linea Galdakaora bultzatzeko proiektuaren aurkezpena** (Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundia). 5. lerroa bultzatzea erabaki da.
- ✓ **Euskadiko 2030erako V. Ingurumen Esparru Programa onartu da,** zeinak Euskadiko ingurumen-politiken iparrorratza irudikatzen baitu hamarkadaren amaierara arte, eta 2030. urterako lurralde jasangarriago bateranzko norabidea markatuko baitu. (2023/03/18)
- ✓ **Legebiltzarrak 11/2023 Legea, azaroaren 9koa, Mugikortasun Iraunkorrari buruzkoa Legea onartu du.** Lege hori oso garrantzitsua da garraio-sistema iraunkorra, modernoa eta Euskadiko gizartea egituratuko duena lortzeko. Horrez gain, mugikortasun iraunkorra planifikatzeko tresnak arautzen ditu, eta foru- eta toki-erakundeek ingurumena errespetatuko duen mugikortasunaren aldeko fiskalitatea garatzeko oinarriak ezartzen ditu. (2023/11/09)
- ✓ **Hondakinen prebentzio- eta kudeaketa-plana 2030 abian da,** eta hondakinen sorrera % 30 murrizteko erronka finkatu da.
- ✓ **Mubil Elektromugikortasun Zentroa ireki da,** Euskadin mugikortasun adimendunaren eta iraunkorraren arloan ekimenak bultzatzen dituzten eragile publiko eta pribatuen ahaleginak biltzen dituen, mugikortasun adimendunaren eta iraunkorraren esparruan eragile garrantzitsu bihur dadin.
- ✓ **Ibilgailu eraginkor eta alternatiboetan inbertsioak egiteko laguntza-programa (Renove Plana) ezarri da:**
  - **Enpresa pribatuetako bidaiariak eta salgaiak garraiatzeko flotak eraldatzeko laguntza-programa.**
    - **2022-2024 deialdia (6,4 M €)**
  - **Errepideko salgaien garraiorako flotak modernizatzeko laguntza-programa**
    - **2022-2023 deialdia (9 M €)**
- ✓ **Euskadiko industriak konpromisoa hartzen du zero emisio garbi lortzeko, eta Glasgowko COP26an bat egingo du WEF Aliantza Globalarekin.** Euskadik bat egiten du World Economic Forum (WEF) garatzen ari den programarekin, industria-klusterretatik zero emisio garbietarako trantsizioa bultzatzeko.
- ✓ **Klimaren aldeko gizarte-akordioa Euskadin: "Basque Green Deal".** Basque Green Deal Gunea sortu da, Euskadi zeharkatuko duen foroa, Europako itun berdearen espirtua zabaltzeko.
- ✓ Ekodiseinuko eta ekonomia zirkularreko lankidetzak publiko-pribatuko aliantzak, **Basque Ecodesign Centerrek, 18 bazkide** ditu gaur egun.
- ✓ **Gasteizko autobus elektriko adimenduna lanean bete-betean.** Gasteizko mugikortasun elektriko zentroa autobus elektriko adimendunaren unitateak hartzeko abiatu da (2023/01/12)
- ✓ **"Urban Klima 2050: Euskadin egokitzapena finantzatzeko eragile anitzeko lankidetzak" nazioarteko jardunaldia antolatu eta ospatu da.** Jardunaldi horrek LIFE Urban Klima 2050 proiektu europarraren aurrerapen nagusiak ezagutaraziko ditu. Proiektu hori Euskadiko ekintza klimatikoko ekimen handiena izango da hurrengo urteetarako, 2025era arte.
- ✓ Iurretako Ertzaintzaren basean, **Related (Renawable Low «District»)** ikerketa-proiektu europarraren aplikazio bat aurkeztu da. Bertan, Europako 8 herrialdeetako 14 enpresa eta erakundek parte hartzen dute. Proiektu pilotua jasangarritasun eta eraginkortasun energetikoaren estrategiaren barruan kokatzen da, eta EEEK, TECNALIAK, INNOMETALEK eta NIBEK garatu dute, besteak beste.

- ✓ 2022aren amaieran (7/XII), Jaurlaritzak **“Euskadiko erosketak eta kontratazio berdea 2030” programa** onartu zuen, euskal administrazioen erosketen % 75 gutxienez irizpide jasagarrien arabera egin zedin hamar urte baino lehen. Aurreikusitako neurrien artean, euskal erakunde horidura elektrikoaren % 100 iturri berriztagarrietatik etortzeko konpromisoa nabarmentzen da.
- ✓ Besteak beste, honako programa hauek ezartzen ari dira energiaren erabilera eraginkorra eta iraunkorra bultzatzeko:
  - **Gauzatu Energia Programa 2021-2030**, toki-erakundeei zuzendua, eraginkortasun energetikoari buruzko proiektuak sustatzeko udal-jarduerak finantzatzeko. (100 M €).
  - **Autokontsumoari eta biltegitzeari lotutako pizgarrien programa**, energia-iturri berriztagarriekin, bai eta sistema termiko berriztagarriak ezartzea ere bizitegi-sektorean, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan.
    - 2021ean deialdia egin zen eta 2022an igoera izan zuen (66.784.314 €).
  - Euskal Autonomia Erkidegoko **industria-sektoreko enpresa txiki eta ertainentzako eta enpresa handientzako energia-eraginkortasuneko jarduketetarako laguntza-programa**.
    - 2019ko deialdiak eta ondorengo gehikuntzek, guztira, 61 M€

## >EMAITZAK

### 2005. URTETIK, EUSKADIK % 30,5 MURRIZTU DITU BEROTEGI-EFEKTUKO GASEN ISURKETAK, ETA, HORRELA, % 30EKO MURRIZKETA LORTZEKO HELBURUA BETE DA.

	2005	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Euskadi	100	73,5	77,4	74,9	73,1	64,6	69,5
Espainia	100	75,0	78,2	77,1	73,0	61,9	66,0
EB-27	100	84,7	85,4	83,7	80,3	72,4	76,4

Iturria: Eurostat eta eta Berotegi Efektuko Gasen Isurien Inbentarioa.

(Ekonomiaren Garapena, Jasagarritasuna eta Ingurumena Saila).

Eskura dauden azken datuak: 2021.



# 9. HELBURUA:

## ENERGIA BERRIZTAGARRIEN KUOTA ENERGIAREN AZKEN KONTSUMOAREN % 20 IZAN DADIN LORTZEA

### >TRANSIZIO ENERGETIKOAREKIKO KONPROMISOAK

- ✓ Energiaren azken kontsumoan iturri berriztagarrien erabilera areagotzea.
- ✓ Eraginkortasun energetikoa, autokontsumoa eta sorkuntza banatua handitzea.
- ✓ Hidrogenoa bektore energetiko gisa bultzatzea, ekonomia jasangarria eta deskarbonizatua lortzeko.
- ✓ Energia berriztagarrien instalazioen bidez energia sortzeko parkea handitzea.
- ✓ Garraio publikoa sustatzea eta ibilgailu pribatuen flota berritzea, eraginkorrakoak diren eta erregai alternatiboak dituzten ibilgailuekin.
- ✓ Berrikuntza eta garapen teknologiko eta industrialeko euskal estrategian sakontzea, energiaren arloan, enpresa-sarea eta enplegua sustatzeko palanka gisa.
- ✓ Bidezko trantsizio energetikoa bermatzea, egoera ahulenean dauden pertsonen babes soziala sustatzea eta pobrezia energetikoko egoerak saihestea.

### >LEGEGINTZALDIKO JARDUERAK ETA ERANTZUNAK

- ✓ **Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legea garatzen ari da.**
- ✓ **Plan eta estrategia hauek gauzatzen ari dira:**
  - **Euskadiko Energia Estrategia 2030.** Estrategia hori epe luzeagoko ikuspegi baten barruan kokatzen da, gero eta jasangarriagoa den energia-sistema bat lortzeko, lehiakortasunari, horniduraren segurtasunari eta karbono gutxiari dagokienez.
  - **Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Plan Estrategikoa 2022-2024.**
  - **EAEko Sektore Publikoaren Jasangarritasun Energetikorako 2025eko Jarduketa Plana.**

- **Jasangarritasun Energetikoaren Batzordeak Sektore Publikoaren 2030erako Jarduera Energetikoaren Plana onartu zuen**, lau ekintza-ildo nagusirekin: energia-eraginkortasuna eraikin eta instalazioetan; berriztagarriak ezartzea eta erregai fosilak ordezkatzeko; mugikortasun iraunkorra; eta prestakuntza (2023/03/08).
- **Hidrogenoaren Euskal Estrategia aurkezten da**, Eusko Jaurlaritzaren jarrera adierazten duena, euskal gizartea eta bere industria-ehuna hidrogenoaren ekonomiaren garapenaren aukerak aprobetxatzeko jarrera onenean kokatzeko.
- **Energia Berriztagarrien 2030erako Euskadiko Lurralde Plan Sektoriala prestatzen ari da**. 2023ko maiatzaren 10ean hasierako onarpena eman zitzaion.
- **2030eko Mugikortasun Elektrikoaren Euskal Estrategia abian jartzea** (2022/07/26). Estrategia horrek **1.550 - 2.340 M €-ko inbertsioa** aurreikusten du **2030era arte**, eta eragin handia izango du balio erantsian, enpleguan, enpresa-lehiakortasunean eta berrikuntzan. Parke mugikorraren % 16ekin, hiriko autobusen % 50ekin eta taxi-floten % 80ekin 2030. urtera iritea planteatzen da, elektrifikatuta. Euskadiko karga azkarreko guneen kopurua bikoiztea proposatu du, bai eta euskal automobilgintzaren sektorean mugikortasun elektriko 15 proiektu eta ibilgailu elektriko kargatzeko 10 proiektu teknologiko abian jartzea ere, ekimen pribatuak gidatuta eta Gobernuak lagunduta.
- ✓ **Erreferentziako helburuan eragina duten laguntzen artean**, honako hauek nabarmendu behar dira:
  - **Gauzatu Energia programa**, udalei eta beste toki-erakunde batzuei zuzendua.
    - 2022ko deialdia (100 M €)
  - **Autokontsumoari eta biltegiatzeari lotutako pizgarrien programa, energia-iturri berriztagarriekin**, bai eta sistema termiko berriztagarriak ezartzea ere bizitegi-sektorean, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan.
    - **2021-2023 epeko deialdia (106,76 M€)**.
  - **Euskadiko eraikinetako birgaitze energetikoko jarduketetarako laguntza-programa**.
    - 2020-2022 epeko deialdia (58,19 M€)
  - **Eraikin eta etxebizitzaren birgaitze energetikorako Next Generation EU funtsen 47,2 M € onartu dira**. Guztira, Euskadik 86,3 milioi euro jaso eta gaitu ditu dagoeneko Next Generation EU funtsen bidez, etxeetako energia-eraginkortasuna hobetzeko erreformatarako (2023/05/09)
  - **Euskadiko tokiko administrazio publikoaren jasangarritasun energetikoa hobetzeko azterlanak eta auditoriak egiteko laguntza-programa**.
    - 2021eko deialdia (5 M €)
  - **Ekonomiaren hainbat sektoretan energia berriztagarri termikoen instalazioak ezartzeko pizgarrien programak, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan**.
    - **2022-2024 epeko deialdia (21,2 M €)**
  - **Eraginkortasun energetikoan, energia berriztagarrietan, garraioan eta mugikortasun eraginkorrean inbertsioak egiteko laguntza-programa**.
    - **2022-2023 epeko deialdia (4 M€)**
- ✓ **Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta Mondragon Taldeak sei energia-kooperatiba bultzatzen dituzte Arabako kuadriletan.**
- ✓ **EuropeWave proiektuak programaren azken faserako hiru proiektu hautatzen ditu, horietako bi euskaldunak**, eta 13,4 milioi euroko aurrekontua izango dute BIMEPen olatuen energia-gailuak garatzeko. (2023/09/05)
- ✓ **Euskadik bat egin du Munduko Ekonomia Foroaren Adierazpenarekin, 2050ean euskal industriak zero emisio garbiekiko konpromisoa har dezan.**

## >EMAITZAK

### **ENERGIA KONTSUMOAREN % 16,6K ENERGIA BERRIZTAGARRIAK DITU ITURRI, BERAZ, 2024KO % 20KO HELBURUTIK GERTU GAUDE**

	<b>2012</b>	<b>2013</b>	<b>2014</b>	<b>2015</b>	<b>2016</b>	<b>2017</b>	<b>2018</b>	<b>2019</b>	<b>2020</b>	<b>2021</b>
Euskadi	11,2	12,7	13,6	12,9	13,9	13,0	16,5	14,5	16,8	16,6
Espainia	14,2	15,1	15,9	16,2	17,0	17,1	17,0	17,9	21,2	20,7
EB-27	16,0	16,7	17,4	17,8	18,0	18,4	19,1	19,9	22,0	21,8

*Iturria: EEE, Euskadirako; Eurostat, Espainiarako eta EB-27rako.*

# 10. HELBURUA:

## JAIOTZA-TASA % 10 IGOTZEA, ABIAPUNTUA DEN 2020KO ABIABURU-URTEAREKIN ALDERATUTA

### >FAMILIEKIKO KONPROMISOAK

- ✓ Lehen mailako arreta indartzea, asistentzia-integrazioan aurrera eginez.
- ✓ Seme-alabak dituzten familiei laguntzeko estrategia integrala garatzea.
- ✓ Jaiotza-tasarako laguntzak, Foru Aldundien zerga-arintzeen osagarri.
- ✓ Seme-alaba bakoitzeko laguntzak pixkanaka handitzea eta administrazioa sinplifikatzen saiatzea.
- ✓ Sektore pribatuan gutxienez 16 asteko aitatasun- eta amatasun-baimen berdinak eta besterenezinak sustatzea.
- ✓ Kontziliazio erantzukidea sustatzea, lan-bizitza eta gurasotasun positiboa uztartzea sustatzen duten neurrien bidez, etxeko lanen eta zaintza-lanen banaketa ekitatiboan eta parekidean aurrera egiteko gizonen eta emakumeen artean.

### >LEGEGINTZALDIKO JARDUERAK ETA ERANTZUNAK

- ✓ **Erronka demografikorako 2030eko euskal estrategia onartzea. 36 neurri osagarri garatzea aurreikusten du, demografiaren berreskurapenaren aldeko baldintza-ekosistema bat eratzeko.** Bost ardatz nagusi jorratzen ditu: gazteen emantzipazioa, familien eraikuntza, zahartze osasungarria, migrazio-gizarteratzea eta landa-balioa handitzea. Jarduera guztiek genero-ikuspegiari buruzko informazioa dute. Estrategiaren helburua da familia-aniztasuna aitortzea eta babestea. (2022/06/21)
- ✓ **Haurren eta Nerabeen Lege Proiektua onartzea,** adingabeen interes gorena eskubideen titular gisa onartzen duena, eta ez babes-subjektu gisa, eta haurren eta nerabeen eskubideei buruzko nazioarteko, Europako eta Estatuak itun garrantzitsuen xedapenak jasotzen dituena. Era berean, dokumentuaren helburua da nortasunaren garapen askea bermatzea eta urratutako eskubideak berreskuratzea eta itzultzea. (2023/06/27) Legebiltzarrean izapidetzen ari dira, eta 2024ko otsailean onartzea aurreikusten da.
- ✓ **Euskal Autonomia Erkidegoko Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Plana (2018-2022) gauzatzen ari da.**

✓ Erreferentziako helburuan eragina duten dirulaguntzen programen artean, honako hauek nabarmenduko ditugu:

- **Seme-alabak dituzten familien aldeko dirulaguntzen programa.**

2021eko aurrekontu-zuzkidura: 26.935.600 €

2022ko aurrekontu-zuzkidura: 25.036.200 €

- **Lana eta familia bateragarri egiteko laguntzen programa**, urriaren 22ko 164/2019 Dekretuaren 1. artikulua a), b) eta d) letretan aurreikusitakoak: a) Seme-alabak zaintzeko eszedentzian edo lanaldi-murrizketan dauden langileentzako laguntzak; b) Mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzian edo lanaldi-murrizketan dauden langileentzako laguntzak; eta c) 3 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzekeo laguntzak.

- 2021eko aurrekontu-zuzkidura: 37.016.082 €

- 2022ko aurrekontu-zuzkidura: 34.678.250 €

- **2023ko aurrekontu-zuzkidura: 30.350.000 €**

- ✓ 2023ko martxoaren 21ean, **Eusko Jaurlaritzak Gazteen Emantzipazioa bultzatzeko 2030erako Euskal Estrategia onartu zuen**. Helburua da 28 urterekin emantzipatzeko batez besteko adina murriztea 2030ean, eta emantzipazio-tasa, 25 eta 29 urte bitartean, egungo % 39,5etik % 50era igotzea.
- ✓ **27/2023 Dekretua**, otsailaren 21ekoa, **seme-alabak dituzten familientzako laguntzei buruzkoa**. Laguntza horiek zerga-kenkariari eta lehendik bultzatutako beste neurri batzuei gehitu ahal izango zaizkie, hala nola, haurreskolen doakotasunari edo kontziliaziorako laguntzei. **(110.000.000 €)** (2023/02/28)
- ✓ **191/2023 Dekretua**, abenduaren 26koa, **gazteak emantzipatzeko Emantzipa programarako laguntzak arautzen dituena**. Bi urtean zehar, **hilean 300 €-ko zuzeneko dirulaguntza aurreikusten du 25 eta 29 urte bitarteko gazteentzat**, baldin eta emantzipazio-prozesu bat hasi badute edo hastera badoaz.

## >EMAITZAK

**DATUAK BEHERANZKO JOERA IZATEN JARRAITZEN DU  
ETA GORANZKO JOERA-ALDAKETAREN AURREAN ERRESISTENTZIA  
ERAKUSTEN DU. AZKEN LAU URTEETAN 0,9 PUNTU JAITSI DA**

### JAIOTZA-TSAREN BILAKAERA (%)

	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Euskadi	8,7	8,4	7,9	7,4	7,1	6,7	6,6	6,2
Espainia	9,0	8,8	8,4	7,9	7,6	7,2	7,1	6,9
EB-27	9,7	9,8	9,7	9,5	9,3	9,1	9,1	8,7

Iturria: INE (Euskadi) eta Eurostat. Jaiotzak mila biztanlekiko.



II. ERANSKINA.  
EUSKADIREN BILAKAERA  
2013-2023



## 1. OPAROTASUNA

	2013	2023	EUROPA
LANGABEZIA TASA	16,6	7,6	6,2 (2022)
GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIATUAK	875.161	1.012.947	---
I+G GASTUA / BPG	2,03	2,08	2,23
INDUSTRIA ETA ZERBITZU AURRERATUAK	40	40,8	41,6
IKERLARIAK MILIOI BIZTANLEKO	5.489	6.996	4.656
ESPORTAZIOAK	20.632	32.538	---
BPG PER CÁPITA	28.410	35.832	35.440
ETXEBIZITZAKO GASTU PUBLIKO OSOA	209,81	295,86	---
ETXEBIZITZARAKO ESKUBIDE SUBJEKTIBOAREN ESKAERAK	3.184	16.520	---
OSTATU-GAUEN KOPURUA	5.217.571	8.922.919	---
SALMENTA INDIZEA MERKATARITZAN	98,3	108	---

## 2. PERTSONAK

	2013	2023	EUROPA
GIZA GARAPEN INDIZEA	91,9	93,6	73,2
GAZTEEN EMANTZIPAZIO-TASA	43,5	34,2	50,6
ERTZAINZAREN IKERKETA-ATXILOKETEN TASA	257,95	349,05	---
HIRUGARREN MAILAKO IKASKETAK	61,5	65,3	42
ESKOLA UZTEAREN TASA	9,9	5,6	9,6
GASTU PUBLIKOA IKASLEKO (UNIB. GABE)	6.583	7.329	---
BIZI-ITXAROPENA JAIOTZEAN	83,7	84,0	80,1
OSASUNEAN PER CAPITA GASTUA	2.738	3.548	3.215
GENERO BERDINTASUNAREN INDIZEA	68,8	73,1	68
GINI INDIZEA	25,3	26,9	29,6
JAIOTZA-TASA	8,8	6,2	8,7
GIZARTE-BABESEKO GASTUA PER CAPITA	7.936	10.183	9.805
EUSKAL HIZTUNEN BILAKAERA	749.182	897.878	---
KULTURAKO ENPLEGUAREN EHUNEKOA	3,0	3,8	---



### 3. PLANETA

	2013	2023	EUROPA
BEROTEGI-EFEKTUKO GASEN INDIZEA	73,7	69,5	76,4
ENERGIA BERRIZTAGARRIEN KUOTA	12,7	16,6	21,8
PERTSONEN MUGIKORTASUNA GARRAIO PUB.	250.045	247.767	--

### 4. AUTOGOBERNUA

	2013	2023	EUROPA
GOBERNU-KALITATEAREN INDIZEA	0,283	0,969	--
EUSKADIREN KANPOKO ORDEZKARITZAK	--	+9	--
ESKUMEN BERRIAK	--	+11	--

#### EUSKADIREN KANPOKO ORDEZKARITZAK

- **Alemania**, Municheko Bulegoa(2013)
- **París**, Ordezkaritza, (2021eko irekiera)
- **Turkia**, Istanbulgo Bulegoa, (2022)
- **Hego Korea**, Seulgo Bulegoa, (2022)
- **Italia**, Milango Bulegoa, (2022)
- **Singapur**, Singapureko Bulegoa, (2018)
- **AEB**, Washingtoneko Bulegoa, (2018)
- **Erresuma Batua**, Londresko Bulegoa, (2017)
- **Japón**, Tokioko Bulegoa, (2022)

#### ESKUMEN BERRIAK

1. AP-12.
2. AP-68
3. Basurtu-Ariz eta Irauregi-Lutxana-Barakaldo trenbide-lineak
4. Lan-arloko legeria betearaztea: ohiko erretiroa hartu aurreko laguntzak kaleratze kolektiboko espedienteen eraginpean dauden langileentzat.
5. Farmazia-produktuei buruzko Estatuko legeria betearaztea
6. Eskola-aseguruaren osasun-prestazioen kudeaketari atxikitako baliabideak
7. Ondare-baliabideak, portuen arloan (Ondarroako Portuaren eraikina)
8. Espetxe-arloko Estatuko legeria betearaztea
9. ISSN (International Standard Serial Number) izendatzea
10. Errepideko garraioak
11. Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren prestazio ezkontributiboaren kudeaketa bere gain hartzeko hitzarmena



8

III. ERANSKINA.  
JARDUERA  
ESANGURUATSUENAK.  
2024. URTEA (URTARRILA)



**IREKIA**

- ✓ **Europar Batasunak Osakidetzaren Kronikotasunari buruzko Plana saritu du** (zahartzeari eta kronikotasunari buruzko euskal osasun-estrategia), eta Europako beste herrialde batzuetara transferitu du, zainketa integraleko jardunbide egokitzat hartuta. Osakidetzak garrantzia berezia eskaintzen die arretaren jarraipenari eta paziente horien ahalduntzeari eta nork bere burua kudeatzeari. (2024/01/05)
- ✓ **2024ko ETEentzako Laguntza Plana onartu da, 600 milioi eurokoa**, 80 programa baino gehiagoren bidez. Planaren aurrekontuaren % 49,3k I+G+B ekimenak lehenesten ditu, % 30ek deskarbonizazioa, eta, gainera, laguntzak aurreikusten ditu inbertsio berrietarako, enplegua sortzeko eta nazioartekotzeko. (2024/01/09)
- ✓ **Lankidetzaren deszentralizatuaren 2023ko txostena**, ELGAren 2021eko datuak biltzen dituena. Euskadi Garapen Deszentralizaturako Laguntza Ofizialaren nazioarteko rankingaren buru da, txostenean aintzat hartutako 38 estatuz azpiko gobernuen artean. Behar bezala identifikatutako 38 estatuz azpiko gobernu horien artean, Euskadi, Flandria, Katalunia, Valentziako Erkidegoa eta Eskozia nabarmentzen dira aurrekontu-bolumenagatik. (2024/01/12)
- ✓ **Ertzaintzak bere flota berritu du**, bultzada mistoa duten 534 patruila-auto gehituz. Horien batera sarean kargatu daiteke. Eredu hibrido entxufagarrien bidez Poliziaren ibilgailuen parkea berritzea datozen lau urteetarako da. Kontratazioa bat dator Euskadiko Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko Legearekin, 2050. urtea baino lehen klima-neutraltasuna lortzea helburu duenarekin. (2024/01/12)
- ✓ 2023ko apiriletik kolektibo jakin batzuei **sarbidea malgutzeak ahalbidetu du indarkeriaren biktimak izan diren 400 emakume baino gehiago eta 300 errefuxiatu Diru-sarrerak Bermatzeko** Errentaren (DSBE) sistema berrian sartzeari, bai eta adingabeak babesteko sistematik datozen 160 gazte sartzeari ere. (2024/01/16)
- ✓ **Goierriko Turismo Industriaren Plan Estrategikoaren aurkezpena** (2024/01/17).
- ✓ **Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren azken EPEak zeukan plaza kopurua bikoiztu du**. 212 plaza izatetik 410 izatera igaroko dira, bai Ertzaintzaren oinarriko eskalan, bai Euskadiko 31 udaletan. 2023ko urtarrilean Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren 212 plaza deitu ziren, eta, une honetan, hautaketa-prozesua amaitzen ari denean eta lehiaketaren behin betiko emaitzak argitaratu aurretik, Eusko Jaurlaritzak eta deialdia egin duten 31 udalek erabaki dute azkenean 410 plaza izatea. (2024/01/18)
- ✓ **Osakidetzaren Euskal Osasun Zerbitzuak bere sare osoan goi-mailako teknologiko 40 ekipo instalatzen amaitu du**. 53,6 milioi euroko inbertsioa duten ekipo horiek gaixotasun kronikoak, gaixotasun onkologikoak, gaixotasun arraroak eta gaixotasun neurologikoak dituzten pazienteentzat dira bereziki, eta diagnostiko goiztiarra eta proba eta terapia gehiago denbora laburragoan egitea erraztuko dute. Inbertsio hori goi-mailako teknologiko ekipoak berritzeko INVEAT Planaren barruan dago. Plan hori Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan jarri zen abian. Euskadik 30,5 milioi euro bildu ditu INVEATetik datozen funts europarretatik, eta gainerakoa, 23 milioi euro, Osakidetzaren aurrekontutik dator. (2024/01/19)
- ✓ **Familia Bitartekaritzako Zerbitzuak goranzko joera izan du azken bost urteetan**, eta iaz EAEko 2.447 familiaren arteko gatazketan esku hartu zuen. Familien % 86,7 joan ziren zerbitzura bikotearen hausturatik eratorritako gaiak jorraztera. (2024/01/21)
- ✓ **Eusko Jaurlaritzak 3,6 milioi euro baino gehiago bideratu zituen 2023an familien energia- eta elikagai-pobrezari aurre egiteko**. Ia 2.000 familiak jaso zituzten laguntza energetikoak eta 5.207k elikagai-egiteko bonuak. 2024an programak aurrera jarraituko du, eta, horretarako, Eusko Jaurlaritzak pobrezia materialaren eta pobrezia energetikoaren aurkako hiru partida aurreikusi ditu. (2024/01/23)
- ✓ SPRIk, Enpresa Garapenerako Euskal Agentziak, **Net-Zero Basque Industrial Super Cluster ekimena aurkeztu du**. Ekimen horren helburua da euskal industriaren energia-kontsumoaren deskarbonizazioa eta energia-efizientzia, eta, aldi berean, garapen teknologikoan eta berrikuntzan oinarritutako aukerak sortzea merkatuan. (2024/01/24)

- ✓ **Erakunde eta entitateekin Enpleguaren aldeko Itun Soziala sinatzea.** 97 erakundek konpromiso kolektiboa hartzen dute iraultza ekonomikoari berdintasun, lehiakortasun eta enplegu-kalitate handiagoz heltzeko. (2024-01-31)
- ✓ **SPRI-BasqueTrade & Investment erakundearen 21. bulegoak ireki da Kanadan.** Eusko Jaurlaritzaren 2021-2024rako nazioartekotze-estrategian lehenetsitako herrialdeetako bat baita. (2024-01-31)





EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO